# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-10-19
EGUBAKOITZA
526. ZENBAKIA
12. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET

TOKIKOM


## "Caja Ruralen askatasun handiagoarekin ibiliko gara"



**Iban Velasco**

Euskaltel Euskadiko txirrindularia | 15

## U-21en atarian, konfiantza eza eta itxaropena

Krisiak gehien kaltetutako arloetan galdetu dugu | 2

Indarra transmitituz, 'Arte-an', Arrasateko Amaia antzokian | 16



Nazioarteko txotxongilo saio ikusgarrienak Bergaran | 19



Jasangarritasun asteburua dute oraingo hau Eskoriatzan | 24



# ARETXABALETAKO TOMATEA, DENETAN ONENA

Euskadiko dastatze saioan Aretxabaletako *mozkorra* tomatea onena izan zela esan zuten epaileek. Aretxabaletan baditu 40 urte eta Slow Food mugimenduak bere babespean hartu du; izan ere, galtzeko arriskuan zegoen eta Gipuzkoan beste tomate mota batzuk dira dendetan zabalduenak, gehienak hibridoak. | 12

**Koldo Zubizarreta, ortuan, Aretxabaletako *mozkorra* tomatea eskuetan eta tomate landareak atzean dituela.** | UBANE MADERA

## Gauez eta Arrasate erdialdean, Tafyd krosa gaur

Hasi baino minutu batzuk lehenago eman daiteke izena | 28



Iazko lasterketa. | ARIZMENDI

## Moja klaratarrak joan egingo dira, Goenkalen 500 urte eginda

Bihar agurtuko dituzte, Bergarako Trinitate elizan | 17

## Berezia izango da 'Gigantes y Cabezudos' zarzuela | 31

## SINADURAK



**Historia garaikidea** | 7
ENEIDA ITURBE



7 | **Banastapera**
IBAN ARANTZABAL



**Sormen maratoia** | 40
IDOIA ETXEBERRIA


ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 7
HERRIAK 12 | KIROLA 28
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 36
EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38








# U-21en atarian, konfiantza falta eta itxaropena

▸ Garai zailotan, sentipen biak dituzte herritarrek

▸ Krisiak gehien kaltetutako arloetan galdetu dugu

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Krisiak eta neurri ekonomikoek pisu handia izango dute, seguru, domekan botoa emango dutenengan. Orri hauetan, bereziki zigortutako arlo batzuetako ordezkariak elkarrizketatu ditugu. Alderdiengan konfiantza txikia agertu dute, baina itxaropena ere bai.

**EDUARDO ZUBIAURRE**
ENPRESABURUA

## "Ezinbesteko gastuak finkatu behar dira, eta hazkundea sustatu"

**1.** "Lehentasunak ezarri behar dira gastuei dagokienez, ezinbestekoak finkatuz eta arruntak gutxituz. Era berean derrigorrezkoak izango dira inbertsioa, enpresen garapena eta lanpostuak sustatu ditzaketen neurriak: fiskalitatea, finanziazioa, lan harremanetan adostasunak lortzeko bitartekoak, ikerketa, berrikuntza eta nazioarteratzea. Hazkunde ekonomikoa berreskuratzeak eta lanpostuak sortzeak aterako gaituztelako egoera honetatik, eta hori %85ean enpresen ekarpena da".

**2.** "Gure herriko enpresa industrialetan krisi honek ia hamar urte atzera eraman gaitu adierazle garrantzitsuetan: salmentak, lanpostuak, jarduera, inbertsioak, e.a. Hobeto eusten ari dira esportazioetan, eta bereziki Europatik at, indartsu dabiltzanak. Zorionez horixe da orokorrean gure enpresaren egoera.".

**3.** "Komunikabideetako adierazpenetan entzuten ditudanen arabera, badira batzuk oso demagogikoak eta zentzugabeak iruditzen zaizkidanak, aipatu ditudan neurriak hartzen ez badira ezinezkoa izango baita horrenbeste aldarrikatzen den ongizate hori era jasangarrian bermatzea".

**JOSE RIVIERE**
ERRETIRATUA

## "Akorda daitezela herritarrondako lanean ari direla"

**1.** "Utz dezatela ika-mika eta pentsa dezatela herritarrok gero eta gusturago egon gaitezen egiteko lanean, eta kobratzen, dabiltzala".

**2.** "Ongizate Estatua txikitu egin da eta nagusiok eroste-ahalmena ere txikiagoa da. Guk legea bete genuen, ordaindu genuen tokatzen zitzaigunean, baina Madrilgo gobernuak ez du zegokiona bete. Orain, nagusiok arazo asko ditugu, eta oso emankorrak garela ez zaigu errekonozitzen: seme-alabei eta ilobei laguntzen diegu hipoteka ordaintzen eta bestela, ilobatxoak zaintzen ditugu…".

**3.** "Alderdi politikoek, euren programetan –eta den-denek egiten dute hau– gauza asko agintzen dituzte, eta gero ez badituzte betetzen, baliabideak izan ez dituztelako izan dela diote. Bada, zerbait ez badago euren eskuetan, ez dezatela hitza eman! Behin hori esanda, nik legea eta nire eskubidea betetzea gura izan dut beti, eta beti eman dut botoa, batzuetan bati, beste batzuetan beste bati, zuriz ere bozkatu izan dut… eta oraingoan ere joango naiz botoa ematera".

**1.** Zer eskatzen diezu hurrengo lehendakariari eta gobernua osatuko dutenei?

**2.** Krisiak eta murrizketek zela eragin dizute?

**3.** Zela baloratzen duzu alderdien jarrera zuri dagozkizun kontuetan?


Eduardo Zubiaurre. | LEIRE KORTABARRIA


Jose

**IZASKUN ARRIARAN**
ERIZAINA

## "Langile guztien eskubideen alde egin behar dute"

**1.** "Erakunde eta goi kargu guztien berrantolaketa, bikoiztuta eta beharrezko ez diren postuak karguak kenduta. Baliabide ekonomikoak, materialak eta pertsonalak egoki erabiltzea, behar nagusiak zeintzuk diren kontuan hartuta. Langileen eta jende umilaren eskubideen alde borroka egitea, maila ekonomiko txiki edo ertaina dutenen alde; izan ere, horiek joango dira bozkatzera eta horiek ari dira jasaten zuzenean krisiaren ondorioak. Osasunaren alorrean, aurreko hiru puntuak aintzat hartuko banitu, osasun sistema justu, doako eta kalitatezkoari eutsiko genioke; nire ustez, beste alor batzuek askoz garrantzi txikiagoa daukate, eta bertan egin daitezke murrizketak".

**2.** "Guztiei moduan, murrizketak igartzen dira, orokorrean, eguneroko gastu guztietan (gasolina, elikagaiak, elektrizitatea...); asko garestitu dira. Lan alorrari dagokionez, langile aldetik oso estu gaude; edozein egoera estrak tentsioa sortzen du, eta horrek eragina dauka lan giroan eta eskaintzen ditugun zerbitzuetan".

**3.** "Egia esan, promes asko egiten dituzte, eta lehendakari irteten denak frogatu beharko digu hori, ekintzen bidez".

**IKER ELEXPURU**
IRAKASLEA

## "Alderdi gehienen agendan, hezkuntza ez da agertzen, ez dute neurri zehatzik"

**1.** "Euskal Eskola Nazionalaren aldeko konpromisoa har dezala, eta Espainiako Gobernuaren ezarpenen aurrean intsumiso izan dadila. Beste alde batetik, azken urte hauetan egon diren






Riviere. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL



Izaskun Arriaran. | PERU ARREGI



Iker Elexpuru. | L.K.



Marta Barrachina. | L.K.



Asier Hormaetxe. | L.K.

murrizketen aurretik zeuden baldintzetara bueltatzeko pausoak eman ditzala; esaterako, ikastetxe guztietan aurrekontu duinak, eta langileok izan ditugun atzera-pausoei buelta emateko maila-kako proiektua egin dezala".

**2.** "Ordezkapenak beranduago egiten dira, azken lau urteotan soldatak izoztuta izan ditugu, Gabonetako ordainketa kendu digute, gela bakoitzeko gehieneko ikasle kopurua handitu egin dute eta irakasle gutxiagoren beharra dago, behar bereziko baldintzak zorroztu egin dituzte... oro har, ERE estalia izan dugu".

**3.** "Alderdi gehienen agendan, hezkuntza ez da agertzen. Esaten dute hezkuntza eta osasuna direla euren programaren zutabeak, zerbitzu publiko gisa, baina zer egin nahi duen esan duen bakarra EH Bildu da".

**MARTA BARRACHINA**
GURASOA

## "Lehendakariak kontuan har gaitzala familiok; ugariak eta gainerakoak ere"

**1.** "Lehendakariak kontuan har gaitzala familia ugariok eta, oro har, familia guztiok. Guk, adibidez, bost seme-alaba izan ditugu, sinistunak garelako, eta guretako bakoitza oparia da; ez ditugu etorkizunean pentsatzen ekarri. Baina jendartearendako, onura dira seme-alabak, etorkizunean langileak izan daitezen hezitzen gabiltzalako gu. Beraz, gobernuei eskatuko nieke pentsio sistema alda dezatela, eta norberak duen seme-alaba kopuruaren arabera kotizatzea".

**2.** "Senarraren lantegia ez dabil ondo, eta gutxiago kobratzen du orain; soldata txikitu diote. Hala ere, bagabiltza aurrera egiten, urte askoan aurrezten ibili garelako eta hainbat gauzari uko egin diegulako. Dirua gure familiaren etorkizunean, gure seme-alabongan inbertitzeko aurreztu dugu".

**3.** "Propaganda gutxi ailegatu zait etxera baina, ailegatu zaidanen artean, nabarmenduko nuke EH Bilduk ez dituela familiak aipatu ere egiten, ez du familiendako laguntzen gainean hitzik ere egiten, ez familia ugariendako ez gainerakoendako".

**ASIER HORMAETXE**
ARKITEKTOA, AUTONOMOA

## "Politikariek borrokan galtzen dute denbora, eta jendeak konfiantza behar du"

**1.** "Lehendakariari eta alderdi politikoei eskatuko nieke interes partidistak alde batera uztea eta denok batera egoerari irtenbide bat bilatzeko lanean jardutea. Alderdi politikoen arteko borroketan galtzen dute denbora eta esfortzu larregi. Jendeak konfiantza eta ilusioa behar ditu. Jendea ez doa pozik kaletik, ez du irrifarrerik".

**2.** "Krisiak gogor ukitu gaitu, eragin zuzena izan du gurean, autonomo gisa. Bankuek ez dute mailegurik ematen jendeak gauzak egiteko, eta horrela galdu egin ditugu nahiko lan. Murrizketek ere eragin zuzena izan dute, ze obra publikoa ere gelditu egin baita. Horrela bada, nola erakunde pribatuek eta administrazioak ez duten finantziatziorik obrak egiteko, dena geldirik dago: dirua geldirik dago, itxaropena geldirik dago, kontsumoa geldirik dago..."

**3.** "Ez dut gaur egungo politikan sinisten. Normalean ikusten da politikariek agintzen dutena gero ez dutela betetzen; orduan, nola sinistu orain esaten dutena? Dena oso generikoa da, eta neurri zehatzak ez dituzte adierazten".



# Sistema berriak onura ekonomikoak ekarriko ditu bailarara

- Atez atekoak lanpostuak sortuko dituela azpimarratu dute
- Hondakinen tratamenduak gastu gutxiago eragingo dituela ere bai
- Herritarrek izan duten parte-hartzea ere nabarmendu dute


Gaur egun erabiltzen ditugun edukiontzi mota

**GOIENA** | DEBAGOIENA
Hondakinak batzeko Debagoienean datorren urtean gauzatu behar den sistema aldaketa dela -eta, Debagoieneko Mankomunitateak hainbat datu eta argibide azaleratu gura ditu, atez atekoaren egokitasuna eta onurak azpimarratze aldera, salatuz azkenaldian sistema berri horren kontrako mezuak barreiatzen ibili direla. Mankomunitateko Ingurumen ordezkariek eman dituzte azalpen guztiak: "Hilabeteotan hainbat argudio eman izan dira gure hautua okerra zela arrazoitu nahian. Herritarrak beharrezko aldaketa honen aurka jartzeko esandakoak izan dira gehienak: beldurra, kaosa eta zabortegi baten erdian biziko garen eskenatokiak zabaltzen aritu dira herrian. Hori mamuak zabaltzeko modu bat besterik ez da eta benetako gaiari heldu nahi ez izatea islatzen du.

Beti esan izan dugu arrazoi horietako batzuek badutela beren garrantzia (inpaktu bisuala, erosotasuna), baina ezin dira alderatu, inolaz ere, aldaketa hau aurrera eramatea beharrezko egiten duten arrazoiekin (bilketa selektibo maila, lehengaiei merezi duten balioa emanez; ondoren aztertuko ditugun diru -fluxuak eta aktibazio ekonomikoa; herritarren sentsibilizazioa eta parte-hartzea).

Eman ziren beste arrazoi batzuek ere pisua izan zezaketen. Orain artean, ordea, ezin izan ditugu aztertu eta baloratu; horien artean zegoen, adibidez, atez atekoa bilketa sistema askoz garestiagoa dela zioena. Horren beldurra zabalduz kanpaina mediatikoa ondo aprobetxatu nahi izan dute zenbaitzuek. Zorionez, beldur horiek uxatzeko modua badago: egia.

Egia, noski, datuetan oinarritzen da, eta datuak neutroak eta alderdikeriatan ez dabiltzan elementuak diren heinean, fidagarriak dira", adierazi dute Mankomunitateko Ingurumen ordezkariek.

**Zerbitzu berriak**
Datu horien artean, ekonomikoak azpimarratu dituzte.

Labur esanda, berretsi dute atez atekoa ezartzea 545.000 euro garestiagoa izango dela, baina, era berean, arrazoitu dute garestitze horren oinarrian zerbitzu berrien ezarpena dagoela: "Gaur egun, hirigunean biltzen da: hondakin nahasia (zaborra=edukiontzi berdea) eta selektiboa (beira, ontzi arinak eta papera eta kartoia). Landagunean biltzen da: zaborra eta beira. Eta industriaguneetan biltzen da: zaborra eta beira. Etorkizunean, berriz, sistema berriarekin, hiru guneetan zabor dena modu selektiboan batuko da: organikoa, ontzi arinak, papera eta kartoia, errefusa eta beira. Orain arte selektiborik ez da jaso ez landagunean, ez industriaguneetan; hondakin nahasiak soilik bildu izan dira. Etorkizunean zerbitzu horiek ezarriko dira, atez atekoa martxan jartzen denean.

Oso garrantzitsuak diren hiru zerbitzu berri jarriko dira martxan: alde batetik, beste frakzio bat jasoko da: organikoa eta, bestetik, landaguneetan eta industriguneetan bilketa selektiboa egingo da. Ulergarria da, beraz, garestixeagoa irtetea (551.000 euro urtean Debagoien osoan). Zerbitzu berri hauek gaur egungo sistemaren bidez jarriko balira martxan, ikusi egin behar zein izango litzatekeen guztiaren kostea", esan dute.

**Onura ekonomikoak**
Era berean, euren esanetan, datu ekonomikoak ez dira hor bukatzen. Izan ere, atez ateko sistema garestiagoa bada ere, onura ekonomikoak ekarriko dizkio Debagoienari. Hiru zentzutan: lanpostuak sortuko dituelako, zaborren tratamenduarekin lotuta, gure ibarrari dagokion gastua txikitu egingo delako eta berezko diru-sarrerak ere ekarriko dituelako. (Datu horiek guztiak 5. orrialdeko taulan daude adierazita).

**FITXA**

**ATEZ ATEKOA**
**Bilketa selektiboa:** %85.
**Errefusa (inerteak):** %15.
**Tratamendua:** 187 milioi euro.

**5 EDUKIONTZI + ERRAUSKAILUA**
**Bilketa selektiboa:** %30.
**Errausketa:** %70.
**Errefusa (toxikoak):** guztiaren %20.
**Tratamendua:** 400 milioi euro.

**Lanpostuen sorrera**
Lanpostu berriei dagokienez, hondakinen bilketak berak ekarriko ditu: "Bi hitzetan esanda, sistema berriaren bidez bilketa eginkizun horiek egiteko behar dugun pertsonal kopurua handiagoa da. Horrek, noski, eragin garrantzitsua du fluxu ekonomikoaren ereduan. Hau da, langileak, ia denak, eskualdekoak direnez, pertsonal gastu horiek ibilbide motza dute, eskualdean bertan geratzen den dirua delako. Ez da gauza bera gertatzen gaur egungo sisteman, tratamenduak ordaintzera joaten baita kostuaren zati handiena, kanpora.

Bestalde, birziklapena ahalbidetzen duten politikak bultzatzeak eta gauzatzeak sektore horren inguruan sor daitezken enpresa jarduerak suspertzeko balioko du eta, iniziatiba horiei esker, etorkizun benetan oparoa sortuko zaigula uste dugu; are gehiago, petrolioaren merkatuaren garestitzearekin lotuko bagenu gaia. Eta lehen adierazitakoa berretsiz, eskulanean oinarritzen den bilketa sistema denez, pertsonal gehiago behar du. Horrek lanpostuen sorrera dakar, gaur egun, nahitaez berri ona. Hau beste onura bat dugu".

**"Urtean 3.140.000 euro geratuko dira ibarrean"**

**"Errauskailuak gipuzkoarrentzat 25 urteko lotura dakar"**

**"Atez atekoaren bilketa selektiboa %85 da"**

**Tratamendu gastu gutxiago**
Hondakinen bilketaren ostean zaborrei eman beharreko tratamenduari dagokionez, berriz, gaur egungo sistemaren eta etorkizuneko sistemaren artean milioi euro pasako aldea dagoela azpimarratu dute Mankomunitateko ordezkariek, betiere, Debagoienaren aldeko desberdintasun ekonomikoa.

Datuekin babestu dute baieztapen hori: "Orain arteko sisteman, bildutako zaborra tratatzeko 2.315.000 euro urtean ordaintzen diogu Gipuzkoako Hondakinen Konsortzioari (zabortegien mantenu gastu eta errekuperaziorako kontzeptu gisa eta, etorkizun hipotetiko triste batean, errauskailua egiteko gastatuko liratekeen milioiak ordaintzeko, hau da , bankuentzat). Atez atekoaren kasuan, zaborraren ordez, hondakinak biltzen direnez, horien tratamendua asko merkatzen da: 1.161.000 euro urtean, eta horrek diru kopuru hori eskualdetik irtengo ez dela esan nahi du, kontsumoa eta aktibazio ekonomikoa eskualdean suspertuz".

**Berezko diru-sarrerak**
Eta azkenik, atez atekoak berezko onura ekonomikoak ekarriko dituela ere adierazi dute Mankomunitatetik, zehazki 420.000 eurokoak: "Adibidez, Ecoembes ontzi arinen birziklapena kudeatzen duen erakundetik datozen diru-sarrerak: 420.000 euro inguru gehiago jasoko dira sistema berriaz. Datu hau industrietan jaso daitekeen kartoiaren salmenten sarrerak kontuan izan gabe kalkulatu da".

**Hiru milioi euro alde**
Hori horrela, eta "diru-fluxu ekonomikoaren balantzea" aintzat hartuta, Mankomunitateak nabarmendu du atez atekoari esker "urtean 3.140.000 euro gehiago geratuko" direla Debagoienean.

**Errauskailua = 400 milioi euro**
Ildo berean segituz, errauskailuaren finantzazioaren kontua ere mahai gainean jarri gura izan dute. Euren esanetan, "azpiegitura erraldoi hori gauzatzeko beharrezkoa zen finantzazioa lotuta zegoen arren (400 milioi euro inguru), inork gutxik esaten du horrek 25 urterako lotuko gintuela gipuzkoarrok, zaborra sortzera kondenatuz eta birziklapenaren errealitatea atzeratzea eraginez, edota, kanpotik gure herrira, azpiegitura ordaindu ahal izateko, zaborra inportatzera behartuz (ez da zientzia fikzioa,



...guztiak, Arrasateko Otalora Lizentziaduna kalean. | U.M.




Fluxu ekonomikoa eskualdearekiko gaur egun:
Eskualdetik kanpora – barrura = 85.000 euro/urtean.




Fluxu ekonomikoa eskualdearekiko etorkizunean:
Eskualdetik kanpora – barrura = 3.225.000 euro/urtean.

**"Arazoari irtenbidea aurkitzea izan da asmoa "**

**"Irtenbidea posible den froga Antzuolan dago"**

**"Sortzen dugun hondakinez kontziente izan behar dugu"**

gaur egun, Mallorcan gertatzen ari da).

Errauskailuaren gaiak gehiagorako ere ematen du: izan ere, gaur egun mankomunitateok gure hondakinen eta zaborraren tratamenduen truke Gipuzkoako Hondakinen Kontsortziora ordaintzen dugunak, nola ez, gaur indarrean dagoen kontratuaren konpromisoak betetzeko bestekoa izan behar du. Eta zein kontratu dago gaur egun oraindik indarrean?

Batetik, errauskailuaren azpiegitura egitearena (juridikoki amaraun sarea baino zailagoa saihesteko) eta, bestetik, errauskailu horren mantenu kontratua da: 5 urteko kontratupean, 55 milioi euro urteko izango da. Arazoaren dimentsioa ulertze aldera ematen ditugun datuak dira hauek. Hain inbertsio eta mantenu kostu altuak dituzten azpiegiturek herritarrongan eragin handia dute. Inbertsioa, kontratu hauek apurtuz gero, askoz txikiagoa izango litzateke eta herritarrok ordaindu beharrekoa tasetan murriztu egingo litzateke. Kontratu horiek bertan behera gera daitezen ahalegina, denon artean, egiteko garaiz gaude. Derrigorrezkoa dugu, beraz, esku artean zer den ezagutuaz, kontzientziak piztu eta aldarrikapen hori gauzatzeko. Horixe erakusten digu errealitateak: hondakinak selektiboki biltzen ez diren eszenatoki baterako egindako errauskailuaren dimentsionamenduak, errealitate hori gero aldaezin bilakatzen duela, oso garestia den tratamendu bat derrigorrez ordaintzera behartuz".

### Birziklapenerako onurak

Bestalde, eta atez atekoaren egokitasun ekonomikoa azpimarratzeaz batera, sistema horrek birziklapenari ekarriko dizkion onurak ere gogora ekarri gura izan dituzte Mankomunitatetik. Kasu horretan ere, datuak (4. orrialdeko taulan) erabili dituzte emandako argudioak babesteko: "Atez atekoaren bilketa selektiboa %85 da; errefusa, berriz, %15. Eta hondakinen tratamenduaren kostua 187 milioi euro.

Bosgarren edukiontzia eta horrek dakarren errauskailu beharrarekin, berriz, bilketa selektiboa %30 da; errausketara bideratuko da %70; errefusa (hondakin toxikoa) guztiaren %20 da (erraustuko denaren %30) eta hondakinen tratamenduaren kostua 400 milioi euro da".

### Arazoa eta irtenbidea

Bukatzeko, datuetatik haratago, oro har, " jendartea bera hondakinek sortzen duten arazoaz jabearaztea" izan dutela helburu adierazi dute Mankomunitateko ordezkari politikoek, eta horretarako hainbat ekintza burutu dituztela: "Esaterako, hondakinen kontseiluak sortzea, batzarrak izatea, eskuorriak etxeetan banatzea eta auzoz auzo hitzaldiak ematea. Egia da, hala ere, gizarte honetako parte garen guztiguztiongana ez dela, behar bada, mezua heldu. Ahalegina egin genuen eta berriro ere egiteko prest gaude, datozen urteotan gure eskualdean garatuko den aldaketaren oinarrian zein arrazoi dauden azaltzeko.

Guk arazoaren atzean zer dagoen azaldu nahi dugu, jende guztiak jakin dezan arazoa zerk sortzen duen (hondakin nahasiek, hau da, zaborrak). Arduradun politikook ez gara horretara soilik mugatu eta, soluzio gisa, eskualdeko biztanleentzat interesgarriena izan daitekeen kudeaketa sistema aurkezten dugu: atez ateko bilketa selektiboa, ondoren beharrezko diren tratamenduekin. Irtenbide hori posible den frogak nahikoa hurbil ditugu: Antzuolara joan besterik ez dago".

### Herritarren parte-hartzearekin

Eta ildo beretik azpimarratu gura izan dute herritarren parte hartze praktikoa lortzeko ahalegin handia egin dutela: "Gaur arteko zabor-bilketen diseinuetan ez da izan, inoiz, herriaren parte-hartzerik. Oraingoan ahalegina gauzatzeko itxaropena badago, merkatari eta industriei egiten ari zaizkien galdeketen bidez, euren beharrak zeintzuk diren jakinaz, neurrirako bilketa zerbitzua antolatzeko pausuak emanez. Inposaketa izatetik urrun.

Jakitun izan behar dugu, bestalde, hondakinen gaia denon ardura dela. Herritarrok, gure neurrian. Merkatariek eta industriek ere, dagokien neurrian, jarduera ekonomikoa direla eta sortzen duten hondakin kopuru eta mota handia kontuan hartuta. Denok izan behar dugu kontziente sortzen dugun hondakinaz. Sortzaile bakoitzaren ardura ere bada, ez da administrazioaren ardura soilik".

## BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOA

Hiri hondakinen atez ateko bilketa sistemaren bideragarritasun ekonomikoa aztertzeko, "hondakinen kudeaketa integralak konparatiboki nolako kostuak sortzen dituen" erakutsi gura dute Mankomunitateko ordezkariek taula bitartez.

| | GAUR EGUN | ETORKIZUNEAN |
|---|---|---|
| **Bilketa gastuak** | –3.250.000 | –4.400.000 |
| **Tratamentu gastuak** | –2.360.000 | –1.230.000 |
| **Sarrerak (Ecoembes)** | 730.000 | 1.155.000 |
| **Guztira, balantzea** | –4.880.000 | –5.425.000 |
| **Aldea bien artean** | **545.000 euro garestiago** | |

ITURRIA: DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

## Oñatiko bulego bat, zabaltzear

Astelehenean zabalduko dute atez atekoaren gaineko informazioa herritarrei emateko Oñatiko bulegoetako bat: Kale Zaharrean dagoena. Ordutegia izango da: astelehenetik eguenera 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara arte; eta egubakoitzetan 10:00etatik 14:00etara.



Trojaola aurkezpenean. | GOIENA

## Atez ateko plataformen koordinakundea aurkeztu dute

**TXOMIN MADINA / A.T.** | DONOSTIA

Donostian egindako ekitaldian aurkeztu zuten eguaztenean atez ateko Gipuzkoako plataformen koordinakundea. Bertan batu ziren plataformetako ordezkariek esan zuten alderdi politikoren batek herri kontsulta egiteko eskaria eroaten badu Batzar Nagusietara, eurek eskaria babestuko dutela.

**70.000 sinadura**

Koordinakundetik historikotzat jo dute atez atekoaren kontra 70.000 sinadura batu izana, eta, era berean, Bilduko alkateei kritika egin zieten, euren esanetan sinadurak mespretxatzearren.

Gaineratu zuten atez atekoa sistema garestia eta zikina dela eta pertsonen eta familien intimitatearen kontra doala. Ezker abertzaleari gezurretan aritzea egotzi zioten, azaldu zutenez, atez atekoa batze sistema bakarrik delako eta ez duelako hondakinen arazoa konpontzen. Horren harira, esan zuten birziklatu ezin dena tratatzeko azpiegiturak falta direla.

Euren eskuetan dagoen guztia egingo dutela ere esan zuten, euren eskaria aintzat hartua izan dadin. Gainera, zehaztu zuten plataformek herri kontsulta bultzatzeko eskumenik izan ez arren, bide horretan Batzar Nagusietan egon daitezken ekimenak babestuko dituztela.

U-21

# 51.747 debagoiendar daude deituta domekan botoa ematera

### Horietatik 1.058 bailaran bizi diren 18 urtetik gorako atzerritarrak dira

**GOIATZ ARANA** | ARRASATE

Domekan, urriak 21, izango dira Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, eta ia dena gertu dago herritarrek euren hautua egin dezaten. Alderdiek gauerdira arteko epea dute euren mezuak zabaldu eta botoa eskatzeko, eta biharkoa hausnarketarako eguna izango da. Behin hori pasata, domekan botoa eman ahal izango dute herritarrek, nork bere tokian, 09:00etatik 20:00etara.

Datozen lau urteotan EAEko lehendakaria nor izango den dago jokoan, baina domekan argitzeke geratuko da hori, ziurrenik, hauteskunde ostean alderdiek elkarren artean izango dituzten hartu-emanak erabakigarriak izango dira -eta, batek gehiengo absoluturik lortuko ez duelako.

**3.500 lagun lanean EAEn**

Egun horretan, 3.500 lagun ariko dira lanean EAEn, emaitzak jaso eta jakinarazteko. Emaitzak Hauteskunde Administrazioko Zuzendaritzaren datuak prozesatzeko zentrora helaraziko dituzte, eta, boto kopuru esanguratsua zenbatu bezain azkar, datuak jendaurrean aurkeztuko dituzte; une horretatik aurrera, informazioa etengabe eguneratuko da, behin betikotzat jo daitekeen ehunekora iritsi arte.

22 milioi hauteskunde-txartel inprimatu dituzte eta hauteskunde-mahaietako kideentzako jarraibideak jasotzen dituzten 34.000 eskuliburu. Bozketa-prozesuaren segurtasuna bermatzeko, azkenik, 5.000 ertzain baino gehiagok jardungo dute lanean.

**ERROLDA**

| HERRIA | BERTAKOA | ATZERRIA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| Aramaio | 1.199 | 47 | **1.246** |
| Antzuola | 1.692 | 45 | **1.737** |
| Aretxabaleta | 5.390 | 64 | **5.454** |
| Arrasate | 17.705 | 246 | **17.951** |
| Bergara | 11.614 | 227 | **11.841** |
| Elgeta | 874 | 48 | **922** |
| Eskoriatza | 3.169 | 32 | **3.201** |
| Leintz Gatzaga | 200 | 12 | **212** |
| Oñati | 8.846 | 337 | **9.183** |

ITURRIA: ESTATISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALA

# Eredu sozio-ekonomikoaren aldaketa lehenetsiko duela azpimarratu du EH Bilduk

### Ezkerreko aldaketa, burujabetza, bake eta normalizazio prozesua ditu ardatz

**MAIDER ARREGI** | ARRASATE

EH Bilduko Pello Urizarrek atzo Arrasaten egindako ekitaldian "eraikitzeko botoa" eskatu zuen. Krisia oinarri, gizartea hausteko arriskuan dagoela esan zuen, eta bizi osoa lanean eman dutenak pobretzen direla gaineratu. "Sistema aldatu behar da horrelako egoerarik gehiago izan ez dadin; guk pribilegioetan egingo ditugu murrizketak". Lehentasunak finkatzean datza arazoa; guk pertsonak lehenetsiko ditugu, euskal produkzio ehuna lehenetsiko dugu, gizartean sustraitua dagoena gizartearen onura bilatzen duena". Eredu sozio-ekonomikoaren aldaketa lehenetsiko dutela gaineratu du Urizarrek.



EH Bilduk Donostian egindako agerraldia. | EHBILDU

Atzo ere, Eskoriatzan Maider Otamendi hautagaia izan zen.

**Gaur, Oñatin eta Antzuolan**

"Aldaketaren aldeko botoa" eskatuz, gaur 19:00etan ekitaldi nagusia egingo du EH Bilduk Oñatiko plazan. Bertan izango dira Xabier Zubizarreta *Txiron* eta Jonatan Martinez, Bizkaiko batzarkidea. Ikuskizuna eta sorpresa egongo dela azaldu dute.

Bestalde, Antzuolan gaur iluntzean eskuorriak banatuko dituzte eta haima batean EH Bilduko kanpainaren iragarkiak ikusi ahal izango dira.

## Egibar: "Herri gisa dugun erronkari aurre egiteko funtsezkoa da ezagutzaren ekarpena"

**MONIKA BELASTEGI** | ARRASATE

Joseba Egibar Gipuzkoako jeltzaleen zerrendaburua Oñatin izan zen martitzenean. Unibertsitatera egindako bisitan esan zuen herri gisa parean izango ditugun desafioei aurre egiteko, "funtsezkoa" izango dela ezagutzaren zeregina: "Unibertsitateak hausnarketarako iturri izan behar du, eta, neurri handi batean, gure herriaren eraikuntza sozial eta nazionalerako sukalde", esan zuen. Eskoriatzan izan zen martitzenean, eta, besteak beste, "herri hau aurrera ateratzeko bermea eskaintzen duen alderdi bakarra EAJ" dela esan zuen. Urkullu lehendakarigaia Bergaran ekitaldia egitekoa ere bazen atzo, eguena.



Egibarrek alderdikide oñatiarren babesa izan zuen martitzenean. | GOIENA

UNED BERGARA

**IKASTAROAK**

- **MINTZAPRAKTIKA INGELESEZ**
  Erdi mailako ezagupena dutenentzako.
  **Hasiera:** Azaroaren 7an.
  **Klase eguna:** asteazkena
  **Ordutegia:** 18:15 - 20:45
  **Matrikula epea:** Urriaren 26ra arte.

**Informazio gehiagorako:**
Tel.: 943 76 90 33
*info@bergara.uned.es*

## Alderdi Sozialista Arrasatera itzuliko da gaur, kanpainako azken egunean, arrosak banatzera

**GOIATZ ARANA** | ARRASATE

Azoka inguruan izango dira gaur PSE-EEko kideak arrosak banatzen (11:00). Bertan elkartuko dira Paco Gartzia, Aritz Arrieta eta Raquel Diaz, zinegotzi sozialista arrasatearrak; Blanca Roncal, Gipuzkoako hautagai zerrendan hirugarrena eta oraintxe arte Eusko Legebiltzarreko lehen lehendakariordea izan dena; eta Miren Gallastegi, zerrendako laugarrena.

**EAJ "atez atekoa erabiltzen"**

Bestalde, Paco Gartzia kezkatuta azaldu da atez atekoaren erabilera alderdikoia egiten dabilelako EAJ: "Herritarrei iruzur egin nahian dabiltza; kezka handia eragiten duen kontu horrekin botoak eskuratu gura dituzte".

## Equo-Berdeak, kooperatiba energetikoen alde

Equoko jarraitzaile Alex Lopezek eta Eduardo Urturik kooperatiba energetikoei buruz jardun zuten martitzenean, Bergarako kultura etxean. Lopezek garbi utzi zuen "energia ekoiztu eta banatzeaz arduratzen diren monopolio handien botere eta eraginari aurre egiteko tresna herritarren eskuetan" dagoela.

## ZABALIK



**ENEIDA ITURBE**
http://goiena.net/iritzia/

# Historia garaikidea

Duela gutxi, Normandiako lehorreratzea gertatu zen hondartzak bisitatzeko aukera izan nuen: kanposantuak, nazien bunkerrak, museoak... denetarik dago inguru hartan. Horrenbeste pertsonak bizia galdu zuten lekuan turismo egitea morboso samarra ez ote zen duda egin nuen, eta egun batzuk geroago, 97 urteko emakume baten ahotik jaso nuen erantzuna: Neus Català 1944 eta 1945 bitartean Alemaniako Ravensbrück izeneko kontzentrazio eremuan preso egon zen. Bost urtean behin bertara itzultzen da. Hala azaldu zuen pasa den astean Kataluniako telebista publikoko *El Convidat* saioan (ETBko Xabier Euzkitzeren *Bisitaria* saioaren bertsio katalana). Kazetariak hara ez bueltatzea hobe ez ote duen galdetu zion eta berak ezetz erantzun zuen, sufritu egiten duela, baina joan beharra dagoela, "han hildakoei zor diegulako". Sekulako duintasun eta bizitza lezioa izan zen ikus-entzule guztiendako.

> **"Neus Catalàk ez zuen inoiz nazi baten aurrean negarrik egin"**

Neusek ez du bere burua salbuespentzat jotzen, lekuko bat dela dio. Ravensbrückeko bere lehen oroitzapena tximinia da. Azken egunera arte martxan egon zen labe hark 92.000 emakumeren gorpuak erre zituen. Bizirik irtetea lortu zuten askok ezin izan zuten umerik eduki, antzutu egin zituzten eta. Neusek, baina, antzutzeko injekzioak eman zizkioten arren, bi seme-alaba dauzka. Ez du marradun arroparik janzten eta sarri aurreko egunean gertatutakoak gogoratzea kosta egiten bazaio ere, ez du inoiz ahaztu txikitan aitak agindutakoa: "Ez jaitsi begirada inoren aurrean". Hala, ez zuen inoiz nazi baten aurrean negarrik egin.

Espainiako Gobernua hezkuntzan prestatzen ari den erreformak, ikasleak "espainolizatzen" saiatzeaz gain, DBHn Zientzien arloa aukeratzen duten gaztetxoak historia garaikidea ikasi gabe lagako ditu. Ez dute, beraz, Normandiako lehorreratzearen edo nazien kontzentrazio esparruen berririk jasoko. Ea, behintzat, bertara bidaiatzeko aukerarik duten!

## USTEAK USTE

**IBAN ARANTZABAL** | iarantzabal@goiena.com

# Banastapera

Han eta hemen erabiltzen da esaera. Blogean laburtu nituen esangura eta aldaerak: zestopera, otzarapera, sarepera... Ez dakizula zer den? Banastapean oiloak jartzen ziren gaua zela pentsa zezaten, eta horrela, baretu zitezen. Baretuta arrautza bizkorrago egingo zutela pentsatuta. Hortik, umeei (batez ere) esatea banastapean lo egiteko. Urtebetetze eguna izan aurretik nerbioso egon ez daitezen, baretzeko eta hausnartu dezaten hurrengo eguneko egun "zoroaz". Etxean banastape eguna izan zen hilaren 14a. Tiak, seguru, urtero esango liokeela banastapera joateko txikiari. Ez dugu galduko esaera hori: joan den Abelinagatik eta etorri den Liligatik.

## MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA** | http://goiena.net/iritzia/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Karamelua

**Anjel Lertxundi Esnal**
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Gutxi ibiltzen naiz kalean, aitor dut, eta nekez jarrai dezaket azken ohituren *trentopika,* baina, kuriositatez galdetzen dut, oraingo hautagaiak ibiltzen al dira alderdiaren logoa daramaten lapitzak eta globoak eta giltzatakoak eta kondoiak eta karameluak eta te-poltsak eta pendriveak banatzen? Ohitura baztertu baldin badute, mundua galduan da, eszena gogoangarriak gertatzen baitziren hautagai batek zerbait oparitzen zizunean, ezkon berriek ezkon bazkaritako postretan oparitxo bat egiten dizutenean bezalako detailetxo bat zen hautagaiek egiten zizutena, hautagaiarekin lotuta gelditzen zinen lapitzaren edo kondoiaren bidez, beno, berdin da zerekin, baina lotuta gelditzen zinen. Etxerako bidean, ordea, lapitza edo karamelua patrikatik atera eta zakarrontzira botatzen zenuen, inork ez zintzala ikusi gozokia ahoratzen, nola hasiko zinen ahoa gozatzen lagun artean beti deitoratu izan duzun alderdiko karamelu batekin...

# Askatasuna: negoziatu beharreko eskubidea

**Luis Aranberri 'Amatiño'**
http://eibar.org/blogak/amatino/

David Cameron eta Alex Salmond lehen ministroek bart sinatu dute, Edinburgon, urte bi barru antolatu beharreko Eskoziaren independentziari buruzko erreferendum-ituna. Erreferenduma bai, ituna ere bai.

Ituna beharko da, bai, eta ez noiz, non eta nola zehazteko soil-soilik, baita –baiezkotan– ondoko eskuduntza-banaketa, Ipar Itsasoko gas zein petrolio-ustiapena edo estrategiazko beste hainbat erabaki elkarrekin hartzeko ere.

Bitartean, gure ingurumari honetan astindu beharreko mamuak bestelakoak dira, esaterako: kataluniarrak (edo euskaldunak) erretiro-pentsioak ordaintzeko gauza izango ote diren edo Barcelonak zein ligatan jokatu beharko lukeen.

Barcelona futbol-taldearen etorkizunak ez nau batere kezkatzen baina pentsioen alorrean uste dut ziria sartzen ari zaizkigula batzuok eta besteok.

Izan ere, nago, oinarrizko daturik funtsezkoena falta dela beti, pentsioei erantzuteko ahalmenez eztabaida suertatzen den bakoitzean. Inork aipatzen ez duen datu objektiboa, alegia: gizarte-segurantzaren diru-funts guztiak Madrilen daudela.

Kontua ez da oraingo kotizazioak aski al diren –ala ez– egungo beharrizanei erantzuteko, baizik eta nork kudeatuko ote lukeen azken zazpi hamarkadotako diru-pilaketa. Eta honek, zer gerta ere, ituna eskatzen du, negoziazioa.

Ez dakit nik baina, behar bada, independentzia "hor-konpon-marianton" eta "agur benhur" esatea baino gauza konplexuagoa da. Seguru gero independentzia oinarrizko eskubidea dela, baina negoziatu beharreko ondorioak dituen eskubidea. Negoziatzen ere jakin egin behar da. Eta mundu guztiak ez daki negoziatzen.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## I–26: greba orokorra; eta gero zer?

**Aitor Aranzabal, Ander Gallego, Ana Sebal eta Jose Ramon Kortabarria**
(Deba aldeko LAB)
Debagoiena

Irailaren 26ko grebaren helburuetako bat Madrilen onartutako erreformak eta murrizketak Euskal Herrian ez aplikatzearen eskaera egitea izan zen. Bertan, herri honetako gehiengo sindikal eta eragile sozialek bultzatuta, eta zenbait sektore politiko eta hainbat herritarrek babestutako greba eta mobilizazioetan, ozen aldarrikatu zen beste eredu sozial eta ekonomiko baten beharrean gaudela, eta ezin dela onartu diru publikoez 100.000 mila euro bankuei oparitu, eta herritarrentzat, murrizketak, zerga igoerak, pribatizazioak edota soldata jaitsierak jasatea.

LABek egiten dituen aldarrikapenak oso argiak dira: bankari diru gehiago ez ematea, euskal instituzioek murrizketak ez aplikatzea, politika publikoetan errotiko aldaketa, eta behingoz, euskal instituzioak gizartearen zerbitzura jartzea.

Aldarrikapen hauek inposatzen ari diren neurriak ekiditeko beharrezkoak dira. Neurri hauen inposaketa dekretuz eta oinarrizko lege bidez egiten ari da Espainiako Estatua eredu autonomikoa bukatutzat emateko. Aukera argia da, menpekotasunetik eta krisitik ez ateratzearen alde egin duen estatua edo irteera propioa egiteko; hau da, gure esparruan politikak egiteko erabakiak hartzearen hautuaren aldeko apustua.

Alternatiba egon badago, eta posible da, baldin eta ondorengo hiru erabaki hauek hartzen badira:

1-Gobernu espainolaren erabakiak ez aplikatzea.

2-Euskal Herriko instituzioetan aurrekontuetan ezarritako murrizketak bertan behera uztea.

3-Krisitik ateratzea ahalbideratuko diguten politikak egiteko plan instituzional integrala mahai gaineratzea.

Euskal Herriak hitza eta erabakia behar ditu, "derrigorrezkoa delako aplikatzen dut" esatetik, "ezin dut aplikatu Euskal Herriko gizarteak baztertu duelako" esatera pasatu behar dugulako. Hemen badago masa sozial nahikoa beste bide bat egiteko, krisiari benetako alternatiba bat eraikitzeko. Falta dena hau gauzatzeko prest egongo diren gobernuak dira, eta hau soilik gertatuko da baldintzatzeko gai izango den gehiengo soziala baldin badago. Guztion artean lortu dezakegu, ekin alternatibari!

# GUTUNAK

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## Kapitalismoa ez da alternatiba

**Piter Encinas**
(ESK-ko eta Gorripideako kidea)
Arrasate

Demagogoa? Sarri entzuten den berba dugu. Askotan, aurkaria deskalifikatu eta iraintzeko erabili ohi da. Nire kasuan, guztiz kontrakoa da eta honako hau da ematen diodan adiera: demagogoa diskurtso iraultzailea duena da; ni demagogoa naiz eta demagogoa izateari uzten diodanean, Confebask-eko kidea izango naiz.

Kapitalismoarentzako alternatibarik existitzen bada, eta izena gutxienekoa dela jakin arren, nik eko-sozialismoa deritzodana da. Gizakiarengan eta bereziki planetarenganako errespetuan oinarritzen delako, eta ez besterik gabe produzitu, edota erosi, erabili eta botatzean.

Gizakiaren gunea ez litzateke bere lanpostua izan behar. Lanpostuak bizi ahal izateko baliabidea izan beharko luke, eta ez ozta-ozta bizi ahal izatekoa. Planetako aberastasun eta baliabideak ondo banaturik egongo balira, ziurrenik orain ez ginateke honetaz ariko.

Zelako gurutzea daramagun komunistok porrot egin duten esperientziekin. Stalin boterera iritsi zenetik, eta honen politikaren ondorioz, asko gara hau komunismoa ez dela esaten dugun pertsona eta erakundeak. Ozenago eta sarriago esan behar al dugu? Bestalde, Euskadin ez al dago miseriarik? Euskadiko txakurrek katea beharrean lukainka daramate ala? Akaso hau paradisua al da?

Gauza asko dira kooperatibismoaren inguruan esan ditzakegunak, eta bereziki aipagarria iruditzen zait Arizmendiarrietak bere ametsa zertan bilakatu den ikusiko balu, berriro ere lur azpira sartzeko desiratzen egongo zela inolako zalantzarik gabe. Eta zer esanik ez, Eroskiko langileen egoeraren berri jakingo balu (adibide bat besterik ez da). Hau bai panazea!

Liberalek eta enpresariek "aberastasuna" dute beti hizpide. Hemen nire galdera: non dago aberastasun hori eta noren edo nortzuen esku dago? Katean lanean ari direnen esku? INEMen gaudenon esku? Hainbeste defendatzen duten kapitalismo hori ongizatearen sistemarekin bukatzen ari da eta milaka pertsona miseria gorrira eramaten ari dira.

Gizadiaren eta planetaren hobe beharrez, kapitalismoak iraungitze data du.

## EAJ–PNVren hauteskunde programaren irakurketa

**Juan Karlos Garitano**
Arrasate

Arrasateko EAJ-PNVko Uri Buru Batzarrak Iñigo Urkullu hautagaiaren ardatz nagusiak aztertu ditu: krisi ekonomikoa, bakea eta Euskal Herriaren burujabetzarako estatus berria.

Hiru ardatz hauek oso egokiak eta beharrezkoak dira Euskal Herriarentzat eta hirurak dira EAJren hauteskunde programaren ardatz nagusi. Lehentasuna krisi ekonomiko hau gainditzea bada ere, bakea eta elkarbizitza sendotzea izango da estatus edo egoera politiko berri baten ataria. Aipatutako hiru ardatzak bateragarriak dira eta hirurak behar-beharrezkoak Euskal Herriaren burujabetzaren bidean egoera politiko edo estatus berri hori lortzeko. Gure konpromisoa gure herriaren garapena da, inork ez baitigu ezer musu-truk emango, eta geuk egin beharko dugu aurrera gure indarrarekin. Guk urte askotako esperientzia dugu herriaren kudeaketan. 30 urtetik gora bizi izan dugu euskal herrigintza EAJk gidatuta. Orain dugun egoera politikoak krisi ekonomikoa jarri du lehentasun bezala eta politika publikoen kudeaketa hobea eskatzen du egoera honek, baina horrek ez du esan nahi politika publiko hauen eta egunerokotasunezko gaien inguruko erabakitzeko eskubidea baztertu behar denik.

Krisi ekonomikoa inkonpetenteentzat bakarrik da aitzakia hutsa.

Aberastasuna sortzea beharrezkoa da giza beharrei aurre egiteko. Ezinezkoa da, batzuek aldarrikatzen duten bezala, giza beharrei aurre egitea eta murrizketarik ez egotea aberastasunik sortu gabe.

Bakearen sendotzea. ETAren mehatxurik gabeko lehen hauteskundeak dira eta urte askoren ondoren, ezker abertzalea aurkeztuko da beste alderdiekin batera.

Bi arrazoi horiek direla-eta oso garrantzitsuak izango dira hauteskunde hauek eta beharrezkoa da etorkizuna oinarri sendoetan eraikitzea, iragana ahaztu gabe. Baina gauza bat argi utzi nahi genuke: Euskal Herriak bide politikoetarako trantsizioa gertakizunen egiatik egitea merezi du. Ez dugu deserosotasunez hartu behar egia eta memoriatik sortutako bakea Uria, Carrasco edo Kortaren erailketak gogoan hartu gabe, beste askoren artean.

Euskadirentzat estatus berria. Ia 33 urte daramatzagu Gernikako estatutua onartu zela eta oraindik erabat bete gabe dago. Bestalde, egoera sozio-politiko eta ekonomikoaren aldaketa garrantzitsua eman da Espainiako Estatuan eta Europan. Espainiako konstituzioan ez da Europaz hitz egiten. EAJren eta bere presidente Iñigo Urkulluren planteamendua 2015erako estatus politiko berri bat lortzea da. Hau da, alderdi desberdinen arteko adostasunez eta Eusko Legebiltzarrean onartuko den izaera politiko berri bat lortzea da. Ez dio inork beldurrik izan behar Euskadin zabalduko den epe berriari. EAJk marko berri honen negoziazioari ekin nahi dio adostasunetik, eta ez konfrontaziotik.

## Jubilatuak politikari bihurtu

**Josu Garitaonandia**
(Equo Bergara)
Bergara

Nik esperantza galduta daukat guk ditugun arazoak goi mailako politikari garrantzitsu batek konponduko dizkigunik; alderantziz, azkeneko urteetako bilakaera ikusiz, arazoek areagotzen jarraituko dutela aurreikusten dut.

Arazoen irtenbideak lan boluntarioan oinarrituta egongo direla sinesten dut, eta politikarien lana bolondresek egin beharko luketela uste dut, eta politikariek jasoko lituzketen soldatak eta diru publikotik gastatzen dituzten pribilegio ugarietan, diru hori guztia gizarte zerbitzuak hobetzeko erabili; boluntario hauen harrobi bat langabeen artean egon daiteke, lana topatzen duten bitartean boluntarioki kargu publikoak eramatea, beraien buruak gizartean ezagutarazteko bide bat izango litzateke; nik pertsonalki hobeto ikusten dut bat jubilatzen denean bolondres gisa kargu publiko bat eraman dezala bolondres gisa legealdi batean. Nik jubilatzen naizenean esandakoa egiteko asmoa daukat, ea larregi ez diguten igotzen jubilatzeko adina.

## Eroskin anpliaziorik ez

**Ander Lizarralde Lizarralde**
Oñati

Oñatiko supermerkatu berriaren harira *Goiena*-k Eroskiri modu kezkagarri batean aurpegia zuritzen lagundu dion arren, esan beharra dago Eroskik (eta supermerkatu ereduak) ezer ez duela "jasangarri"-tik.

Alferrik dira aurpegi zuriketak: $CO_2$ isurketarik gabeko eraikinak, merkataritza justua, produktu ekologikoak, gertuko nekazarien produktuen erosketa sinbolikoak… Supermerkatuen eredu suntsitzailearen errealitatea makillatzeko estrategiak dira.

Supermerkatu ereduaren kontrako puntuak:

1-Munduko potentzia ekonomiko handienen artean daude supermerkatuak. Izugarrizko aberastasuna eta boterea lortu dute elikaduraren kontura.

2-Jakien gaineko kontrola oso esku gutxitan geratu da (7 enpresak jakien %75 kontrolatzen dute Espainiako Estatuan). Horrela, jakien inguruko erabakitze ahalmen ia erabatekoa lortu dute, horrek dakartzan ondorio guztiekin.

3-Denda tradizionala desagerrarazi dute urte gutxiko epean…

4-Baserritar eta ekoizle txikiak ito eta desagerrarazi dituzte. Prezioen bidez, neurri handi batean. Honekin batera nekazaritza eta abeltzaintza industrial eta intentsibo jasangaitza (pestizidak, transgenikoak, antibiotikoz jositako behiak…) ezarri dute.

5-Kontrakoa sinestarazten diguten arren, jakien dibertsitatea guztiz murriztu dute.

6-Supermerkatu ereduak "jaki bidaiariak" sortu ditu. Jakietatik gehienek, gure mahaietara iritsi aurretik, 2.500-4.000 kilometro bidaiatzen dute.

7-Jaki pila bat botatzen dute zaborretara tamainagatik, ubeldurengatik…

Jakien merkatuan jaun eta jabe dira supermerkatuak. >

bilduma
**Sombra**





diseinua
Eloy Millán

**Sombra saileko** egongela-jangela. Akaberak euri lakatuan, ardesian eta sumendi matean. **Eclipse** erdiko mahaia. Akaberak sumendi lakatu matean. **Aukera** gehiago Kibuc.com en. Adierazitako neurri eta akaberetarako balio duten prezioak. BEZ-a barne.

**www.kibuc.com** ikus gaitzazu Facebook eta Twitter-en

**gureametsa@kibuc.com**
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel. 943 151 681

**KIBUC** Gure Ametsa

**KIBUC**
altzariak eta osagarriak
**Azkenean etxean**

Nola lortzen dute?

1-Publizitatean egundoko dirutzak gastatuz (jakien inguruko enpresak telefonia eta automobilaren sektorearen aurretik omen daude publizitate-gastuari dagokionez).

2-Estrategia desberdinak: bezeroen portaerez informazioa lortzeko deskontu txartelak erabiltzen omen dituzte; marka zurien amua; kapritxoak supermerkatu sarreran eta oinarrizko jakiak barrualdean; ordularirik ez jartzea; musika "atsegina"; eta abar).

Azoka bultzatzea ondo dago, baina ezer gutxirako balio du Eroski eta supermerkatu ereduaren kontra aurrez aurre egiten ez baldin bada. Supermerkatu onena itxita dagoena.

## Atez atekoa eta urriaren 21a

**Ibon Arrupe**
Arrasate

Igandeko hauteskundeetan asko dago jokoan.

EH Bilduk lortzen duen emaitzaren arabera egongo da atez ateko sistema aurrera eramatea edo ez. Herritarren eskuetan dago, bertan neurtuko da sistemaren gain herritarrok duten iritzia.

Arrasateko alkateak berak atez ateko sistemaren aurkako plataformei emandako erantzuna, irailaren 6an, argia izan zen: hauteskundeetan ikusiko da jendea ados edo kontra dagoen.

Ulertzen ez den modura, Udalaren azken plenoan, alkateari eskatu genion hauteskundeak zirela aprobetxatuz, beste "hautestontzi" bat ipini zedin atez ateko galdeketa egiteko aprobetxatuaz, eta horrela jakingo genuke benetan Arrasateko herritarrek zer nahi duten. Berak, ordea, ez zuen nahi izan halakorik egitea.

Ausartzen ez delako, edo konfiantza osoa duelako Bilduk hauteskundeak irabaziko dituela: bietako bat.

Ulergaitza; izan ere, kostu gabe, eguna aprobetxatuaz, herriaren nahia jakingo genuke. Beraz, 21ean asko dago jokoan.

Bilduk irabazten badu, zera sumatuko du: herritarrok beren erabakiak onartzen dituztela, eta erabaki hauen barruan kokatzen da, baita ere, atez ateko sistema. Gure eskuetan dago.

## Erlijioaz

**Jon Otero Uribarren**
Arrasate

Euskal Herriko katolikoak %66 dira, eta orain dela 80 urte, eskolarik ez zegoenean, ia guztiak ziren katolikoak.

Orain, jendeak ezagutzen du Darwinen teoria eta kontinenteen mugimenduarena, eta abar.

Baina Darwinen teoriaren harira, non dago tximinoaren eta gizakiaren arteko espeziea? Aurreratu zen espezieak hil zuen bestea? Tximinoa nondik dator, espeziez espezie itsasotik, non sortu zen bizia? Eta nork sortu zuen itsasoko bizitza lehen hura?

Darwinen teoria funtsik gabekoa da, zeren bizitza miraria baita, eta Jainkoak egin zuen mirari hura.

Adanen eta Evaren teoriak ere fede gehiegitxo behar du, nahiz eta onartu miraria, zeren Jainkoak mirariak egin baititzake.

Matusalen nola bizi izan zen hainbeste urte? Garaiko ignorantziaren legendak. Eta Jesusek egin omen zituen mirariak eta bere hitzak (ez dakit nola jasoak) elizetan predikatzen dira.

Baina berdin, Jesusen mirariak oso zailak dira sinesteko, baina posible dira; sinetsi edo ez fede kontua da ikusi ez zituenarentzat. Ni kristaua ez naiz, zeren mirariak Jainkoak soilik egin baititzake, edo beraren bidez... baina gora mirariak!

Ni panteista naiz; hots, munduko erlijio eta ateo, agnostiko guztiek Jainko bakarra dute, eta infinitua (unibertsoa) da, dena da Jainkoa.

Eta deabrua? Bai, deabrua existitzen da, eta beti borrokatu behar da haren kontra, ez baita inoiz hilko, baina bai luzaroan urrutiratu. Deabrua espiritu bat da eta gorpuztu daiteke batzuetan. Deabruari irabazteko, batzuetan norbera izan behar da deabru eta bortxakeria erabili, baina beste batzuek uste dute deabruari irabazteko maitasuna dela bidea.

Baina kontu izan! Esaten dugu deabrua beti bizi izango dela, zeren badiote sorginek egiten zutela hegan erratzarekin, hara! Miraria, miraria dio sorginak? Deabruak mirariak egin ditzake, Jainkoak bezala; zergatik? Deabrua Jainkoaren parte bat delako. Zergatik sortu zuen Jainkoak deabrua, horrenbesteko indarra izanda?

Egiptoarrak hil omen zituen juduen esklabo garaian. Jainkoak. Zergatik? Jainkoa guztia da, unibertsoa da eta bakarrik dago; hobeto esanda, dena de bera, inertea, eta bizia asmatzen du.

Erabakitzen du onena dela gizakia izatea, izadi zoragarriz inguratuta. Baina badaki Jainkoa dela eta ez du apreziatzen duena, eta gozaezina da. Orduan asmatzen du oinazea, engainatuz bere burua Jainkoa dela. Autoengainatuz kontzientzian, nahiz sakoneko subkontzientean jakin. Ume indartsu baten legez asmatzen du bizia, eta heriotza, baina batez ere bizia, orain asko, eta betiko. Ez jakiteko Jainkoa dela sortu zuen Darwinen teoria; ateoak ere, horrela, kontzienteki ahazten zuen Jainkoa zela. Bere kideak ere asmatu zituen, eta oinazea eta maitasuna sentitzen zuen.

Dena da bera, anitza, baina bera bakarra da. Oinaze bat gainditu ondoren, desahogoaren plazera eta maitasuna sentitzen ditu, zituen. Hori da Jainkoaren bizia, erdia oinaze eta erdia maitasun, unibertsoko jaunari dagokion bezala, eta bere bizia inoiz ez da bukatuko. Hil eta gero, Jainkoak beste zerbait asmatuko du, eta mirari eginez beste ziklo baten jarraituko du.

Nik aseta daukat mirarien zera hori. Behin, orain dela 14 urte, espetxean, zeru urdinera begiratu nuen, eta eguzkia desagertzen hasi zen. Hamabost segundoan desagertu zen. Minutu bat geroago agertu zen. Miraria. Niretzat Jainkoaren froga eta ikusten ez duenak fede kontua sinesten badidate. Baina ez aitak, ez sendiak, ez lagunek ez didate sinesten. Han espetxean ere ahotsak entzun nituen, euskaraz eta erdaraz, zazpi urtez. Zoritxarrez, orain ez ditut entzuten.

Baina mirariaren plazera solemnea, ahaztezina eta ederra da. Ondorioz, ziur nago heriotzaren ondorengo biziaz.

Zer da, ba, elektronika? Euskal entziklopedia batean irakurri dut txip batek milaka funtzio dituela. Ez ote miraria? Nola fabrikatzen da hura? Mikroskopioz? Nola da posible teknologia hori? Telebista da deabru gorpuztu bat, adibidez, eta irratia eta musika diskoa.

Beraz, deabrua debekatu behar da, modu onean edo txarrean. Horrela irtengo gara krisitik, herria iratzarriz eta espabilatuz.

## Aretxabaletako argazki artxiboa

**Aitor Antxia Leturia**
Aretxabaleta

*Sine animus molestandi.* Dagokionari.

Entzun dudanez eta antza denez egia da, Aretxabaletako alkateak argazki artxiboko zerbitzua bertan behera uztea erabaki du ez delako interesgarria.

Argazki artxiboaren lana herri baten, kasu honetan Aretxabaletaren, artxibo grafikoa sortzea eta mantentzea dela gogorarazi nahi nioke irakurleari.

Gogoan izan behar da bilketa lanaz eta argazkien inguruko dokumentazio lanaz gain, interesa duen edonori zuzendutako zerbitzua eskaintzen dela, Udaleko zenbaitentzat interesgarria ez izan arren.

Horren adierazgarri hor ditugu argazki taldeak arrakasta handiz antolatutako erakusketak eta lan ezberdinak.

Momentu honetan argazkiekin eta horien inguruko dokumentazioarekin ekarpen handia egiten ari den jendea erakarri du artxiboak.

36.000 argazki dira dagoeneko bilduta daudenak: urbanismoa, kultura, kirola, historia...

Nire ustez, oso interesgarria da burutzen ari den lana, etorkizunean sortu daitekeen lanaz gain.

## Adi

**Atarratz Etxebarria**
Arrasate

Igandean aukera bi, bozka ematea autonomiari edo beste pauso bat burujabetzari.

Hirugarrena ez ematea inori. Edo animalien defentsari. Helburuak ez hain argi. Izaten nahi badugu segi, eskoziarren bideari, adi.

Alternatibak badaudelako non-nahi, begira Islandiari edo Venezuelari.

Bide batez, zorionak, Chavezi, eta musu bat hango-hemengo gizon-emazteei.

Albolote, Bapaume, Jaen... eta han dauzkaten guztiei, adi egongo diren denei.

Irabaztera goaz, egin dezagun irri.


HAUTESKUNDE EGUNA ETA BIHARAMUNA

GOIENA PAPERA | HAUTESKUNDEEN GAINEKO INFORMAZIOA
Astelehenean, egunkari saltokietan edo egin zaitez harpidedun: 943 25 05 05.

GOIENA TELEBISTA | ZUZENEKOA | HAUTESKUNDEEN GAINEKO SAIO BEREZIA
Urriak 21, 19:45 | Goiatz Aranak eta Julen Iriondok aurkeztuta. Elena Laka eta Ainhoa Larrañagaren analisiekin.

ARRASATE IRRATIA | ZUZENEKOA | HAUTESKUNDEEN GAINEKO SAIO BEREZIA
Urriak 21, 19:45 | Goiatz Aranak eta Julen Iriondok aurkeztuta. Elena Laka eta Ainhoa Larrañagaren analisiekin.

GOIENA.NET | UNEOROKO JARRAIPENA
Urriak 21, Goizean goizetik informazioa heldu ahala sarean.

TWITTER SARE SOZIALEAN | UNEOROKO JARRAIPENA
Jarraitu @goiena erabiltzailea.

TELEBISTAKO SAIOAREN BABESLEA: HEMEN IGOGAILUAK



- Emaitzak herririk herri eta lurraldeka
- Legebiltzarra zelan osatuko den
- Legebiltzarkide debagoiendarrak
- Bozketa eguneko gorabeherak
- Analisiak
- Iritziak
- Legebiltzarkideen balorazioak
- Herritarren inpresioak

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2012

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

**Garikoitz Lopez de Munain eta Maider Egino** | Iratzarri fisioterapia–logopedia zentroa

# Fisioterapia eta logopedia, gero eta beharrezkoago

**Fisioterapia eta logopedia zerbitzuak gero eta erabiliagoak dira gurean, eskariak hala agintzen duelako; horren adibide da Arrasateko Uribarri etorbidean dagoen Iratzarri zentrora joaten den erabiltzaile kopurua**

## Garikoitz Lopez de Munain | Fisioterapeuta

Bost urte dela zabaldu zuen Garikoitz Lopez de Munain fisioterapeuta eta heziketa fisikoko irakasleak Iratzarri zentroa. Maider Egino logopedarekin batera fisioterapia eta logopedia zerbitzuak eskaintzen dituzte.

**Ze gaitz tratatzen duzue Iratzarri zentroan fisioterapia erabilita?**
Bereziki jendea dator lan errepikakorrek eragindako arazoekin: zerbikalak, sorbaldak, arazo lunbarrak… arazo puntualak dira, baina atzean beti egoten dira arazo handiagoak. Gure teknikekin area zehatz hori lantzen dugu, baina saiatzen gara pertsona orokorrean tratatzen. Ez ditugu sintomak bakarrik tratatzen, pentsatzen dugulako sintomak leku batean agertuta ere, lesioak ez duela zertan leku horretan egon. Adibidez, badaude teknika batzuk laguntzen dutenak azaleratzen blokeatuta egon daitezkeen emozioak.
**Ondorioa da gatozela arazo fisikoak bakarrik sortutakoan?**
Bai. Arazoaz ohartzen gara gorputzarekin dialogo kate baten bakarrik berba egiten dugulako: mina. Jendea etortzen da farmakologia tratamendua edo beste hainbat pauso egin ostean. Aurkitzen dugu minarekin nahiko nazkatuta dagoen pertsona, eta saiatzen gara perfilatzen bere egoeraren zergatia modu orokorrean, bere bizitzari buruz galdetuta, ze ardura duen… denak du-eta eragina.
**Teknika berezirik badarabilzue?**
Bai, karrera osteko gradu-ondokoetan ikasitakoak: estiramentu analitiko eta globalak, terapia miofasziala, kraneosakrala, eskuzko terapia bizkarrezurrean, masaje funtzionala, bendaje funtzionala, bendaje neuromuskularra, hemiplegikoendako zerbitzu berezitua, bereziki, nerbio sistemaren arazo zentralak izan dituztenekin…
**Prebentzioa ere lantzen duzue.**
Lesioak-eta izaten dituztenei ematen dizkiet ariketak eta aholkuak. Egia da, dena den, gehienetan antzuak izaten direla, gaur egungo gizarte ereduetan jendea ohituta dagoelako bere osasunaren ardura beste profesional baten gainean lagatzen. Ikasi behar duguna da arduratsuagoak izaten norbere osasunarekin.
**Eskari handia ei duzue…**
Bai, medizina tradizionalak ezin diolako erantzun eskari guztiari, eta horrek hutsunea eragiten du. Ondorioz, gero eta jende gehiago dator gure kontsultara.

## Maider Egino | Logopeda

Maider Egino logopedak lau urtez dihardu Iratzarrin, eta Gasteizen Hitzak Logopedia zentroa zabaldu berri du. Besteak beste, Logopedian diplomaduna da Salamancako Unibertsitate Pontifizean.

***Logopedia* berba denok entzun izan dugu noiz edo noiz, baina benetan badakigu zer den?**
Pertsona multzo batek ez daki lanbide honen zeregina zein den. Orokorrean, logopedia komunikazioan sartzen diren hiru arloen tratamendua lantzen duen diziplina da: mintzaira arazoak, lengoaia arazoak eta ahots arazoak.



**Garikoitz Lopez de Munain fisioterapeuta eta Maider Egino logopeda.**

Gaur egungo bizimoduan gero eta gehiago dira arazo horiek adierazten dituzten haurrak, estres edo ahots erabilera okerra dela eta, ahots arazoak izaten dituzte. Bestalde, badaude burmuineko lesioak dituzten haurrak, jaiotzetik edo lesio baten ondorioz. Bi arazo mota horiek osasunarekin lotuta daude.
Bestalde, teknologia berriak direla-eta, umeek erabiltzen dituzten makinatxoak direla eta, hezkuntza arazoak ere gero eta nabariagoak dira; irudiz osatutako gizarte batean murgiltzen ari garelako, irudimena, hizkuntza eta hitzen gizartea alde batera utzita.
Hezkuntzan ikus daitezkeen arazoak, berriz, honako hauek izan daitezke: letra bat ondo ez esatea, edo letra multzo baten ahoskera desegokia (mintzaira arazoak); esaldien estrukturak ongi ez eraikitzea, esaldi pobreak eraikitzea, hitz kopuru pobrea barneratuta izatea (lengoaia arazoak); eta azkenik, irakurketa idazketa arazoak, mota desberdinetakoak: irakurketa ulermen arazoak, idazketan akatsak (hitzak jan, letrak aldatu…)
**Justu horiek dira gehienok ezagutzen ditugun arazoak; horren ezagunak ez diren arazorik bada?**
Bai, degluzio atipikoa. Mihiaren mugimendu txarragatik edo tragatzerakoan parte hartzen duten ahoko beste estrukturen mugimendu okerrarengatik, inongo arazo aipagarririk egon gabe, gaizki irensten duten haurren arazoa da hori. Horrek guztiak, aho eta hortzen desplazamenduan eragiten du. Arazo horiek dentistek detektatzen dituzte, eta logopediara bideratu behar dira, estruktura guztien kokapena berrezartzeko.

**FISIOTERAPEUTA:**
**Garikoitz Lopez de Muniain**
• *Terapia kraneo-sakrala.*
• *Masaje terapeutiko funtzionala.*
• *Erlaxazio miofasziala.*
• *Bizkarrezurreko esku-terapia.*
• *Fibrolisi diakutaneoa.*
• *Bendatze funtzionalak.*
• *Kinesio Taping.*
• *Luzatze analitiko eta globalak.*
• ***Aseguruak:** Lagun Aro, Axa, Winthertur, Alares.*

iratzarri
FISIOTERAPIA - LOGOPEDIA
Uribarri etorbidea 7 behea • ARRASATE
Tel.: 943 53 39 90
**Logopedia:** 688 66 70 58 • *iratzarrilogopedia@gmail.com*
**Fisioterapia:** 688 66 70 62 • *iratzarri@hotmail.com*

**LOGOPEDA:**
**Maider Egino Sagasta**
• *Ahots arazoak*
• *Hizkuntza atzerapena*
• *Mintzaira atzerapena*
• *Ahoskera arazoak*
• *Burmuineko lesioak*
• *Irakurtzeko eta idazteko arazoak*
• *Degluzio atipikoa*

# HERRIAK

# Onena, hemengoa bertakoa

- Aretxabaletako tomatea, 'mozkorra', ezagunago egin nahi dute
- Euskadiko kata saioan goxoena zela esan zuten epaileek
- Oso estimatua da leku askotan; Zarautzen, neguan ere ereiten dute

**LEIRE KORTABARRIA** | ARETXABALETA

Euskadin, tomate-dastatze baten, goxoena Aretxabaletako tomate klasea zela erabaki zuten parte-hartzaileek. Guretik kanpo asko zabaldu da, Frantziaraino ailegatu da, eta oso estimatua da. Hala ere, bere herrian, jendeak ez du behar adina ezagutzen. Hutsune hori betetzen saiatu ziren Slow Food Donostia elkarteko kideak eta Aretxabaletako tomatearen zabaltzailea, Koldo Zubizarreta herritarra, eguaztenean hitzaldi baten.

Slow Food Donostia tokian tokiko produktuak bultzatzen dabil, eta "Aretxabaletako tomatea adibide ona" dela esan du taldeko presidenteak, Juan Manuel Garmendiak.

### 40 urte herrian

Herrian gutxienez 40 urte badauka Aretxabaletako *mozkorra* deitzen den horrek. Nola topatu zuen kontatzen digu Koldo Zubizarretak: "Domeka baten, ama eta biok paseo -leku batera joan ginen. Han topatu genuen Juan Jose Arenaza *Atxurdin*, eta haren ortua ikustera joan ginen. Hark zeukan tomate klase hori. Gustatu egin zitzaigun eta ale bat edo bi hartu eta harrezkero geuk mantendu dugu klase hori". Berez tomatea nongoa den ez dakite.

Zubizarretak helburua bete du: Aretxabaletako tomatea mantentzea. "Beti izan dut gauzak mantentzearen kontzientzia hori, eta pena ematen zidan Aretxabaletako tomatea galtzea". Antzuolako Tomas Larrañaga baserritarrari proposatu zion landu zezala, eta horrela lortu zuen zabaltzen hastea. Eta haren haziak Zaragozako hazitegian dituzte gordeta.

Gaur egun, Aretxabaletako *mozkorra* asko lantzen da leku askotan, bereziki Zarautz inguruko hazitegi ekologiko batzuetan; han, neguan ere ereiten dute.



Koldo Zubizarreta Aretxabaletako *mozkorra* tomatea eta poteak erakusten, etxean. | UBANE MADERA

## 'Mozkorra', hitz gutxitan

**GOXOENA**
2010ean, Gasteizen, tomate-kata egin zuten, eta 13 tomate klaseren artean Aretxabaletakoak irabazi zuen.

**GOIZTIARRA**
Azal fina du, okelatsua da eta hazi gutxi du. Heltzeko momentuan, beste batzuk baino lehenago etortzen da, eta multzoka etortzen dira aleak.

**EMANKORRA**
Koldo Zubizarretak dioskunez, "tomate hau beste batzuk baino lehenago etortzea ona da, beti lehenengo aleak direlako onenak". Gerora ere ematen ditu aleak, ordea.

**BABESTUA**
*Slow food* mugimenduak Aretxabaletako mozkorra bere babespean hartu du; izan ere, galtzeko arriskuan zegoen tomate klase hori. Gipuzkoan, beste tomate mota batzuk dira dendetan zabalduenak; gehienak hibridoak dira.

**BERRESKURATZEN**
Galdutakoa berreskuratzen joan da Aretxabaletako mozkorra; orain dela urte batzuk arte, denda txikietan eta azoketan 300 bat kilo egoten zen. Gaur, askoz gehiago ekoizten da.

**ANTZUOLAN**
Antzuolako Lapatza baserri ekologikoak ekoizten du; Zarautz eta Itziarren ere bai.

**ESANAK**

**"Aretxabaletako klasea galtzea pena izango zatekeen"**

KOLDO ZUBIZARRETA
ZABALTZAILEA



# Herri-merkataritza sustatuz, ondarea ezagutzera ematen

## Bisita gidatuak alde zaharretik Arrasate Zientzia elkartearen, Ibai-Arteren eta Udalaren eskutik

**G. ARANA/J. BEREZIARTUA** | ARRASATE
Herriko merkataritza sustatzea eta ondarea ezagutzera ematea. Bi helburu horiek bat egin dute oraingoan Arrasaten. Udalaren, Arrasate Zientzia Elkartearen eta Ibai-Arteren arteko elkarlanaren bitartez, irailean Ibai-Arteko dendetan merkatari elkarteko txartelarekin ordainketa egin dutenen artean, alde zaharra ezagutzeko bisita gidatuak zozketatu dituzte. Aste bukaera honetan hasiko dira.

Ibai-Arteko Jesus Mari Elkororen esanetan, ezagutza falta badago baina baita kuriositatea ere, Arrasateko alde zaharrak zer ezkutatzen duen jakiteko: "Herri berezia da gurea. Erdi Aroko herritxo bat dugu, erkidegoan ia ondoen gordeta dagoena". Trago eta mokaduz lagunduta, bisita berezia izango da; ordu eta erdi inguru iraungo du eta leku itxietan emango dira azalpenak.

**Lekuak bai, bitxikeriak ere bai**
Gidari lanak egingo dituen Arrasate Zientzia elkarteko Arantza Otaduyk aurreratu duenez, erakutsiko dituzte Harresi aretoa, Iturriotz kalea, San Juan bataiatzailearen parrokia, Erdiko Kaleko zati bat eta Herriko Plaza. Handik, Seber Altube plaza aldera jaitsi eta gero, Kulturateko klaustroetara joko dute. Hiribilduaren sorrera eta garapen arkitektoniko zein urbanistikoa azalduko dituzte eta baita gehiengoarendako ezezagunak diren hainbat bitxikeria ere. Historia eta aberastasun handiko herria da gurea eta jendea ari da ezagutzen, apurka-apurka. Ikastetxeetan, esaterako, Mankomunitateko Turismo Sailaren bidez, egiten dituzte hiribildua ezagutzeko irteerak. Hala ere, beste adin tarte batzuetan badira hutsuneak oraindik.

Merkataritza sustatzeko helburuarekin Udalak eta Ibai-Artek sinatutako hitzarmenaren beste fruitu bat da ekimena. Inazio Azkarragaurizar alkatearen arabera, garai zailei aurre egiteko lana beharrezkoa da: "Krisi gogorrari aurre egiteko elkarlana oinarrizkoa da eta elkarlan horrek aurrera egin dezan beharrezkoa da denon laguntza. Udala gertu egongo da beti laguntzeko".

Behin lau zapatuok pasata, onuradunez gain, interesa duen orok egin ahalko du bisita gidatua. Hala jakinarazi du Arrasate Zientzia elkarteak.

**ESANAK**

**"Elkarlana oinarrizkoa da; gertu gaude laguntzeko"**

INAZIO AZKARRAGAURIZAR | ALKATEA



Ibai-Arte eta Arrasate Zientzia elkartekoak alkatearekin batera. | GOIATZ ARANA

### Ogia egiten ikasteko aukera egongo da azaroaren 10ean, Bedoña Batu elkartearen eskutik

Bedoña Batu elkarteak ogia egiteko ikastaroa antolatu du. Azaroaren 10ean egingo dute, Bedoñako Loramendi elkartean (09:30-13:30). Izena emateko azken eguna urriaren 31 da; 688 88 79 02 (Dorleta) telefono zenbakira deitu behar da. Ikastaroaren prezioa 20 euro da –15 euro auzotarrendako– eta parte hartzaile kopurua mugatua izango da. Kontuan izan behar da aurrekoetan ez dela denondako lekurik egon. Ogia lehen egiten zen moduan egiten irakatsiko dute Juantxo eta Teba irakasleek, ama-orea erabilita.



JOKIN BEREZIARTUA

## Parkeak itxita haizea dela-eta

**Herrizaingo Sailak alerta horia aktibatu zuen eguaztenerako haize indartsuarengatik. Hori dela-eta, Udalak Monterron eta Santa Barbara parkeak itxi zituen goiz eta arratsaldez. Alerta horia eguazten gauean bertan behera geratu zen; gaurko, berriz, euriagatik aktibatu dute alerta horia, metro koadroko 60 litro baino gehiago iragarri dituzte-eta.**

### Usaetxeko ludotekan bosgarren urteurrena ospatuko dute gaur

Egun handia da gaurkoa Usaetxeko ludotekan. Izan ere, ludoteka ireki zutela bost urte beteko dira aurten eta urteurren ospakizuna izango dute gaur.

Ludotekako bazkide eta hezitzaileek aukera zabala izango dute Usaetxeko ludotekan bertan, 17:00etatik 20:00etara. Besteak beste, herri kirolez, graffitiez eta tailer ezberdinez gozatzeko aukera izango dute. Gainera, ludoteka ezberdinetan egindako jakiekin askari handia egingo dute. Bazkide diren guztiei luzatu die gonbidapena Txatxilipurdiko Haur Sailak: "Gozatu eta on egin!".


## Harresi ile-apaindegia: esperientzia luzean oinarritutako proiektu berria

Marian Escobales arrasatearrak 30 urte daramatza ile-apaindegietan lanean. Arrasateko ile-apaindegi ezagunetan egin du lan; orain, bakarrik ekitea erabaki du.

Uztail erdialdean ireki zuen Harresi ile-apaindegia Marian Escobales arrasatearrak. Hainbat ile-apaindegi ezagunetan lan egindakoa da, Arrasaten bertan. Eta orain, 30 urteko ibilbide luzeak eman dion esperientzia oinarri hartuta, bakarrik ekitea erabaki du. Proiektu berri bati heltzea erabaki zuen duela bi hilabete pasatxo, orduan ireki zuen negozio berria.

**Berriro hasi**
Hasiera gogorra izaten ari dela aitortu digu, baina gogotsu dago: "Urte asko daramatzat mundu honetan, baina orain berriro hastean moduan da, hutsetik". Horrek ez du esan nahi bezerorik ez duenik; izan ere, gustura dago orain arteko harrerarekin: "Uztaila garai ona izaten da, oporretan joan aurretik jende asko doa -eta ile-apaindegira. Hala ere, nik orduan ireki nituen ateak eta nahiko hilabete arraroa izan zen", adierazi digu. Irailean, berriz, bezero nahikotxo izan zituen: "Iraila nahiko hilabete ona izan zen eta Maritxu Kajoi egunerako hainbat eskaera izan nituen".



"Bezeroa ondo mimatu behar da. Gertuko tratua eskaintzea oinarrizkoa da, hori da gehien arduratzen nauena."

**Edertasuna eta osasuna**
Eskaintzari dagokionez, Marianek argi utzi du lehengai kimikorik ez duten produktuak lehenesten dituela: "Produktu naturaletan oinarritzen diren tratamenduak proposatzen dizkiet bezeroei. Tratamendu horietan dena da birziklagarria eta, edertasunaz gain, ilearen osasuna da lehentasuna". Ilerako tratamenduez gain, makillaje berezia ere eskaintzen du.

**Tratua, gertukoa**
Edertasun jasangarria du abiapuntu ile-apaindegi berriaren eskaintzak. Era berean, baina, bezeroari ematen zaion tratua izugarri zaintzen du Marianek: "Bezeroa ondo mimatu behar da. Gertuko tratua eskaintzea oinarrizkoa da, hori da gehien arduratzen nauena", adierazi digu.

harresi
ILE-APAINDEGIA
Tel.: 943 79 77 59
Zerkaosteta 16 Behea - ARRASATE

# Etxe-kaleratzeen arazoari herri ekimenaren bidez aurre egiteko lanean

Pobreziaren aurkako egunaren bueltan hitzaldia eman zuen Stop Desahucios Gipuzkoa plataformak; gaur, Toni Lodeiroren hitzaldia Kulturaten (18:30)

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Pobreziaren eta bazterkeria sozialaren aurkako nazioarteko eguna izan zen eguaztenean. Mundu osorako deialdiak murrizketak eskatzen ditu, bai: "Murrizketak aberastasunean eta desberdintasunean". Bada, oihartzuna Arrasatera ere heldu da: martitzenerako hitzaldia antolatu zuen Arrasateko Pobrezia Zero plataformak. Stop Desahucios Gipuzkoa plataformako bi kide izan ziren Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan. *Zer egin dezaket mailegua ordaindu ezin badut?* izenburu zuen hitzaldian, etxe-kaleratzeen errealitatea lehen eskutik azaldu zuten. Kaleratze horien funtzionamendua azaldu zuten eta, besteak beste, bankuak jarraitu ohi dituen urratsak ere azaldu zituzten.



Etxe-kaleratzeen hitzaldiak 20 bat herritar erakarri zituen. | JOKIN BEREZIARTUA

### Gai delikatua

Mikel Sanchez eta Iker Apilanez izan ziren Gipuzkoako etxe-kaleratze kasuen aurka egiten duen plataformaren izenean. Apilanezek hasieratik argi utzi zuen hitzaldi parte-hartzailea zela, eta entzuleek euren kezka eta zalantzak argitzeko tartea izan zuten.

Urtebete pasa dihardute lanean, eta Apilanezek nabarmendu zuen Gipuzkoan egunero hiru kaleratze izaten badira ere, ez dutela bat bera ere geldiarazi. Hainbat kasu ez dira publiko egiten: "Kaleratzeen biktima askok nahiago dute arazoa isilpean konpondu, errudun sentitzen dira-eta".

### Sinadura bilketa

Errealitate gordin horri buelta emateko asmoz, sinadura bilketa abiatu zuten Estatu mailan joan den apirilean. Ekimenaren berri eman zuten martitzeneko hitzaldian; lege proposamen bat bultzatu gura dute, herri ekimenean oinarrituta.

Honela azaldu zuen Apilanezek: "Legea oso zorrotza da bezeroekin eta oso malgua banketxeekin. Banketxeek, legea alde dutenez, ez duten zertan jarrera aldatu. Guk legea aldatzea nahi dugu, egoera injustua dela uste dugulako; eskatzen duguna da etxe kaleratzeak geldiaraztea eta gizarte-alokairua bultzatzea". 500.000 sinadura behar dira lege proposamenak aurrera egin dezan eta azken zenbaketa egin zutenean, urriko lehen astean, 410.000 bat sinadura zituzten. "Espero dugu helburua lortzea", dio Stop Desahucios Gipuzkoako kideak. Bada, oraindik sinatu ez duenak –atzo pintxo-poteo orduan izan ziren Portaloian– gaur izango du horretarako aukera, hitzaldian.

Izan ere, Toni Lodeirok hitzaldian emango du gaur –ikus elkarrizketa osoa 10. orrian–. *Consumir menos vivir mejor* liburua izango du ardatz hitzaldiak, egilearen beraren ahotik. Kulturaten izango da, 18:30ean.

**IKER APILANEZ** | STOP DESAHUCIOS GIPUZKOA

## "Harrigarria da egunero hiru kaleratze izan, eta bat bera ere ez geldiaraztea"



J.B.

Hitzaldia hasi aurretik hitzordua egin genuen Iker Apilanezekin; hainbat datu interesgarri eman zizkigun .

**Zenbat lagun zarete taldean?**

Duela urtebete hasi ginen eta orduan 12 bat lagun geunden taldean. Orain 18 lagun inguru gara.

**Zertarako egin duzue geldialdia gurean?**

Ordezkatzen dugun taldearen berri eman gura dugu, eta herritarrei gure lana zein den azaldu. Baina helburu nagusia da etxe-kaleratzeen errealitatea azaleratzea. Denok entzun dugu kaleratzeak izaten direla, baina benetan zer diren, nola funtzionatzen duten eta mailegua ordaintzen ez denean zer gertatzen den ez dugu jakiten. Horren berri emateko hitzaldiek ondo funtzionatzen dute.

**Kaleratzeen gaineko daturen bat ematerik bai?**

Estatu mailan, 2012ko lehen seihilekoan, 2.400 baino gehiago izan dira. Horrek esan nahi du EAEn egunero 15 bat izaten direla, gehienak Bizkaian. Hala ere, Gipuzkoan egunero hiru kaleratze izaten dira.

**Hiru egunero? Asko da, ala?**

Bai, baina harrigarriena dena da talde moduan lanean urtebete badaramagu ere, ez dugula kaleratze bat bera ere geldiarazi. Hau da, uste dugu oraindik ere jendeak beldurra edo lotsa duela eta nahiago izaten duela kaleratzea isilpean egin. Egunero hiru izan eta guk urtebetean bat bera ere ez gelditzeak asko harritzen gaitu. Horregatik, hitzaldiokin–eta jendearengana heldu gura dugu.

**Sinadurak biltzen ere ari zarete. Zein da helburua?**

Bada, maileguen legea aldatzea. Eskatzen dugu etxebizitza ordainean ematearen bermea legeak har dezala. Noski, kaleratzeak geldiarazi egin behar dira, eta alokairu soziala bultza dezala ere eskatzen diogu legeari.

## OHARRAK

**1958AN JAIOTAKOAK**

Azaroaren 10ean Herriko plazan elkartuko dira, 12:00etan. Bazkaria Kanpazar jatetxean egingo dute eta izena emateko honako kontu korronte zenbakia luzatu dute: 3035 0001 59 0011144438. 50 euro sartu behar dira.

**1959AN JAIOTAKOAK**

Azaroaren 24an bazkaria egingo dute Aldape jatetxean. Izena emateko 55 euro sartu behar dira jarraian datorren kontu korronte zenbakian: 3035 0202 70 2020039448. Izena emateko epea azaroaren 17an amaitzen dela jakinarazi dute antolatzaileek.

**1985EAN JAIOTAKOAK**

Azaroaren 17an 1985ean jaiotakoek ospakizuna egingo dute. Bazkaria izango da eta izena emateko 40 euro ordaindu behar dira honako kontu zenbakian: 3035 0023 92 0230082470. Izena emateko azken eguna da azaroaren 3a, eguna antolatu guran dabiltzanak helarazi dutenez.

# Udazkeneko produktuen etorrera, urriko baserritarren azokako nobedade nagusia

18 postu egongo dira bihar; Seber Altube plazan, 09:00etatik 14:00etara

AMAIA GARATE | ARRASATE

Udaleko Enplegu Sailaren ekimenez, urriko baserritarren azoka ere nobedadez beterik iritsi da. Hilero bezala, hileko hirugarren astean egingo da oraingoan ere, 09:00etatik 14:00etara. Seber Altube plazan egingo da, bihar, eta antolatzaileek aditzera eman dutenez, 18 postu egongo dira.

Hilero bezala berezitasun bat edukiko du azokak eta zapatu honetan udazkeneko produktuak izango dira protagonista.



Erosi, ikusi eta dastatzeko aukera eskaintzen du baserritarren azokak. | ARTXIBOA

### Iragarki berria laster

Egongo diren postuetatik sei Arrasateko baserritarrenak izango dira, beste sei Debagoienekoak eta beste sei kanpokoak, produktu bereziekin.

Gainera, aurrekoetan ikusi ez den produktu bat ere badator biharko azokara: Mikel Jauregialtzo oñatiarraren eztia dastatzeko aukera egongo da. Aipamen berezia egin behar zaio, bestalde, Zestoako oilaskoen postuari ere, Biurkizu baserrikoak oilaskoaren prozesu osoaren jabe diren sistema baitute. Sistema hori duten baserri bakarrenetarikoa da, gainera. Azokako arduradunak iragarki bat egiten jardun dute azken hilabeteetan. Helburua da baserriko produktuen kontsumoak duen garrantziaren berri eman eta denok dugun arduraz konturaraztea, Laster egingo dute publiko.

## Azaroaren 10ean hasiko da Zaldibarko areto futbol txapelketa

Txapelketa mitikoaren 51. edizioa hastera doa. Azaroaren 10ean izango da lehen jardunaldia eta izena emateko urriaren 30a proposatu dute antolatzaileek, Kulturaten. Talde bakoitzeko ordezkari bat joatea komeni da, 18:00etatik 20:00etara. 275 euro ordaindu behar da taldeko; argibide gehiagorako, deitu 634 44 75 92 telefono zenbakira.

## Inkestak kiroldegiko erabiltzaileen artean, zerbitzua hobetzeko

Iaz egin moduan, erabiltzaileen iritzia eta eskaerak ezagutu nahi ditu Aukeak zerbitzua hobetzeko. Horretarako inkesta egingo du erabiltzaileen artean. Inkesta Musakolako kiroldegian dago eskuragarri eta urriaren 28ra arte bete ahal izango da. Aukeak erabiltzaile guztiak animatu nahi ditu inkestok betetzera.

**Iban Velasco** | Euskaltel Euskadiko txirrindularia

# "Caja Ruralen askatasun handiagoz ibiliko gara; pozik nago erabakiarekin"

## Arrasateko ziklistak astelehenean sinatu zuen talde berriarekin kontratua

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE

Zarata handirik atera barik, Iban Velascok (Arrasate, 1980) astelehenean sinatu zuen Caja Rural taldearekin kontratu berria, urtebeterako. *Jet lag* galantarekin, gainera, Pekingo itzulitik etorri berri zegoelako. Arrasatekoa 11. postuan sailkatu da denboraldiko azken lasterketan; azken urteotako lasterketa onena izan du, behingoagatik, taldekideei begira egon barik: "Halako lasterketa bat behar nuen, nire buruari aurrean egoteko kapaz naizela erakusteko".

**Aste barruan zure taldekide Amets Txurruka eta Omar Fraile aurkeztu ditu Caja Ruralek Bilbon...**

Bai; esan didatenez, nire aurkezpena gertuago izango da, seguruenik Arrasaten bertan. Datorren astean edo...

**Caja Ruralen korrituko duzu urtebetez.**

Pozik nago. Caja Ruralen beste modu batean korrituko dugu, ziklistok askeago ibiliko gara eta nire aukerak izango ditudala uste dut. Talde horretan ez dut besteendako lanik egin beharko. Aukera ona da.

**Pekinen ia hamar onenen artean sailkatu zara.**

Behar nuen halako lasterketa bat, batez ere nire buruari erakusteko aurrealdean ibiltzeko kapaz naizela. Konfiantza hartzeko ederki etorri zait.

**Espainiako Itzulian lan ona egin zenuen, baina pertsonalki, azken urteotako asterik onena izan da Pekingoa?**

Baietz esango nuke, bai lasterketan lortutako emaitzarengatik, eta baita izan ditudan sentsazioengatik ere. Espainiako Itzulian gustura ibili nintzen, baina beste lan bat egitea tokatu zitzaidan. Eta Txinara sasoi onean joan naiz, askatasunez ibili naiz, eta gozatu egin dut horrekin. Hamar onenen artean sailkatzeko aukera izan dut, baina bonifikazioengatik ez dut halakorik lortu. Pena txiki hori dut, baina oso aste positiboa izan da.

**Amorruak horrenbesteko indar ematen al du?**

Badirudi baietz. Bai, amorruz korritu dut, zertarako gai naizen erakusteko.

**Esango nuke talde laranjan jarraitu behar ez zenuela adierazi zizuten momentuan, haserrea bai, baina aldi berean askatu ere egin zinela.**

Bai, posible da. Euskaltelen presio handia egoten da, eta pertsonalki gauzak ez zaizkit oso ondo atera, batez ere azken bi urteetan. Lesioak eta beste arazo batzuk direla-eta ez dut nire neurria eman, eta horiek atzean utzita Pekinen ikusi da ondo ibil naitekeela eta, neurri batean, nire mailara itzuli naizela.



Iban Velasco arrasatearra. | XABIER URTZELAI

**Bazenuen horretarako beharrik? Alegia, denboraldia ondo amaitzeko beharra.**

Bai, duda barik, Pekingo Itzulia oso ondo etorri zait. Halako lasterketa bat behar nuen, nire buruari aurrean egoteko kapaz naizela erakusteko. Datorren urterako oso garrantzitsua zen aurten konfiantzaz amaitzea.

**Pena, denboraldia motz geratu behar zaizulako. Urria, eta sasoi betean zaude.**

Bueno, oporrak ere gustura hartuko ditugu; azken batean, hamaika hilabete daramatzagu buru-belarri entrenatzen, eta atseden hartzeko ordua da. Baina beste ilusio batekin hasiko gara, talde berri batean, eta erronka berriekin.

**Duela 3 aste *Harmailatik* saioan Markel Irizarrek adierazi zuen Txinako esperientziak ez ziola grazia handirik egin. Zu lehenengoz izan zara han.**

Ni gustura ibili naiz. Atsegin dut beste lurralde batzuetara joan eta han zer dagoen ikustea, eta alde horretatik aberasgarria izan da. Ondo ibili gara.

**Ez zen bidaia erraza izango, jakinda talde barruan zelako gorabeherak dauden, eta baita ez duzula bertan jarraituko.**

Ez, ez dugu arazorik izan. Taldekideekin oso harreman ona izan dut beti, eta zuzendari moduan Iñaki Isasi etorri da gurekin, eta oso harreman ona dut harekin. Alde horretatik, aste oso lasaia izan da.

**Sikiera, Pekinen ez duzu beste batzuendako lanik egin behar izan.**

Bai, polita izan da askatasun horrekin korritzea, eta emaitza ona izan da Euskaltel-Euskadi taldea agurtzeko.

**Talde laranjan egindako lanaren balorazioa eskatzen badizut orain, eta bost urte barru, seguru ez dela berdina izango.**

Baliteke. Baina sei urte egin ditut Euskaltel-Euskadi taldean, eta egia esan behar badut nire sentsazioa da oso momentu puntualetan baino ez dudala erakutsi nire benetako maila. Lesio mordoa izan dut, hezur mordoa hautsi ditut erorikoen kulpaz. Lepauztaia hiru aldiz hautsi dut, sahietsak sei alditan, eskumuturrak... Kontua ere galdu dut dagoeneko [Barre]. Eta pena horrekin geratzen naiz, jarraipenik izan ez dudalako, ezin izan dudalako egin denboraldi bat lesiorik gabe.



Velasco eta Txurruka —argazkian— dira Caja Ruraleko azken fitxaketak. | WIKIPEDIA

**"Pekingoa bezalako lasterketa behar nuen aurrean egon naitekeela ikusteko"**

**"Badirudi amorruz korritzeak indarra ematen duela, Txinan ikusi da"**

**"Caja Ruralen ez dugu, orain bezala, besteendako lanik egin behar izango"**

**"Momentu puntualetan baino ez dut nire maila erakutsi"**

# Jokatutako hirurak irabazi ditu MU saskibaloi taldeak

**X.U.** | ARRASATE

Arrasateko saskibaloi taldean belaunaldi aldaketa egon zenetik –duela hiru urte–, MUk inoiz ez du liga horren ondo hasi. Azken urteotan talde zuri-morearen helburua kategoriari eustea izan da, eta inoiz gorriak eta bi ikusi behar izan dituzte horretarako.

Aurten, oraindik ere kategoriako talderik gazteena izan arren, ikasgaia ondo baino hobeto dute ikasita, jokatutako hiru partiduak irabazi egin dituzte-eta, eta aurrealdean ibiliko diren taldeen kontra, gainera. Hala, orain momentuan beste bi talderekin batera partekatzen du MUk lidergoa, Tabirakorekin eta Lizuanekin batera.

Joan den asteburuan Larreategiren mutilek kolpean irabazi zituzten lau puntu, Seky.es etxean mendean hartzeaz batera (75-64), etxetik kanpora atzeratuta zeukaten partidua ere irabazi zuten -eta, Baskoniaren kontrakoa, hain zuzen ere.

### Lagunaken kontra, kanpoan

Ligako laugarren partidua, berriz, etxetik kanpo jokatuko dute MUkoek. Domeka eguerdian Lagunak taldea izango dute zain, orain arte partidu bakarra irabazi duen Barañaingo taldea.

# Euskadiko Squash Txapelketa jokatuko dute asteburuan Musakolako kiroldegian

**X.U.** | ARRASATE

Oraingo asteburuan Euskadiko Squash Txapelketa jokatuko dute Musakolako kantxan. Gaur, egubakoitza, 18:00etan hasita lehenengo fasea jokatuko dute, eta zapatuan 09:00etan hasita koadro nagusia eta kontsolazioa. Hala, bazkaltzeko atseden hartu ostean, arratsaldeko lehenengo orduan jokatuko dituzte finalerdiak eta ondoren, finala.

### 30 jokalari izango dira lehian

Txapelketan Euskadi mailako 30 jokalari izango dira lehian, tartean AKE-Squash Arrasate Taldeko 10 jokalari. Hala, txapelketa bertatik bertara jarraitu ahal izango dute ikusleek; sarrera doan izango da.



Dantzaz Konpainiak indartsu zapaduko du Amaia antzokiko agertokia . | ARRASATEKO UDALA

# Indarra transmitituz dator 'Arte-an' bihar Amaiara

## Donostiako Dantzaz Konpainiak Amaia antzokiko taula gaina hartuko du bihar, 19:30ean hasita

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Dantza izango da bihar protagonista Amaia antzokian, 19:30ean hasita. Donostiako Dantzaz Konpainiak *Arte-an* ikuskizuna taularatuko du; indarra eta maisutasuna transmititzen duen lana, hain zuzen ere.

Gainera, berriki saritu duten ikuskizuna da *Arten-an*: urri hasieran, Aragoiko Dantza eta Antzerki Ferian, "tradizioa eta berrikuntza izugarri ondo elkartzeagatik" jaso zuen epaimahaiaren aipamen berezia.

**Istorioz betetako dantzak**

Etxeko zein nazioarteko koreografoekin elkarlanean osatzen ditu emanaldiak konpainiak, eta *Arten-an* ikuskizunarekin ere halaxe egin dute. Itzik Galili israeldarra da obra horretako dantzen egilea. Alde batetik, *Earth apples* dantzatuko dute konpainiako kideek; ama lurrari eta bizirik irauteko gogoa duten pertsona zapalduei kantua izan gura duen dantza. Bestetik, *Flash deluxe* ere interpretatuko dute, hura ere Galilirena; barnean daramagunaren irudia eskaintzen duen ispilu bat den pieza.

Bestalde, maisu israeldarraren lanez gainera, Dantzaz Konpainiarentzat Lukas Timulak koreografoak sortutako *A place between* dantzarekin ere gozatuko dute bihar Amaia antzokira bertaratzen direnek.

**Europara begira**

Dantzaz Konpainia izen bereko plataformaren baitakoa da eta horrek helburu zehatza dauka: dantza munduan lehenengo lana lortzeko bidea izan gura du. Formazioa eskaintzen du, oinarrizko entrenamendua, aholkularitza bai eta konpainian bertan aritzeko abagunea ere. Donostian kokatuta egon arren, Europarantz dauka ipinita begirada Dantzazek; izan ere, Europa osoko dantzariak batzen ditu konpainiak.

Baina maila profesionalaz gainera, ikastetxeekin ere egiten du lana Dantzaz egitasmoak. Hala, ikasle eta irakasleentzako ikasturtean zehar tailer ezberdinak antolatzen ditu dantzarekiko sentsibilizazioa bilatzeko asmoz. Ibarrean, esaterako, Arizmendi Ikastolak esku hartuko du ikasturte honetan zehar. Honela adierazi du Ikastolako Kulturgunea saileko Garikoitz Ibartzabalek: "Ikasturtean zehar zenbait ekimen eramango ditugu aurrera Dantzazeko lagunekin. Gaur, egubakoitza, izango da lehen hartu-emana: Arizmendiko eta Eibarko La Salle ikastetxeko ikasleek, 10:30ean, klase koreografiko bat egingo dute Amaian. *Arte-an* laneko *Flash deluxe* dantza ikusi, klase dramatizatu bat hartu eta dantzariekin elkarrizketa saioa izango dute". Dantzara gerturatzeko modu interesgarria.

### Ikasleak ere, dantzara

Arizmendi Ikastolako Kulturguneak aisialdiaz lotutako ekimenak antolatzen ditu. Normalean kirolaz lotura izan arren, bestelako arloak ere jorratu gura dituzte; antzerkia eta dantza, esaterako. Iaz saiatu ziren Dantzaz flataformarekin elkarlana sustatzen, baina arrazoiak arrazoi, ezinezkoa izan zuten xedea betetzea. Ikasturte honetan bai, eta hala, dantzarekiko sentsibilizazioa lortu guran, ikasturtean zehar hainbat momentutan izango dute erlazioa Dantzazekoekin ikasleek: gaur 10:30ean klase koreografiko bat egingo dute Amaian. Bestalde, dantza lan mudurako plataforma bat denez gero, eta kideak herrialde ezberdinetakoak izanda, haiekin elkarrizketak antolatu gura dituzte datozen hilabeteetan, dantza mundurako tranpolina etxetik gertu dutela jakin dezaten.

# Kantatuz dibertitzeko aukera, txikienentzat

Z.V.D.M. | ARRASATE

Goikobaluk gaur hasiko ditu 4 eta 5 urteko neska-mutilei zuzendutako ikastaroak. Erlojuaren Eraikinean elkartuko dira egubakoitzero, 17:00etatik 18:00ak bitartean. Maialen Gonzalez arduratuko da taldeaz. "Goikobalun txiki, gazte eta helduentzako taldeak genituen, baina konturatu ginen hastapen tailer baten beharra zegoela, musikarekin eta abesbatzarekin ohitzen joan zitezen gaztetxoenak".

**Abestuz eta jolastuz, ikasi**

4 eta 5 urteko umeak kantura gerturatzeko beharra ikusita hasi ziren duela lau urte ikastaro horiek ematen. "Oso ondo baloratuta dagoen ekimena da, jarduera arrakastatsua dela esango nuke. Badakigu ez dela edukietan sakontzeko adina; horregatik, abestu eta jolastu egiten dute, batez ere, haurrek, modu horretan, ongi pasatuz, musika eta abesbatzara gerturatuz".

Oraindik eman daiteke izena 669 83 34 38 telefono zenbakira dei eginda.

### RIPeko Karlos eta 'Portu' omenduko dituzte hilaren 27an

RIP taldeko Karlos eta *Portu* omenduko dituzte urriaren 27an, zapatua, Arrasateko Gaztetxean, 22:00etan hasita. Bi urtetik behin egiten dute omenaldia, eta aurten, gainera, Puñetazo taldeko Mariano ere izango dute gogoan. Garraxi, Piztu Punk! eta Insershow taldeak igoko dira gaztetxeko oholtzara.

# Euskararen gainean berbetan Pako Aristirekin, eguaztenean, Kulturaten

## 'Lau begiratu euskararen norabideari' hitzaldi zikloaren bigarren saioa



Pako Aristik berbaldia eskainiko du urriaren 23an. | LITERAKTUM

Z.V.D.M. | ARRASATE

AEDk antolatutako *Lau begiratu euskararen norabideari* hitzaldi zikloaren bigarren saioa egingo dute urriaren 23an, eguaztena, Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan. Pako Aristiren txanda izango da eta *Euskara, hizkuntza bat bere bakardadean* gaia landuko du.

**Euskaraz eta botereaz**

Euskal idazle eta kazetariak gaiari buruz egin digu berba: "Agertu nahi dut nola funtzionatzen duen botereak hizkuntzaren bermatzaile gisan. Hizkuntza baten hedapena sostengu ematen dion boterearen neurrikoa izan ohi da; beraz, hizkuntza baten hedapena oso murritza bada, esan nahi du atzean zeukan botereak porrot egin duela".

Aristiren esanetan, garaitu duen botere egiturak hizkuntza hegemonikoa bilakatzen du bere lurraldean, eta ahal badu beste nazio batzuetan. "Hor neurtzen da politika baten garaipena edo porrota. Gu porrot politikoetatik gatoz, eta hizkuntzaren egoera subsidiarioa nozitzen dugu horren ondorioz. Hori da euskararen bakardadea: botere garaile baten gabezia".

Bestalde, eta euskararen egoeraz galdetuta, Aristik honakoa adierazi dio GOIENAri: "XX. mende hasieran Euskal Herrian euskara%80 inguru erabiltzen zen, eta aurreko mendeetan gehiago. Azken datuen arabera demostratu da, 35 urte pasa ondoren, euskarak arriskuan darraiela, bere aurrerapen eskasa atzera pauso itzela dela inguruko hizkuntzen hedapen etengabearen aurrean". Bestalde, gaineratu du estatu politikak behar dituela euskarak aurrera egingo badu, "politika hegemonikoak, serioak, ausartak eta konplexurik gabekoak. "Estatu propio bat lortu ezean, euskararen etorkizuna oso iluna da: bazterreko hizkuntza folkloriko bilakatuko da, jadanik bilakatzen ari den moduan".

Horretaz guztiaz eta gehiagoz, datorren eguaztenean, hilak 23, 19:00etan hasita, Kulturaten eskainiko duen berbaldian.

# Moja klaratarrak joan egingo dira, Goenkalen 500 urte eman eta gero

## Bihar agurtuko dituzte, Trinitateko elizan egingo den esker mezarekin

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Datorren urtean, 2013an, 500 urte beteko dira moja klaratarrak Goenkaleko monasterioa sortu zutela, baina ez dute urteurren borobil hori han beteko. Izan ere, badoaz Bergaratik. Adinez oso nagusi dira, gehienek 80 eta 90 urte urte artean dute, eta dagoeneko ez dira gai elkarte bizitza mantentzeko.

Bost moja bizi dira egun Trinitateko monasterioan –azkena 50eko hamarkadan sartu zen–: Sor Marinieves, Sor Sagrario, Sor Beatriz, Sor Encarnacion eta Sor Maricruz, eta Bizkaia eta Gipuzkoako lau monasteriotara joango dira bizi izatera: Lekunberrira, Deriora eta Oñatiko Bidaurreta eta Santa Anara. Sor Belen eta Sor Inazita ere Bergarako etxekoak dira, baina osasun kontuengatik lehena Lekunberrin eta bigarrena Oñatin, Santa Anako monasterioan bizi dira duela denbora bat.


Goenkaleko 6. zenbakian dagoenTrinitateko monasterioa. | MONIKA BELASTEGI

### Kontenplazio-serorak

Trinitateko monasterioko klaratarrak kontenplazio-serorak dira eta euren egiteko nagusia otoitz egitea izan da, eta da. Asisko Klarak eta Frantziskok sortutako elkartea izanik, txirotasunean bizi izan dira, umiltasunean. Bizimodua aurrera ateratzeko moduari dagokionez, jostunak izan dira. Herriko zenbait denda eta norbanakorendako josi dute urteetn. Garai batean, esaterako, oso ohiko bihurtu zen koadrilek ehuna bertara eroatea mojek Mendekoste jaietarako alkandora josteko.

### Esker oneko meza egingo dute

Jon Molina parrokoak azaldu duenez, bihar, zapatua, agurtuko dituzte moja klaratarrak esker oneko meza eginda, eta herritarrei "parte hartzeko dei" egin die, "moja klaratarrok merezi dutelako".

11:00etan izango da meza, Trinitateko elizan, eta ondoren luncha egongo da. Gainera, etxea ireki egingo dute, luncha klaustroan izango da eta.

Mari Jose Aranburuk *Arte y Piedad. El arte relijioso en Bergara en la edad moderna II* liburuan jasotzen duenez, klaratarren komentu edo monasterioaren jatorria 1513. urtean Jasokundeko Ama Birjinaren izenpeko seroretegi batean dago. Garai hartan serorak –14 ziren– Goenkaleko etxe baten bizi ziren. 1566an, baina, instituzioa indartu egin zen Andres Martinez de Ondartzari eta haren emazte Magdalena de Araotzi esker; izan ere, eliza eta etxea eskaini zieten mojei, eta baita bizirik irauteko errenta nahikoa ere. Hori horrela, elkartea Trinitate Guztiz Santua izenarekin instalazio berrietara joan zen. Klausurari dagokionez, 1573. urtera arte atzeratu zen.

### Ordena berria etorriko da

Moja klaratarrak badoaz, baina laster beste ordena bateko moja gazteak etorriko dira. "Orain sortzen ari den ordena berri bateko mojak dira", esan du Jon Molina parrokoak, "San Juan eta Santo Domingoren ahizpak". Hamar bat etorriko direla gehitu du, azaro erdialdera, "Bergaran kontenplazio-bizitza mantentzeko".

# Gaur irekiko dute eskulan erakusketa San Joxepeko hamabostaldiaren barruan

## Bazkide kanpaina ere abiarazi dute, "elkarteak jarraipena izan dezan"

M.B. | BERGARA

San Joxepe erretiratuen elkartea kultura hamabostaldian murgilduta dago eta datozen egunetan ekintza gehiago izango dituzte. Gaur, egubakoitza, irekiko dute herriko erretiratuek egindako eskulan erakusketa, eta domekara arte egongo da ikusgai. Gaur 16:30etik 20:00etara egongo da zabalik; bihar eta etzi, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Astelehenean, LHko ikasleen lehiaketa historiko-kulturaleko sariak banatuko dituzte, 17:00etan. 17:30ean, berriz, dantzaldia eta ogitartekoak egongo dira batzen diren guztiendako.

Martitzenean, hilaren 23an, Oñatiko Pake Leku erretiratuen elkarteko Ikusi Makusi antzerki taldeak *De vecinos como estos líbranos, señor* izeneko antzezlana ikusteko aukera egongo da, Zabalotegin, 17:30ean.

Urriaren 26an, San Joxepe eta Legazkiko Buztindegi abesbatzek emanaldia egingo dute, 19:45ean, Santa Marinan. XVI. Kultura Hamabostaldiaren amaiera 27an izango da, Aitonetan egingo duten bazkariarekin.

### Bazkide kanpaina martxan da

Iñaki Zabala elkarteko lehendakariak azaldu duenez, bazkide kanpaina ere abiarazi dute. "Elkarteak jarraipena izan dezan jende berria behar da, ideia berriak behar dira eta nik uste dut kalean hori badagoela". Modu horretan, interesa duten herritarrei dei egiten die elkarteko bazkide egin daitezen.

# Abian da euskara oinarri duen Auzoko egitasmoa, hirugarrenez

M.B. | BERGARA

Dagoeneko abian da Auzoko egitasmoa. Helburua da euskaratik urrun bizi direnak –auzokideak– eta euskaraz bizi direnak –auzotarrak– elkarrekin harremanetan jarri eta euskara tresnatzat hartuz elkar ezagutu eta harremanak sortzea.

Gurean hizkuntza eta kultura aniztasuna handia da: euskara, gaztelera, ingelesa, wolof, serer, punjabi, urdu, mandarinoa, aymara, kitxua, darija, tamazigth... Bada, Auzokoren proposamena denon artean komunikatzeko euskara erabiltzea da. Dena den, hizkuntza eta kultura ezberdinak, aberasten gaituzten ondareak izanik, dagozkien garrantzia ematen diete. Hala, astean behin egubakoitzetan elkartzen dira kultura etxean, 18:00etan, elkarrengandik gauza berriak ikasteko irrikaz.

Jolasa, teoria, antzerkitxoak eta umorea dira dinamikak. Horrez gain, ekintza osagarriak ere egiten dituzte: mendira txangoak, gaztetxean ikastaroak eta afariak, esaterako.

Parte hartzeko 661 74 63 76 zenbakira dei daiteke, edo *bergara.auzoko@topagunea.org* helbidera idatzi.

www.goienairent.com
• Era guztietako ibilgailuak alokagai.
• Ibilgailua etxeko nahiz lantokiko atarira eramaten dugu.
• Asteburuetan ibilgailu txikia 90€ (BEZa barne)
• Aireportu-zerbitzu ezin hobea!

Goiena i-rent Ibilgailuen alokairua
943 71 66 52 / 619 44 71 75
Zubillaga auzoa 20 1.a ZM5 (Olaburu zentroa) • OÑATI
info.goienarent@i-rent.es • www.goienairent.com

Kayak Taberna
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
• Afariak
• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Hanburgesak
• Sandwichak
• Entsaladak
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

PATXI CASTRO

Era guztietako aulkien konponketa
•
Tapizatu lanak
•
Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
•
Besaulki, mahai, saskiak e.a
943 78 71 65
639 01 69 69

# Zabalotegin erakusketa ipintzeko eskaera egiteko epea zabalik dago

## Udala oso pozik dago aretoak azken urteetan izan duen bilakaerarekin

**ARRITXU BARRUSO** | BERGARA

2013an bere artelanak Aroztegi aretoan ipini nahi dituenak zabalik du eskaera egiteko epea. Hain justu ere, azaroaren 14 baino lehen egin beharko du eskaera eta besteak beste honako datuak aurkeztu beharko ditu: datu pertsonalak, artistaren ibilbide artistikoaren gaineko dosierra, erakusketaren ezaugarriak, egutegi aproposena edo erakusgai jarri nahi diren artelan edo objektuen behin-behineko zerrenda.

Bergarako Udala pozik dago azken urteetan Aroztegik izan duen bilakaerarekin eta 2013an ere erakusketek aurten besteko arrakasta izatea espero dute, "behar besteko esfortzua" egingo dute horretarako. "Aretoak hasieratik izan du erantzun ona, baina gaur egun badago jende bat erakusketa guztietara etortzen dena. Hori mantendu beharra dago", azaldu du Kultura zinegotzi Leire Iruinek.

Dena dela, kultura zinegotziak gogorarazi du eskaera egiteak ez duela esan nahi Aroztegiko urteko programazioan onartua izango denik. Izan ere epaimahai batek erabakitzen du hori; Bearteko Bingen de Pedro eta Luis Laskurainek, Pol-Pol Argazki Taldeko Benito Kanterok eta Udaleko kultura eta turismo ordezkariek osatutako epaimahaia da.



*Bergara 1936* erakusketa izan da bisita gehien jaso dituen erakusketetako bat. | L. KORTABARRIA

2012an, esaterako, hemeretzi eskaera jaso zituen Udalak eta hamalau erakusketa egingo dira guztira. Orain arte egin direnen artean badira bi bereziki arrakastatsuak izan direnak: lehenengoa Mikel Diazena, haren familiak eta Bearteko kideek elkarrekin antolatutakoa, eta *Bergara 1936* bestea. Kultura zinegotziaren esanetan Bergarako argazki zaharrak batu izan dituzten erakusketa guztiak oso arrakastatsuak izan dira beti.

### BISITA KOPURUA

| ERAKUSKETA | IKUSLE KOPURUA |
|---|---|
| **Mikel Diez** | 1.297 |
| **'Bergara 1936'** | 1.248 |
| **Bergara Hiria lehiaketa** | 929 |
| **Iker Valle** | 900 |
| **Nekane Lazkano** | 883 |
| **Carlos Bandilio** | 755 |
| **'Ibaia eta Ura'** | 723 |
| **Patxi Garate** | 568 |
| **'Sua' filmeko irudiak** | 395 |

### DATUA

**14**

ERAKUSKETA

2012an 19 eskaera jaso zituen Udalak, baina 14 erakusketa egingo dira.

# Hezkuntza familiarraren inguruko 'on line' ikastaroa

**A.B.** | BERGARA

Bergarako Udaleko Prebentziorako Zerbitzuak herriko eskolen eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saileko Droga Gaietarako Zuzendaritzaren laguntzarekin antolatutako ikastaroa da. 0 eta 6 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoendako da.

Ikastaroak bi egitarau izango ditu: bata, 0 eta 2 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoentzako; eta bestea, 2 eta 6 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoentzako. Urtarrilaren 17tik martxoaren 21era izango da. Talde bakoitza mugatua izango da; gehienez, 20 kide izango dira.

Egitarau bakoitzak 90 ordu izango ditu, *on line,* baina bi saio aurrez aurrekoak izango dira: bata formazioaren hasieran eta bestea bukaeran. Ordu eta erdikoa bakoitza. Euskaraz zein gaztelaniaz egin daiteke eta doan izango da. Ikastaroa eskainiko dute Etxadiko psikologiako profesionalek EHUko irakasleen laguntzarekin.

Ikastaroaren helburua da 0 eta 2 eta 2 eta 6 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoak hazkuntza gaietan trebatzea *on line* metodologia erabilita eta garapen-arlo desberdinei aurre hartzeko eta haiek indartzeko beharrezkoak diren estrategia praktikoak aurreratzea.

# Sute ikusgarria Artekaleko 29. zenbakian

**A.B.** | BERGARA

Astelehenean gaueko hamarrak inguruan piztu zen sua Artekale kaleko 29. zenbakian. Eraikinak bi solairu ditu, eta lehenengoan piztu zen sua. Momentuan bertako bizilaguna ez zen ohartu gertatzen ari zenaz, lo zegoelako; goian bizi diren bizilagunek iratzarri zuten usain arraroa sumatu zutelako.

Suaren handitasuna ikusita, berehala irten ziren kalera. Bizilagunen esanetan, sua "benetan ikusgarria zen" eta lehenengo minutuetan "urduritasun handia" suma zitekeen.


Leihotik sua irteten. | ANDONI GOITI

#### Inguruko bizilagunak ere kalean

Ertzaintza iritsi zen lehenengo sutea gertatu zen lekura eta eraikinaren aldameneko atarietan sartu eta bertan bizi diren familiak kalera atera zituen. Handik hamar minutura iritsi ziren suhiltzaileak eta sua itzaltzeko lanak hasi zituzten. Inguruko bizilagunek adierazi dutenez, sua piztu, larrialdietara deitu eta ia ordubete geroago heldu ziren suhiltzaileak.

Gauerdirako itzalita zuten sutea, eta, suhiltzaileek etxebizitzak aztertu ostean, inguruko bizilagunak poliki-poliki etxeetara itzultzen joan ziren. 29. atarikoak, baina, ezin izan dira etxera itzuli.

#### Kalte gehien lehen solairuan

Sua piztu zen etxebizitzan izan dira kalte handienak. Martitzen goizean etxea hustu eta erretako altzari guztiak atera zituzten. Bigarren solairua egoera hobean dago, baina keak erabat zikindu du guztia eta denbora bat pasatu beharko da bizilagunak itzuli ahal izan arte. Zorionez, eraikinaren estruktura ez da kaltetu eta egoera onean dago, Udaltzainen esanetan.

#### Lanpara bat egoera txarrean

Udaltzainek emandako informazioaren arabera, oraindik ez dakite ziur sua zerk eragin zuen, baina lehen solairuan bizi den bizilagunak adierazi zuen logelan gaizki zebilen lanpara bat zuela eta akaso hark piztuko zuela sua. Udaltzainen esanetan, berriz, "argi dagoena da sutea logelan hasi zela".

UREDERRA ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

Mujika gozotegia
Gozogintzan nahi duzuna
Eskatu artisautza eta tradizioa.
Artekalea 3 - BERGARA
Tel.: 943 76 10 34
mujikagozotegia.blogspot.com
mujikagozotegia@gmail.com

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

# Nazioarteko txotxongilo saio ikusgarrienak asteburuan

Txotxongilo Mostraren XI. edizioak bederatzi ikuskizun ekarriko ditu

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Abian da Taun Taun taldeak 11. aldiz antolatu duen Helduendako Nazioarteko Txotxongilo Mostra. Atzo, eguena, izan zen lehen ekitaldia, baina gaurtik domekara bitartean izango dira emanaldi gehienak. Hain justu ere, bederatzi ikuskizun ezberdin ikusteko aukera izango da, Andaluziako, Kataluniako, Argentinako, Portugalgo eta Euskal Herriko taldeena, hain justu ere. Ikuskizunok, gainera, aretoetan zein kalean izango dira, ohi bezala.

Txotxongilo mostra bi urtean behin egiten da; duela 22 urte egin zen lehenengo aldiz eta ordutik, Euskal Herriko eta Espainiako antzerki panoraman huts interesgarri bat bete nahi izan du. Izan ere, ikusle helduentzat pentsatutako txotxongiloen Estatuko lehenengo mostra da. Azpimarratzekoa da, bestalde, jaialdiaren jarraitutasuna. Handia ez izan arren, bere ibilbidean zehar mundu osoko herrialdeetatik heldutako 120 artista eta konpainia baino gehiagok bisitatu dute.

Jaialdia berezia da, zalantza barik, magia osagai garrantzitsuarekin. Bertatik ez da inor axolagabe ateratzen.



Antzokiko eta kaleko antzerkia fusionatzen ditu Ymedioteatrok. | TAUN TAUN

### EGITARAUA

**URRIAK 19, EGUBAKOITZA**

**18:30-21:30** *SIE7E*. Ymedioteatro (Andaluzia). Munibe plazan.

**19:00 / 20:00 / 21:00 / 22:00** *SOTA MINIMS*. Merce Gost (Katalunia). Pikupen.

**20:00** *CRIATURAS PARTICULARES*. Roberto White (Argentina). Zabalotegin.

**22:30** *TITIRESKA*. El Tenderete (Euskal Herria). Gaztetxean.

**URRIAK 20, ZAPATUA**

**12:00 -14:00 / 18:00-20:00** *SIE7E*. YmedioTeatro. Munibe plazan.

**19:00** *H, O2TOPOZ*. Iñaki Mata (Euskal Herria). San Martin plazan.

**19:00 / 20:00 / 21:00 / 22:00** *SOTA MINIMS*. Merce Gost. (Katalunia). Pikupen.

**20:00** *DIAGNOSTICO HAMLET*. Pelmanec (Katalunia). Zabalotegin.

**URRIAK 21, DOMEKA**

**12:30** *ZOOZOOM*. Markeliñe (Euskal Herria). San Msrtin plazan.

**18:00 (familiendako) / 20:00** *PROMETEU*. La Fontana (Portugal). Zabalotegin.

**19:00 / 20:00 / 21:00 / 22:00** *SOTA MINIMS*. Merce Gost. (Katalunia). Pikupen.

# 'Tavex' auziaren inguruan galdetu du EAJk Europan

Izaskun Bilbao jeltzaleak langileen eskubideen gainean galdetu du Europako Parlamentuan

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Uztailean egindako osoko bilkuran Tavex enpresako langileek aurkeztutako mozioa onartu ostean, EAJk konpromisoa hartu zuen Izaskun Bilbao europarlamentari jeltzalearen bitartez Europako Parlamentuan auzi honi buruzko informazioa jasotzeko galdera eta ekimenen bitartez.

Tavex enpresako langile asko langabezian geratu ziren eta beste asko erretiratu egin zituzten, eta, ordainetan, gehigarri batzuk adostu zituzten Belgikako borondatezko gizarte aurreikuspenerako erakunde edo aseguru etxe batekin (Vitalia). Aseguru poliza hori kontratatzea oinarrizkoa izan zen negoziazio prozesuan. Bada, erakundeak porrot egin du eta Belgikako Gobernuak kontrolatzen duenetik 200 langile inguru dirurik jaso gabe gelditu dira; tartean, Bergarako Tavexeko langileak.

**Izaskun Bilbaoren galdera**

EAJk auziaren inguruko informazioa eskatu du Europako Parlamentuan. Bergarako EAJk publiko egindako prentsa ohar baten azaldu dute galdetu dutela "ze bitarteko dauden Estatuko mugez haratago porrot egindako enpresei aurkeztutako erreklamazioak azkartzeko, zehazki borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeen kasuan eta batez ere langileen gizarte eskubideei eragiten dienean, langile horiek Europako beste estatu batean bizi, kotizatu eta lan egiten dutenean".

Bestetik, EAJko parlamentari Izaskun Bilbaok bere galderetan gogorarazi zuen bereziki Tavexeko langileen kasuan Espainiako auzitegiek, datu guztiak aztertu ostean, langileei arrazoia eman dietela; hau da, langileekiko duten zorra aitortu zaiela.

Bergarako EAJko ordezkariek Tavex enpresako kaltetuekin harremanetan jarraitzen dute eta enpresako sindikatuak Europako Parlamentuan egindako eskaeraren inguruko dokumentazio guztia jaso dute. Dena dela, hurrengo astean langileek bilera egingo dute EAJk ordezkariekin auziaren jarraipena egiteko.

## OHARRAK

**EQUOK ANTOLATUTAKO HITZALDIA GAUR**

Kultura etxean izango da, 19:30ean, eta hizpide izango dituzte lan boluntarioa, Fiare bankua eta Oparitu Zuhaitz Bat egitasmoa.

**JARDUNEN ESKOLA IBILTARIA ESPOLOIAN**

Jardun elkarteak gaur, egubakoitza, eskola ibiltaria egingo du. Espoloian elkartuko dira, 17:00etatik 19:00etara.

**MARIO DUELLAREN ORGANO KONTZERTUA ZAPATUAN**

Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloaren barruko kontzertua da. 20:00etan izango da, Santa Marinan.

**TAILA ESKOLAK HASIKO DITUZTE AZAROAN**

Bergarako taila eskolak azaroan hasiko du ikastaroa. Eskolak Zabalotegiko 11. zenbakian izango dira, astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara. Interesa duen edonor joan daiteke.

**LOS GALERNA TALDEA LAINO SKATE PARKEAN GAUR**

Lainok egubakoitzetako kontzertuekin jarraitzen du. Los Galerna etorriko da gaur, 22:30ean.

**1944AN JAIOTAKOEN KINTADA AZAROAREN 10EAN**

Irala kalean elkartuko dira, 13:00etan, eta bazkaria 14:00etan izango da, Lasan. Izen-ematea Sanchez ile-apaindegian.




JOSE LUIS LOIDI

# Lan osasun eta segurtasuneko desadostasunak salatu dituzte

Elkarretaratzea egin zuten martitzenean Arcelor Mittalen, lan osasun eta segurtasuneko desadostasunak direla eta. ELAk, LABek eta CCOOk deituta egin zuten, *Lan istripurik ez, hau ez da bidea* lelopean. Aditzera eman zutenez, lan osasun eta segurtasunaren alorrean zuzendaritzarekin dituzten desadostasunak aspaldikoak dira, hainbat neurri erabiltzearen kontra daudelako eta egindako eskaerek ez dutelako erantzunik jaso. Ondorioz, Lan Osasun Batzordeko batzarretara joateari utziko diote.

HILABETE HONETAN
BIZITZA ESTREINA EZAZU
ETXEBIZITZA LIBREAK
Altzariak barne eta alokairuan erosteko aukerarekin, 3 eta 4 logelekin, 273.500 €-tik aurrera.
Aprobetxa ezazu %4 BEZ rekin.
Bakarrik 12 etxebizitza.
Urriaren 31ra arte bakarrik.

lorentxoko bizigunea
ETA
MAILA GORENEKO
ETXEBIZITZA TASATUAK
1, 2 eta 3 logeletako etxebizitzak 107.000 €-tik aurrera.
Akaberetan eta hornikuntzetan aukera haundia.
www.grupoeibar.com www.lorentxoko.com T.: 943 316 611 • M.: 650 442 159



Kiroldegiko ikastaroen tasak %5-10 artean igotzea proposatuko dute | MIREIA BIKUÑA

# Salbuespenekin, zergak izozteko proposamena

EH Bilduk gertu dauka hilaren 25eko osokoan aurkeztuko duen txostena

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Oñatiko EHBilduk ezagutzera eman du 2013ko ordenantza fiskalen gainean hilaren 25eko osokoan aurkeztuko duen txostena. Euren proposamena "zergak izoztea" izango da. " Egoera ahulenean dauden gizarte-sektoreek nabari dute gehien krisia eta krisiaren ondorioak, eta horiek kontuan izanda egindako ordenantzak dira", esan dute kaleratuko prentsa oharrean. Eta hau gaineratu dute:" Krisiaren ondorioak ez dira berdinak izan guztientzat, eta ordenantza hauekin proposatzen dugun zerga sistema ere bidezkoa izango da, aurrerakoia, bidezkoa eta solidarioa, benetako progresibitate printzipioa oinarri izango duena eta iruzurraren aurka borroka egiteko konpromiso sendoa hartuko duena".

Dena den, EH Bilduk Udal Gobernuari egingo dion proposamenean salbuespenak daude: kirol ikastaroen tasak %5-10 artean igotzea proposatuko dute. " Kontuan izan behar dugu kirol zerbitzuak ematen dizkiguten enpresek %8tik %13ra igo dutela BEZ zerga. Hori dela eta, kirol ikastaroen tasak igotzera behartuta gaude", diote.

**Establezimenduen irekitzea**

Hiri Ondasun Higiezinen Zerga izoztea proposatuko duten arren, "ohiko egoitza ez diren etxebizitza hutsentzat %100eko errekargua ezarriko" dute. Neurri horrekin, hutsik dauden etxeak alokairuzko merkatuan sartu gura dituzte.

Bestalde, udal sarrerak gehitze aldera, jarduera ekonomikoaren gaineko zerga ordaintzeko gutxieneko fakturazioa milioi batera jaitsi dute.

Gainera, zergetako hobariak aurtengo baldintzetan mantentzeko proposamena egingo dute osoko bilkuran. "Familia tamainari lotzeaz gain, errentari lotuak egotea" bideratzen du EH Bilduren proposamenak.

Euskaltegiko erabiltzaileek ere izango dute hobaririk matrikulazioan. "Langabezian egon eta subsidioa kobratu arren matrikula tasa salbuetsiko da, eta AISA ikastaroetako erreferentzia hartuta prezio sinboliko bat kobratuko da. Langabezian egonda subsidiorik ez dutenek tasak salbuetsita izango dituzte".

**Kutxazainak eta bide publikoa**

Bestalde, establezimenduen irekitze lizentzien tasa %30 jaisteko proposamena egingo dute "merkataritza sustatu eta aktibitatea" garatzeko. Banketxeen irekiera tasak mantendu egingo dituzte, eta, gainera, kutxazain automatikoek okupatzen duten bide publikoarengatik okupazio-tasa ordaindu beharko dute: kutxazain bakoitzeko 350 euro.

### EAJkoen iritzia

EAJk hilaren 12an jaso zuen EH Bilduren ordenantza fiskalen txostena. "Denbora gutxiegi" izan dute gaia aztertzeko. "Hilaren 25eko pleno aurretik izango dugu gure diktamena", esan digu Lourdes Idoiagak.

Diktamen barik ere, hainbat puntutan "ados ez" daudela aurreratu digu jeltzaleen bozeramaileak. "Kiroldegiko ikastaroetako eta uda kanpainako tasak %10 igo gura dituzte. Familia asko baliatzen dira, orokorrean, zerbitzu horietaz, eta igoerak min egingo die. Gehiegizkoa da. KPI igotzea nahiko dela uste dugu", dio Idoiagak.

Bestalde, nahiko ados daude ohiko egoitza ez diren etxebizitza hutsei EH Bilduk aplikatu gura dien errekarguarekin, baina "horrek balio dezala alokairua indartzeko, eta ez diru gehiago biltzeko. Gainera, ondo definitu beharko da zeintzuk diren etxebizitza hutsak, herritarrei kalterik ez egiteko", diote.

## Gaztelekuko sotoa zabalik astelehenetik domekara arte

M.B. | OÑATI

Gaztelekuko sotoa zabalik dago hilaren 9a ezkero, baina berrikuntzekin. Aurten, astelehenetik domekara egongo da zabalik, egunero –orain arte, aste bukaera eta jaiegunetan zabaltzen zuten–. Herritarrek egindako eskaera aintzat hartuta, Udalak ordutegia zabaltzea erabaki du.

Hori horrela, lanegunetan 17:00etatik 20:00etara zabalduko dute eta aste bukaera eta jaiegunetan, 10:30etik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

**Komunak eta kafe-makina**

Gaztelekuko sotoak ez dauka zaintza zerbitzurik, eta, horregatik, neska-mutikoek gurasoen zaintzapean egon beharko dute. Dena den, gurasoek badaukate zapatak kendu eta koltxonetetan jolas egiteko aukera. Sotoak hainbat gune ditu: koltxonetak, mahaiak eta aulkiak marrazkiak egiteko, barruan jolas egiteko etxe handi bat, sukalde erraldoia... Komunak ere sotoan daude, eta hotza egiten duenerako kafe-makina ere bai.

## Nasdrovia taldearekin 'El circo del bol' antzezlana Santa Anan

Nasdrovia taldeak *El circo del bol* antzezlana eskainiko du gaur, egubakoitza, 22:30ean, Santa Ana antzokian. Txartelak sarreran bertan salduko dituzte sei eurotan.

Nasdrovia taldeak hipnosiaren munduan murgilduko ditu ikusleak. Protagonista bakarra izango du lanak: madarikazio bat, madarikaizo itzela. " Ez dizuegu agintzen ez akrobaziarik ez itzulipurdi handirik. Baina ondo pasako dugu", diote antzezlaneko protagonistek.

## Atez atekoaren informazio bulegoa zabalik astelehenetik

Astelehenean, hilaren 22an, zabalduko dute atez atekoaren informazioa emateko bulegoetako bat: Kale Zaharrean dagoena, alegia. Ordutegia izango da: astelehenetik egunera 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara arte; eta egubakoitzetan 10:00etatik 14:00etara. Han egongo diren informatzaileek atez atekoaren gaineko informazioa eman eta zalantzak argituko dizkiete herritarrei. San Lorentzoko beste bulegoa aurrerago zabalduko dute.

## Santa Marinako merkatua plazan egingo dute bihartik

M.B. | OÑATI

Santa Marina plazako saltzaileek lekuz aldatu beharko dituzte euren postuak bihartik aurrera. Plazako aparkalekua hutsik egoteak dakarren berrikuntzetako bat da: aurrerantzean, merkatu plazan dauden baserritarren postuen alboan egongo dira.

Hori horrela, elkarren ondoan egongo dira zapatuetan herrian egiten diren bi merkatuak. Dena den, ez da lehen aldia arropa postuak plazara aldatzen dituztena. Orain dela 20 urte Santa Marina berritu zutenean ere egin zuten, eta emaitza eskasa izan zen.

**Erosleak elkartrukatzea**

Santa Marinan postua ipintzen dutenek urte asko daramate Oñatin. Batzuek oso gustura hartu dute Udalaren erabakia; beste batzuk, berriz, "erosleen erantzunaren" zain geratuko dira.

Bi merkatuak batera ipintzeari buruz Udalak hartutako erabakiak lehen sektorea indartzeko helburua dauka, herriko produktuen kontsumoa eta erosleen arteko elkartrukea bultzatuta. Baserritarren azokan erosteko ohitura duenak arropa postuetan eros dezake, eta alderantziz. Hori lortu gura dute.

## Txandako 22 dendariren produktuak kalean

M.B. | OÑATI

Udako *outlet*-a egin ostean, Txanda dendarien elkarteko hainbat kidek euren produktuak kalera aterako dituzte. Txanda eguna egingo dute bihar, zapatua, herriko plazan, 10:00etan. Udaletxe aurrean karpa handi bat ipini eta han erakutsiko dituzte euren produktuak dendari elkarteko 22 kidek. Honako hauek: Mendizabal Kirolak, Itziar Optika, Beloki Iturgintza, Marku, Bellotza, Hirukar, Amalur, Baio, Juanitosa, D'or, Distira, Kuttun, Sustrai, Mari Jose ile-apaindegia, Arregi Elektrizitatea, Arkauz Optika, Maibi, Laket, Kimu, Charanga, Aranburu Pinturak eta Arantza Mertzeria.

Baina, merkataritza-guneaz gain, beste hainbat ekitaldi egongo dira plazako giroa berotzeko; hain justu ere, trikitilariek kalejira egingo dute eta haurrendako puzgarriak ipiniko dituzte.

Eguna borobiltzeko, Txanda elkarteko harategiek (Garai, Antton eta Txantxiku) moxal -haragi pintxoak egingo dituzte. Harategi horietan saltzen dute moxal-haragia.

# Eskubaloiko neskak, mailari eutsi nahian

Ainhoa Unamunok zuzentzen duen taldeak estreinatu berri duten ligan jokatzen dihardu

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Euskadiko Eskubaloi Federazioak aldaketak egin ditu gorengo mailan jokatzen duten emakumeen txapelketetan. Iaz arte bi mailatan jokatzen zuten: onenak Euskal Ligan, eta gainerakoak Preferente mailan. Aurten, baina, talde guztiak bateratu eta lurraldeka banatu dituzte. Hori horrela, Gipuzkoako taldeek txapelketa bat jokatuko dute eta Bizkaikoek, beste bat.

Aloña Mendiko senior mailako neskek Euskal Ligarako igoera lortu zuten iaz, baina, federazioak egindako aldaketekin, emakumezkoen senior mailan jokatuko dute. "Gorengo mailan jokatzen dugun guztiak liga bakarrean egongo gara. Talde indartsuak eta erdi mailakoak, nahastuta egongo gara", esan digu Ainhoa Unamuno entrenatzaileak.

Aloñarekin batera, Zarauzko Aiala, Zumaiako Pulpo, Usurbilgo Atez Ate, Andoaingo Leizaran, Donostiako Egia Bera Bera, Errenteriako Ereintza, Elgoibarko Tecnifuelle eta Urnietako Urnieta Londo School taldeak egongo dira, hain zuzen ere.



Aloñako senior mailako neskak, iaz, Ereintzaren kontrako partiduan. | JOSETXO ARANTZABAL

**Aurpegi berriak**

Aldaketak aldaketa, Aloñako nesken helburua mailari eustea da. "Liga berria da eta ez ditut talde guztiak ezagutzen. Batzuk oso indartsuak dira, Usurbil eta Egia Bera Bera, esaterako. Beste batzuek guk baino maila txikiagoa dute. Hori horrela, gure helburua sailkapenaren erdialdean bukatzea izango da. Maila mantentzea", esan digu Unamunok.

Maila berriari aurre egiteko aurpegi berriak ditu senior mailako nesken taldeak. Eskubaloia utzita zuten Erika Arteaga eta Jone Ugarte taldera itzuli dira, eta Arrasaten bizi diren bi jokalari berri dituzte: asturiarra bata eta bilbotarra bestea. "Talde orekatua daukagu. Erikaren itzulera oso ona da, guretako, erreferentzia bat delako erasoan. Dena den, defentsako lana indartu behar dugu sailkapenean lasai ibiltzeko. Ondo defendatzen badugu, bizirik egongo gara ligan", dio entrenatzaileak.

Aste bukaeran Urnietan jokatuko dute.

## Xakeko maisuak, era azkarreko XVIII. gaztelekuko txapelketan

M.B. | OÑATI

Herriko eta bailarako xakelari asko elkartuko da zapatuan gaztelekuko txapelketan (09:00etan). Kontuan hartuta Arrasaten hango txapelketa handia jokatzen dihardutela, akaso, ez dira maisu handiak egongo gaztelekuko txapelketan, baina parte hartzen dutenek euren maila onena emango dute.

**Suitzar erara**

Gaztelekuko xake txapelketak XVIII. edizioa beteko du zapatuan. Urtero moduan, suitzar erara jokatuko dute; sei itzulitara eta jokalari bakoitzak 15 minutu izango ditu bandera jaitsi arte.

Interesatuek gaztelekuan eman dezakete izena: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara arte. Gainera, telefonoz (943 71 82 57) edo e-mailez (*gazteinformazioa@oinati.net*) ere egin daiteke inskripzioa. Izen-ematea doan da oñatiarrendako. Gainerakoek lau euro ordaindu behar dituzte.



Xake jokalariak iazko txapelketan. | CRISTINA VAL

**1.035 euro saritan**

1.035 euro banatuko dituzte saritan. Irabazle nagusiak 200 euro jasoko ditu; bigarrenak, 170 euro; eta hirugarrenak, 135. Lehen gazteak 90 euro irabaziko ditu. Bestalde, herriko jokalari onenak 140 euro irabaziko ditu eta herriko lehen gazteak, 105 euro.



Zorrobero taldea, 2011-12 denboraldiko finala irabazi ostean. | TXOMIN MADINA

## Beteranoetan 18 talde lehiatuko dira, bihar hasita

Bederatzi taldeko bi multzo egin dituzte eta ligaxka moduan jokatuko dute lehen fasea

M.B. | OÑATI

Herriko Futbol Txapelketak denboraldi berria hasiko du aste bukaeran. Taldeendako deialdia egin zutenean, 18k eman zuten izena, eta horien artean egongo da txapeldun berria. Alegia, iazko denboraldian liga irabazi zuen Zorrobero taldearen ondorengoa.

Lehen jardunaldia aste bukaeran jokatuko dute, futbol saileko taldeen partiduen orduak errespetatuz –edizioa ixterakoan orduak zehaztu barik zituzten–. A taldekoen lehen jardunaldian ondorengo norgehiagokak egongo dira: Dollygans-Etxaixat, Txarrixak-Lozorromo, Paketinaikos-Albok, eta Xaguxar-Nandrolona. Txuskosek atseden hartuko du.

Berez, lehia horiek hirugarren jardunaldiari dagozkionak dira, baina Txuskos taldeak ezin zuen oraingo aste bukaeran partidua jokatu, eta jardunaldiak aldatzea erabaki du beteranoetako zuzendaritzak.

Iaz baino talde bat gehiago egongo da: Auschwitz da talde berria. 18 taldeak bederatziko bi multzotan banatu dira. B taldean daude: Kalañatasaray, Zorrobero, The Gibel Boys, Joxely, Indar 85, Bundeswehr, Sasquatch, Ankarteko eta Auschwitz.

**Lehen fasea ligaxka erara**

Lehen fasea ligaxka modura jokatuko dute eta multzo bakoitzeko lau talde onenek ligako azken fasera jokatuko dute. Gainerako guztiak koparako sailkatuko dira. Iaz Zorrobero eta Txuskos izan ziren liga eta kopako txapeldunak, hurrenez hurren.

## Gazteen kultur sorkuntzarako dirulaguntzen deialdia

M.B. | OÑATI

Udaleko Gazteria Zerbitzuak herriko gazteek eta taldeek euren kultura jarduerak aurrera ateratzeko dirulaguntzen deialdia egin du. Eskaerak aurkeztu behar dituzte Gazte Informazio Puntuan urriaren 31 baino lehen. Dirulaguntzak eskuratzeko bete beharreko baldintzak hauek dira: 12-30 urte artekoa izatea eta taldeen kasuan, erdia, gutxienez, oñatiarra izatea. Deialdia hainbat helbururekin egin dute: kultura programazioarako, sormena eta hedapena sustatzeko, materiala erosteko...

Udalak bi deialdi egiten ditu urtean: lehena martxoan egin zuten, eta orduan banatu barik geratu zen dirua orain banatuko dute.

## Urriko mendi irteera astebete atzeratu dute

M.B. | OÑATI

Aloña Mendiko mendi sailak hilaren 20-21erako iragarri zuen mendi irteera atzeratu egin du: hilaren 27-28ko aste bukaeran egingo dute, Nafarroako Pirinioetara. Interesatuek hilaren 23a baino lehen eman behar dute izena, Aloña tabernan: bazkideek 55 euro eta bazkide ez direnek 65 euro. Autobusa 06:30ean irtengo da, geltokitik.

Mendi irteerak bi etapa izango ditu: lehena, 15 kilometrokoa, Belaguako aterpetik Larrauko gaineraino izango da; eta bigarrena, 25 kilometrokoa, Irati-Irabiako uharka-Mendizar-Azpegi-Orbaitzetako Ola. Bigarren hori "luzea baina zailtasun bakoa" dela diote".

# Kuku Mikuren lokala ezagutzeko aukera bihar

## Ate irekiak egingo dituzte hainbat ekitaldirekin, eta bazkidetza kanpaina jarri dute abian

**M.A.** | ARETXABALETA

Kuku Miku haurraren garapenerako elkartea lanean hasteko gertu dago. Durana kaleko 30. zenbakian dagoen lokala txukuntzen jardun dute egunotan, eta bihar, hilak 20, zabalik izango da interesa duen edonork ezagutzeko (11:00-13:00 eta 17:00 -19:00). Ipuin kontalaria eta umeendako tailerrak izango dituzte goiz partean, eta gaztaina-jana arratsaldean.

Gainera, bazkidetza kanpaina jarri du abian Kuku Mikuk eta azaroaren 5a bitartean izena emateko aukera dago. 0 eta 6 urte bitarteko umeak dituzten gurasoek jarri zuten abian elkartea orain dela bi urte inguru eta zera diote: "Proiektua abiarazi genuen partaideok uste dugu herriko familia guztiei ateak zabaldu eta elkartea bere osotasunean bizitzen hasteko ordua iritsi dela". Argibide gehiago gura duenak bihar eska ditzake lokalean.

**Erditze osteko ikastaroa**

Bestalde, erditze osteko errekuperatze ikastaroa antolatu du Kuku Mikuk urriaren 30erako, martitzena; lokalean emango dute eta ez dago aurrez izenik eman beharrik. Bi aukera izango dira orduari dagokionez: 10:30 eta 17:30. Gainera, umeekin joan ahal izango dela iragarri dute.

Ikastaroa Ane Coranti eta Ane Remedios fisioterapeutek emango dute –errehabilitazio uro-ginekologian eta digestiboan adituak– eta landuko dituztenen artean daude: zoru pelbikoa eta sabeleko giharrak indartu, ariketa hipopresiboak...

## Liburuzain posturako 92 lagun daude onartuta eta Arkupeko harrerarako 82

**M.A.** | ARETXABALETA

Arkupe kudeatzen duen Amalur enpresari urriaren 31n bukatuko zaio kontratua eta Udalak ez dio luzatuko. Azarotik aurrera Kultura Saila arduratuko da haren kudeaketaz, eta, horregatik, hainbat langile behar dituzte. Hutsik geratuko diren lanpostuak betetzeko deialdia egin zuten orain dela egun batzuk. Liburutegirako bi liburuzain laguntzaile postuak betetzeko 92 lagun izan dira onartutakoak eta astelehenean, hilak 22, izango dute lehenengo proba, praktikoa, Arkupen bertan (10:00-12:00); bigarrena, euskarako idatzizkoa, ostera, urriaren 24an, eguaztena.

Bestetik, Arkupeko harrerarako lan jardun osoko langile bat eta bi langile egun erdiz behar dituzte; postu horietarako 82 lagun izan dira onartuak. Haiek ere astelehenean izango dute lehen proba, Arkupen (15:00-16:00), eta eguaztenean bigarrena, euskarazkoa, ahozkoa.

**Azaroaren 5ean lanean**

Epaimahaiak lehenbailehen zuzenduko ditu proba guztiak eta elkarrizketak egin langile berriak hautatzeko. Azaroaren 5erako langile berriak lanean gura ditu Udalak.

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA




Arizmendiko ikasleak txanoa eta maskara jantzita aldarrikapenak egiten. | M.A.



Udal agintari eta teknikariak Emakumearen Asteari hasiera ematen. | M.A.

# Aldarrikapenak eta jai giroa bat eginda Emakumearen Astean

## Gaur, Paula Kasares irakaslearen berbaldia dago baina kontzertua bertan behera geratu da

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Emakumearen eskubideen aldeko aldarrikapenak egitea helburu duen astea aurrera doa. Eguaztenean ekitaldi nagusia egin ondoren, gaur beste hainbat hitzordu dituzte herritarrek, eta bihar bukatuko dute.

**Kontzertua bertan behera**

Herritar asko elkartu ziren eguaztenean, plazan, *Martxoak 8... egunero izan dadila* lelodun ekitaldia ospatzeko. Eta herriko ordezkari asko izan ziren taula gainean emakumeen eskubideen aldeko aldarrikapenak egiten, horien artean, udal ordezkariak: Bilduko Lore Martinez eta Tomas Fernandez, eta EAJko Mikel Uribetxeberria; udal teknikariak: Asier Muxika, Kirol teknikaria; Jose Mari Segovia, Hirigintza teknikaria; Xabier Mendizabal, idazkaria...; kirol elkarteetako ordezkariak: pilota taldeko Juan Mari Errasti, UDAko Anabel Arantzadi, eta Zaraia mendizale elkarteko Iban Luelmo; Loramendi elkarteko presidente Eneritz Urrutia; Aretxarte merkatarien elkarteko Idoia Elexpuru; eta ikastetxeetako ordezkariak: Kurtzebarri eskolako neskek dantzan eta bertsotan egin zuten eta Arizmendiko ikasle bik maskara eta txanoa jantzita Pusy Riot taldeko kideak eta "gantxilloaren gerrillariak" izan zituzten gogoan. Ondoren, Ugutz Usandizagak eta Nerea Uleziak antzezlana eskaini zuten.

> **ESANAK**
>
> **"Egunero da emakumearen eguna eta asko dago egiteko"**
>
> MAIDER AIZKORBE | ZINEGOTZIA

Gaur beste hainbat hitzordu daude, batez ere gazteei begirakoak, tartean grafiti ikastaroa gaztelekuko kideekin, eta saskibaloi eta eskalada erakustaldiak bailarako neska kirolariekin. Horiez gain, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Paula Kasares irakasleak berbaldia eskainiko du: *Emakumeen jokaerak hizkuntzaren jarraipenean: amak euskararen familia transmisioan*. Kokein eta On taldeen kontzertua, ostera, bertan behera geratu da –aurrerago egiteko– eguraldi txarraren iragarpenagatik.

Bihar bukatu arren astea, Maider Aizkorbe Berdintasun zinegotziak gogorarazi zuen egunero dela Martxoaren 8a.

### HITZORDUAK

**URRIAK 19**

**17:00** Jolas ez sexistak, plazan.

**18:00** *Emakumeen jokaerak hizkuntzaren jarraipenean* berbaldia, Arkupen.

**18:30** Grafiti ikastaroa, plazan.

**19:00** Saskibaloi erakustaldia, kiroldegian.

**19:00** Eskalada erakustaldia, kiroldegian.

**URRIAK 20**

**11:30** Spinning saioa, debalde, kiroldegian.

**12:30** Aerobik saioa, debalde, kiroldegian.

**16:00** Areto futbol partidua, Andramari auzoko kantxan.



# Eskerrak Loramendiren izenean inkesta erantzundako guztiei

M.A. | ARETXABALETA

Loramendi elkarte barruan orain hilabete batzuk sortutako kultura lantaldeak eskerrak eman gura dizkie azken asteotan herritarren artean banatutako inkesta erantzun dutenei: "75 inkesta inguru jaso ditugu eta balio handia izango dute guretzat herritarren iritzi eta proposamen horiek", jakinarazi dute.

**Herritarren gogo eta beharrak**

Kulturako lantaldeak Loramendiko kultur eskaintzaren gaineko ikerketa abiarazi zuen orain aste batzuk. Orain arte eskainitakoaren gainean hausnartu eta iritziak ezagutzeko herritarrengana jo zuen "horien laguntzarekin kultura eskaintza aberasteko asmotan".

Dagoeneko erantzun asko jaso dituzte, 75 inguru, eta oso pozik daude inkestaren bultzatzaileak: "Izan ere, Loramendi elkartearen kultura eskaintza zabaldu eta herritarren gogo eta beharrei egokitzeko balioko duela uste dugu", diote. Eta jasotako erantzun horiek "oso kontuan" izango dituztela gaineratu dute.

Bestalde, gogorarazi dute udaberri inguruan sortu bazen ere Loramendiko kultura lan taldea oraindik zabalik dituztela ateak interesa duen edonorendako.

# Kontserbagintza ikastaroa antolatu du Loramendik Jakionekin batera egiteko

M.A. | ARETXABALETA

Leintz Gatzagako Jakion enpresaren eskutik kontserbagintza ikastaroa egiteko aukera dago hiru eguaztenetan, Loramendi Elkarteak antolatuta. Ortuko barazkiak zelan kontserbatu, frutekin marmeladak zelan egin eta beste hainbat kontu irakatsiko dituzte.

Ikastaroak bi zati izango ditu: urriaren 31n teoria eskola eta azaroaren 7an eta 14an eskola praktikoak. Udaletxe zaharrean izango dira (18:30).

Izena emateko epea eguaztenean, hilak 24, bukatuko da. Loramendira jo behar da; prezioa, 12 euro bazkideek eta 15 euro gainerakoek.



Maiatzean egindako moda desfilea Durana kalean. | M.A.

# UDAren eta denda batzuen eskutik moda desfilea gaur

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Azken urteotan ohitura bihurtu den Durana Fashion Day moda desfilea egiteko asmoa dute gaur (18:45), herriko hainbat komertziok –eguraldiak laguntzen ez badu atzeratu egingo dute eguaztenera, hilak 24–. Durana kalean jarriko dute modeloendako ibiltokia eta, besteak beste, Belar Meta gazteendako arropa-dendak, M-5 kirol-dendak eta Haurrak umeendako arropa-dendak erakutsiko dute udazken-negu parterako ekarri duten jeneroa.

Arropak erakutsi eta modelo lanetan herritarrek jardungo dute; tartean, Aretxabaleta kirol elkarteko hainbat futbol jokalarik eta kidek.

Kirol elkarteak, gainera, taberna jarriko du, urtero legez, eta edatekoa eta jatekoa eskaini desfilea egin bitartean. Horren helburua da elkartearendako diru apur bat lortu ahal izatea. Hori guztia musika dantzagarriarekin girotuko dute Loramendi Elkarteari esker.

**UDAk loteria salgai**

Bestalde, Aretxabaleta kirol elkarteak gogorarazi du dagoeneko salgai duela Gabonetako Loteria: 60.377 zenbakia, hain zuzen. "Elkartearekin kolaboratzen duten taberna, denda eta antzeko lekuetan topatuko duzue", diote. Gaur Durana kalean jarriko duten tabernan ere egongo da salgai.

# Urriaren 22an eta 29an odola ateratzera datoz

M.A. | ARETXABALETA

Arabako odol bankuko kideak etorriko dira odola ateratzera datozen bi astelehenetan, urriak 22 eta 29; osasun etxean izango dira (16:15-20:00).

Udazkeneko lehen odol ateratzea joan den astelehenean egin zuten gurean; 38k eman zuten orduan, batek lehenengoz. Ohiko odol emaileekin batera berriak animatu gura dituzte, batez ere gazteak.

Odol emaileen elkarteak bide batez jakinarazi du Gabonetako Loteria dutela salgai, urtero legez. Datozen bi astelehenetan salduko dute hori –3 euro– osasun etxean.

## Garikoitz Gartziaren urtebetetzea dela eta argazkia bihar, plazan

Ocañako kartzelan (Toledo) dagoen Garikoitz Gartzia *Mou* aretxabaletarraren urtebetetze eguna dela-eta, elkartasun argazkia atera gura dute. Bihar, hilak 20, elkartuko dira Herriko plazan (13:00).

Herrirak egin du deialdia eta talde handia elkartzea gurako lukete.



# Jasangarritasun Asteburua ekintzaz beteta dator Eskoriatzara

## Jasangarritasun eta bigarren eskuko azokak izango dira, besteak beste

**AMAIA TXINTXURRETA** | ESKORIATZA

Berrikuntzekin ospatuko da Jasangarritasun Asteburua Eskoriatzan zapatu eta domeka honetan. Aurten Jasangarritasun Azoka egun bakarrean egingo da, eta, hasiera batean herriko plazan egitea aurreikusten bazen ere, azkenean frontoian egingo da eguraldiagatik. Bigarren eskuko azoka ere frontoian bertan egingo da, eta zapatuan bestelako ekintzak egingo dituzte.



ERKA enpresako ordezkaria led teknologiadun argien gaineko informazioa ematen, joan den urteko azokan. | GOIENA

### Zapatuan hitzaldia eta bisita

Bihar, zapatua, Bioeraikuntzaren Adiskideak erakundeak antolatuta, goizean hitzaldia egongo da Ibarraundi museoan, gaztelaniaz. Hauxe izango da hitzaldiaren izenburua: *Eta zuk? Ba al dakizu egunean zenbat ur erabiltzen duzun? Uraren erabilera jasangarria: komun lehorrak, ur zikinen arazketa eta hauen berrabilpena.* Bertan hizlari hauek egongo dira: Monika Cebada, aparejadorea; Iam Agorria, Aldatu-ko koordinatzaile orokorra eta teknikaria; eta Borja Vallina, Bidatek Ingenieria Ambiental SLko kidea.

Arratsaldean, berriz, bisitan joango dira herriko baserri batera goizeko hitzaldian esandakoak praktikan ikustera. Ondorioz, bioeraikuntza irizpideak erabiliz berreraikitako XV. mendeko baserria bisitatuko dute.

Hori guztia debalde den arren, antolatzaileek esan dute "hizlarien saria, bidaia eta kudeaketa gastutarako ahal duenak 10 euro eraman ditzala".

### Domekan, azokak

Aurreko urteetan egin dituzten hiru jasangarritasun azoketan beti egon da gai zehatz bat; aurten, baina, gai desberdinak ukituko dituztela esan digu Eneritz Zubiak, Ibarraundi museoko langileak: "Horregatik postu oso desberdinak egongo dira ikusgai frontoian; beraz, jendeak seguru aurkituko duela berari benetan interesatzen zaion zerbaiten inguruko postua".

11:00etatik aurrera irtenbide jasangarriak erakusten dituzten 11 postu egongo dira, hauek zehazki: Ecogrifo, txorrotetan ura aurrezteko gailuak; Ekitermik, efizientzia energetikoa; Jakion, eskuz landutako baserriko produktuak; Emaus, erabilgarri dauden arropen, altzarien, eta abarren berrerabilpena; Meitaimaitie, ume eramaileak eta haziera; lorezaintza jasangarria; Ekosua, tximinia ekologikoak; Biofa, pintura naturalak; Aldatu, komun lehorrak...; Taer, eguzki plakaz dabiltzan jostailuak, bizikleta eta motor elektrikoak; eta Zu Behar Zaitut erakundeak egiten duen lana egongo dira ikusgai. Herritarrek bertan informazio gehiago jaso ahal izango dute enpresetako ordezkariak bertan izango direlako.

Bigarren eskuko azoka ere egingo da domekan, hirugarren aldiz, kultura etxeak antolatuta, eta aurten 18 postu egongo direla esan digu Arantxa Untzuetak, Kultura teknikariak. Hala ere, herritarren batek oraindik ez badu izena eman eta postua jarri nahi badu, garaiz dabil. Telefono honetara deitu dezake: 943 71 46 88ra edo mail bat bidali dezake *kultura@eskoriatza.net* helbide elektronikora.

### Kromo trukaketa

Bestalde, *Birritan daukat* I. Kromo Trukaketa ere egingo da, eta bertan, gaztetxoek aukera izango dute errepikatuta dituzten kromoak trukatzeko.

### EGITARAUA

**ZAPATUA**

**10:30** Hitzaldia Ibarraundi museoan. *Eta zuk? Ba al dakizu egunean zenbat ur erabiltzen duzun? Uraren erabilera jasangarria: komun lehorrak, ur zikinen arazketa eta hauen berrabilpena* izenburupean.

**16:00** XV. mendeko Eskoriatzako baserri batera bisita egingo da hitzaldian ikasitakoak praktikan jartzera.

**DOMEKA**

**11:00-19:00** Jasangarritasunaren inguruko enpresen postuak egongo dira ikusgai herriko frontoian.

**11:00-19:00** Bigarren eskuko azoka izango da frontoian.

**18:00** Umeek dituzten kromoak trukatzeko aukera izango dute frontoian.

---

# 4.000 euro inguru atera ziren garagardo festa solidarioan

## Kutxaren 1.000 euroak gehituta, 5.000 euroko laguntza jasoko du herriko zaharren egoitzak

**A.T.** | ESKORIATZA

Eskoriatzako zaharren egoitzaren patronatuak jakinarazi duenez, oraindik faktura batzuk ordaintzeko dituzten arren, aurreratu dute 4.000 euro inguru atera dituztela irailean egin zen garagardo festa solidarioan. Eta Kutxak 1.000 euroko laguntza eman duenez, guztira, 5.000 euro inguru jaso dituzte zaharren egoitzarendako.

### Eskerrak herritarrei

Guztira, 100 boluntariotik gora ibili ziren lanean iraileko garagardo festan, eta herritarren parte-hartzea eskertu nahi izan du patronatuak. "Guretzat ikaragarria izan da antzeman dugun elkartasuna eta babesa, eta horregatik ere harro gaude gure herriaz", azaldu dute patronatutik.

---

# Hika hitz egiten ikasteko aukera eguenetan

**A.T.** | ESKORIATZA

Joan den eguenean hasita, hika hitz egiten ikasteko aukera egongo da.

Izan ere, eskoriatzar askok euskaraz jakin arren, ez dakite hika hitz egiten. Hori konpondu nahian, talde bat sortu dute euskaltegian oinarrizko ezagutzak ikasi ostean, eguenero hori praktikan jartzeko prest daudenak, "eginaz ikasten delako".

Eguenak, gainera, pintxo-poteo egunak izaten dira Eskoriatzan, eta ikasi nahian dabiltzanak gustura hartuko dituzte eurekin batera hika aritu nahi duten herritar guztiak.

Beraz, hika hitz egin nahi dutenei gonbita egin diete eguenetan, 19:30ean, Kontzejupera joan daitezen, mingainari hika hitz egiten eragitera.

---



A.T.

# Atzerritartasun Legea: hitzaldia

Atzo, eguena, Eskoriatzako Udaleko Gizarteratze Zerbitzuak antolatuta, Atzerritartasun Legearen inguruko hitzaldia egon zen kultura etxean. Legea azaltzeaz gain, atzerritarren gizarteratze-prozesua zein den ere azaldu zuen hizlariak, eta bertaratutakoen kezkak argitu zituen. 15 lagun inguru izan ziren hitzaldian; atzerritarrez gain, Luis Ezeiza eta Almen ikastetxeetako ordezkariak eta Arrasateko Udaleko ordezkariak izan ziren.

---

## OHARRAK

### ZARIMUTZEN JOLASAK

Zarimutzen Ezkurtxorekin jolasak egingo dituzte zapatuan, 15:30ean. Jolas tradizionalak, ipuin kontaketak, ibilaldiak eta txokolate-jana egingo dituzte.

### PERRETXIKO ASTEBURUA

Gaztelekuaren eskutik hilaren 20an gaztelekuan perretxikoen ikastaroa egingo dute eta 21ean ibilaldia egingo dute, mendian, perretxikoak batzeko.

# Gurasoen eta umeen artean erabakitako jolas-parkea abian da

## Jolas-parkea txukuntzeko auzo-lana bertan behera geratu da

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA
Astelehenean, urriak 22, hasiko dituzte eskola aurreko jolas-parke berria egiteko lanak; aurreikusitakoaren arabera, azaroaren 2an amaituko dira. Prozesu parte-hartzailearen bitartez egin da jolas-parkea osatuko duten jolasen aukeraketa. Eskolako umeek eta gurasoek zazpi proiekturen artean bat aukeratu dute. Egingo diren lanen berri ematen duten bi panel jarri dituzte jolas-parkearen gunean. Bestalde, biharko deitutako auzo-lana bertan behera geratu da.

Astelehenean egiten hasiko diren jolas-parkearen proiektuak bide berezia jarraitu du; izan ere, erabakia Udalarena soilik izan barik, umeen eta gurasoen esku laga nahi izan du jolas-parkea osatuko duten jolasen aukeraketa. Iñaki Iartzak, Hirigintza batzordeko buruak, hau azaldu du: "Geneukan aurrekontuaren arabera, hainbat enpresari eskatu genien eskola aurrerako jolas-parkea egiteko proposamenak aurkez zitzatela, eta zazpi proiektu jaso genituen". Horien artean bat aukeratu beharra zegoen, eta, alde batetik, eskolako umeek izan zuten iritzia azaltzeko eta aukeraketa egiteko aukera; horretarako, ezinbestekoa izan da Herri Ikastetxearen laguntza. Gelaz gela, proiektuak ikusi, eztabaidatu eta bozkatu egin zituzten. Bestalde, eskolako sarreran jarri zituzten ikusgai proiektuok eta deialdia egin zien Udalak gurasо eta umeei, hamar egunen buruan, urriaren 2an, eskolako sarreran bertan elkartu eta guztien artean proiektu bat aukeratzeko.



Herri Ikastetxe ondoko jolas-parkea; panel informatiboekin. | AINTZANE IRIZAR


Gasteizko YOR enpresak aurkeztutako proiektua. | YOR

"Jolas-parkearen protagonistak umeak dira, eta, haiekin batera, gurasoak; horregatik, aukeraketan parte hartzeko aukera eman nahi izan diegu", azaldu du Iartzak. Hala, urrats bat gehiago egin du Antzuolako Udalak prozesu parte-hartzaileen aldeko apustuan.

### Panel informatiboa

Bestalde, eta gardentasunari eta jendeari informazio osoa ematearen aldeko apustua eginez, bi panel informatibo ditu Udalak jolas-parkearen eremuan bertan. Panel horietan, proiektuaren planoa edo marrazkiaz gain, proiektuari buruzko xehetasunak azaltzen zaizkie herritarrei: lanak noiz hasi eta noiz bukatuko diren, aurrekontua, finantzazioa, enpresa esleipenduna, jolasen neurriak eta ezaugarriak, eta abar. Udalaren asmoa da herrian obra, lan edo proiektu garrantzitsuren bat dagoenean, tokian bertan panel horiek jartzea, jendeari informazio ahalik eta zabalena, zehatzena eta zuzenena emateko helburuarekin, hain zuzen ere.

### Zazpigarren aukera

Guraso eta umeekin egindako bileran eta bozketan, zazpigarren aukeraren alde egin zuten gehienek; eta horixe izango da jarriko duten jolas-parkea. 25.000 euroko aurrekontuarekin, 24.412,43 eurotan esleitu zaio Gasteizko YOR enpresari. Goitik behera berrituko dute jolas-parkea, lurzoru zaharra aprobetxatuta eta azalera nabarmen handituta. Udalak finantzatuko du %100, horretarako gordeta zeukan partidarekin.

### Auzo-lana, bertan behera

Zapatuan hauteskundeetako hausnarketa eguna errespetatu gura dela-eta, aurrez jolas-parkeko landaresi batzuk kentzeko Udalak deitutako auzo-lana ez dela egingo azaldu du.

# Euskararen erabilera %65,4 da Antzuolan

M.A. | ANTZUOLA
Sozioliguistika Klusterrak argitaratu ditu 2011n egindako kale neurketaren ondorioak. Hala, %65,4 dela Antzuolan euskararen erabilera azaldu du. Gainerako elkarrizketak gaztelaniaz (%33,4) edo beste hizkuntza batzuetan (%1,2) egindakoak direla adierazi du. Euskararen ezagutza kontuan hartuta, baina, –antzuolarren %74 dira gai euskaraz hitz egiteko, 2006ko datuen arabera–, handia dela erabilera nabarmendu nahi izan dute.

Hamar urte lehenago egindako neurketaren arabera, ordea –%69,4 zen euskararen erabilera 2001. urtean–, jaitsi egin dela apur bat euskararen erabilera herriko kaleetan esan du.

Haurrak (2-14 urte) eta gazteak (5-24 urte) dira euskara gehien erabiltzen dutenak, %80,1 eta %91,2, hurrenez hurren. Helduek (25-64 urte) eta adinekoek (65 urtetik gorakoak), berriz, gutxiago erabiltzen dute euskara: helduen %56,4 entzun dituztela euskaraz diote; eta adinekoen %45,4. Beste datu bat: haurrek gehiago egiten dute euskaraz euren artean daudenean, nagusiekin daudenean baino. Nagusiek, aldiz, gehiago egiten dute haurrekin daudenean, euren artean daudenean baino.

## OHARRAK

**FUTBOLA**
Antzuolak Beasainen aurka jokatuko du zapatuan, 16:00etan, Eztalan.

**TXISTULARIEN KALEJIRA**
Domekan, 10:00etan, herrian zehar txistulariak.

**ERRETIRATUEN IRTEERA**
Urriaren 24an Eltziegora irteera egingo dute erretiratuek; 25ean merienda eta kina egingo dute elkartean.

# Natura oinarri, argazkilaritza ikastaroa antolatu du Arrolak

## Domekan herriko eskolako umeek irteera egingo dute Oiartzunera


Arrolakoak, Astateko gailurrean, hilaren 12an egindako irteeran. | JABI ETXANIZ

M.A. | ANTZUOLA
Hilaren 12an, joan den barikuan, Iparlara irteera ederra egin zuten, Arrolak antolatuta, 23 lagunek. Domeka honetan, aldiz, gaztetxoen txanda da. Hala, Arrola mendi taldeak eta Antzuolako eskolak umeendako irteera antolatu dute urriaren 21erako, domekarako, Oiartzunera.

Eskola Mendizaletasunaren Eguna ospatzen denez, beste zenbait herritako umeekin elkartuko dira eta ibilalditxoa egingo dute. Azken orduan norbaitek izena eman nahi badu, Ander Murgiondorekin berba egin behar du: 659 42 91 60.

### Argazkilaritza ikastaroa

Arrolak naturaren inguruko argazkilaritza ikastaroa azaroko aste bukaera batean egin nahi du –lekua eta asteburua zehazteke daude–. Zapatuan teorikoa 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara bitartean egingo litzateke. Domeka goizean lau orduko saio praktikoa egingo lukete. Irakaslea Benito Cantero bergararra izango da. Kamera mota, diafragma, obturadorea, bisore mota, objektiboak, sentsoreak, argiaren neurketa, konposizioa, filtroak... landuko dira. Izena emateko: azken eguna urriaren 29a, 19:00etatik 20:00etara Olaranen, edo aurrez 664 27 25 19 telefonora deituta.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

# Erretiratuen Jairako dena gertu, herri osoaren babesarekin

Urriaren 27an ospatuko dute; bazkarirako txartelak hilaren 23ra arte daude salgai

J.B. | ARAMAIO

Urriko azken zapatua egun seinalatua izaten da Aramaioko erretiratuendako. Haiendako bakarrik ez; izan ere, herri osoa inplikatzen da haien omenezko ospakizun egunean dena ondo irten dadin. Udalak antolatzen du Arabako Diputazioaren, Euskadiko Kutxaren eta Vital Kutxaren laguntzarekin, baina hainbat dira egunean bertan lan egiten duten herriko elkarteak: Ibarra auzoko elkarte gastronomiko guztiak, Lagun Artea dantza taldea, Trikitixa Eskola, Papargorri elkartea, Bizente Goikoetxea abesbatza eta herriko txistulariak.

**DATUA**

**44**

ARAMAIOKO EKOIZLE

Bertako 23 artisauak eta 18 ganadugileak kontuan hartuta, 41 ekoizle izango dira aurten Erretiratuen Jaiko azokan.

**Bertakoak zein kanpokoak**

Azoka izaten da eguneko izarra. Artisau eta ganadugileen artean Aramaioko 44 ekoizle espero dituzte antolatzaileek. Bertako 23 artisauk postua jarriko dute eta kanpotik beste 12 bat postu etorriko direla espero du Udalak: "Badira, gainera, mahai propioak ekartzen dituzten kanpoko artisauak". Azoka goizetik 14:30ak arte egongo da zabalik, urtero moduan. Azokaz gain, erretiratuendako bazkaria izaten da eguneko ekitaldi nagusia. Txartelak salgai egongo dira, zortzi eurotan, datorren martitzenera arte, hilak 23. Ibarran bizi direnek txartela eskura dezakete udaletxean, Vital Kutxan edota Euskadiko Kutxan. Auzotarrek, berriz, txartelok auzo-alkateen bidez eros ditzakete.

Bestalde, azoka osteko domekan, hilaren 28an, artzain-txakur txapelketa egingo dute Salazango zelaian; bada nobedade bat: bertsolariak arituko dira txapelketa animatzen.



Azoka izaten da Erretiratuen jaiko izarra. | ARAMAIOKO UDALA

# Aramaio langabe gutxien dituen herria da oraindik

Zuiako Koadrilako Enplegu Planak berretsi du eskualdeko tasarik txikiena duela

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Zuiako Koadrilak eta Otxandiok eskualderako Enplegu Plana garatzen dihardute. Ekimena Lanbideren 2012ko Enplegu-planaren barruan kokatzen da. Eskualdeko lan-egoera aztertzea izan zen proiektuaren helburua, gero eskualdeko lan-jarduera sustatzeko politikak martxan jartzeko. Hau da, eskualdean enplegua bultzatzea eta garatzea gura dute, "lan merkatuko gorabeherak sortutako desorekak gainditzeko". Helburu orokorra da langabeei, egonkortasunik gabe dihardutenemakume eta gazteei eta zenbait kolektibori laguntza ematea.

Azterketaren arabera koadrilan bizi diren 11.000 lagunen artean langabezia tasa %11 da.

**Parte-hartze foroa**

Planak eskualdeko produkziosektoreetan epe ertain eta luzera sor daitezkeen enplegu aukerak eta ekoizpen-jarduerak identifikatzeko balioko du, langileen kualifikazioa lan-merkatuaren egungo egoerara egokitzeko, eta enpresen beharren konexioa hobetzeko ere. Hala, enplegurako aukerak nola hobetu ere aztertu du irailean abiarazi zen planak. Egun dauden lanpostuei nola eutsi, enplegu politikak bereiztu eta informazio teknologiak garatu gura dute, besteak beste.

Proiektuak ahalik eta adostasun handiena izan dezan lanmahaiak eta parte-hartze foro bat sortu dute. Foro horretako buru da Lierni Altuna aramaioarra eta eztabaidarako leku horietan bertako erakunde, gizarte eragile eta enpresetako ordezkariek hartzen dute parte.

**DATUA**

**29**

LANGABE ARAMAION, IRAILEAN

Irailean Aramaiok zituen langabe gutxien eskualde osoan. 29 kontatu zituzten. Hau da, langabezia tasa %3,5 zen irailean.

**29 Aramaion, 126 Legution**

Irail erdialdean zehaztutako egutegiaren arabera, lan-egoeraren diagnosia egin dute dagoeneko. Aramaio da eskualde osoan langabe gutxien dituen herria, irailean hartutako datuen arabera. Irailean 29 langabe kontabilizatu zituzten (%3,5). Legutio eta Urkabustaiz herrietan zeuden langabe gehien irail amaieran: 68 gizonezko eta 58 emakumezko –126 guztira– Legution eta 42 gizonezko eta 39 emakumezko Urkabustaizen –81 langabe.

Zergatik dituen Aramaiok eskualde mailako langabe gutxien? Arrasaterekin duen harreman estua da arrazoi nagusia. Izan ere, asko dira Arrasateko industria -enpresetan lan egiten duten aramaioarrak. Udalak lehen sektorearen aldeko apustua egin du eta hala jasotzen da ikerketan; Aramaixo Basarri Barri fundazioa eta *Aramaixo* marka aipatzen ditu, besteak beste. Hala ere, biztanleen %2,24k bakarrik egiten dute lan sektore horretan; industrian %42,38k egiten dute lan eta zerbitzuetan, berriz, %52,31k.

# Mailaren araberako euskara ikastaroak aurten ere bai, erabilera sustatzea helburu

Udaletxean eman behar da izena (945 44 50 16), urriaren 23a baino lehen

J.B. | ARAMAIO

Udaleko Euskara zerbitzuak euskara ikastaroak antolatu ditu aurten ere. Hiru ikastaro izango dira, iaz moduan: oinarrizko edo hastapen ikastaroa, alfabetatze maila lortzekoa eta mintzalagunena. Urriaren 23ra arte eman daiteke izena eta klaseak Aramaion bertan emango dira. Izena udaletxean eman behar da eta ordutegiak taldearen beharren arabera finkatuko dira. Asistentzia %80koa bada ikastaroak doakoak izango dira.

Lehen ikastaroa euskaraz ez dakienei dago zuzenduta. Alfabetatze ikastaroa, berriz, euskaraz jakin bai baina idazten ikasteko, gramatika hobetzeko eta perfilak lortzeko antolatu du Udalak. Ikastaro horri bultzada berezia eman gura diote: "Euskara perfila ateratzeko interesa dutenei heldu gura dugu", adierazi du Rosa Mondragon euskara teknikariak. Izan ere, azken urteetan taldeak ez du aurrera egin eta antolatzaileek gogora ekarri dute AEKk ematen duela ikastaro hori. Beraz, EGA ateratzeko prestatu nahi den herritarrak klaseak Aramaioko udaletxean bertan jasotzeko aukera izango du.



Arabako mintzalagun taldeek hitzordua dute bihar Murgian. | GOIENA

**Mintzalagunak aurten ere bai**

Bestalde, iaz sortu zen mintzalagun taldea ere gertu dago ikasturte berriari ekiteko. Euskaldun zaharrek euskaldun berriekin egiten dute topo eta helburua sinplea da oso: euskaraz berba egitea. Taldeko kide da Ane Miren Etxeberria: "Iaz astean behin elkartzen ginen, zapatu arratsaldetan. Aurten ere urri amaieran hasteko asmoa dugu". Hamar bat lagun dira egun; batzuk hika lantzen dute eta beste batzuk normal aritzen dira euskaraz. Ateak zabalik daude gura duenarendako. Era berean, Arabako Mintza Eguna ospatuko dute bihar Murgian. Aramaioko taldea ez da bertan izango eta bat egiten dute deialdiarekin.

**Erabilera sustatzeko lanean**

Rosa Mondragonek azaldu duenez ikastaro horiek antolatzearen azken helburua euskararen erabilera bera sustatzea da: "Herritarrek euskaraz egin dezaten hizkuntza bera menperatzea ezinbestekoa da", dio.

## Berdintasun Plana garatzeko diagnosia, herritarrekin batera

Berdintasun diagnostikoa egin gura du Udalak, eta, Daiteke aholkularitza enpresaren laguntzaz, herriko errealitatearen diagnostikoa egiten dihardute. Hala, bai Udalak zein Daiteke enpresak lehentasuna eman diote herritarren iritziari. Eragile ezberdinekin egon ostean, atzo herritarrekin egin zuten bilera irekia.

## Hirugarren adinekoei zuzendutako ikastaroa Trafiko Sailari esker

Urriaren 30erako hitzaldi berezia antolatu du Jaurlaritzako Trafiko Sailak, hirugarren adinekoei begira. Oinezkoen zirkulazio istripuak eta kolpeak prebenitzeko erak azalduko dituzte Kultur etxean egingo den hitzaldian (18:00). Bertaratzen den bakoitzari opari bat emango zaiola jakinarazi du Udalak.

ELGETA



*Herria kantuan* ekimeneko entsegua, martitzenean. | L.Z.

# Herria kantuan ipini gura dute urriko azken domekan

Jose Gardoki hasita dago elgetarrekin entseguak egiten; hurrengo saioa hilaren 23an egingo dute

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Jose Gardoki soinu-jole aramaiorra Elgetan izan zen martitzenean. Dozena bat lagun zituen zain kultura etxeko musika gelan; tartean, abesbatzako zuzendari Jose Antonio Retolatza eta musika irakasle Lorea Larrañaga. Elgetarrek 18 bat kantuko errepertorioa aurkeztu zioten, eta laster hasi zen lanean soinu-jolea. Asmoa da urriko azken domekako txikiteoan herria kantuan ipintzea. "Aukeratu ditugun kantu gehienak oso ezagunak dira", adierazi du Jose Antonio Retolatzak. "Akaso, egongo dira pare bat jendeak hainbeste ezagutzen ez dituenak, baina ez dut uste inork arazorik izango duenik".

**Parte hartzeko deia**

Kantuzale guztiak daude kantuan egitera deituak; haur zein heldu, elgetar zein kanpotar. Hurrengo entsegua hilaren 23an, martitzena, egingo dute, 21:00etan. Haur eta gurasoendako ere antolatu dituzte entsegu bereziak; izan ere, helburua da kantu zaharrak ahotik ahora pasatzea.

**JOSE GARDOKI**
SOINU-JOLEA

## "Oso zaila da gaur egun jendea kantuan ikustea"



L.Z.

Aski ezaguna da Jose Gardoki soinu-jolea Elgetan. Hilaren 28an *Herria kantuan* girotzeko eskatu diote.

**Zer moduan joan da lehenengo entsegua?**

Ondo. 28an herria kantuan ipini gura du talde honek, eta ekin diogu lanari! Tonuak–eta hartu ditut, eta hilaren 23an beste entsegu bat egingo dugu. Entsegu horretara, gainera, Beñat ere etorriko da. Elgetako mutila da, oso jatorra. Hilaren 28an biak ibiliko gara; ni soinuaz eta hura panderoaz.

**Horrelako asko egiten da?**

Oso zaila da gaur egun jendea kantuan ikustea. Azpeitian –eta ibilita nago, baina, gehiago egiten ez bada, kantu zaharrak ahaztu egingo dira. Ez dira ahotik ahora pasatzen. Horrela dira gauzak!

# Denboraldiko perretxikoak batzeko eta dastatzeko egunak

**L.Z.** | ELGETA

Martxan dira Elgetako I. Jardunaldi Mikologikoak. Joxe Mari Larrañagaren hitzaldiak eman zien hasiera, eta gaurtik domekara bitartean Elgetako Bolatokia, Espaloia, Iñaki, Haizea eta Maialde tabernetan eskaintza berezia egingo dute: garagardoa edo urteko ardoa eta perretxikoekin egindako pintxoa bi eurotan.

Helburua da denboraldiko perretxikoak batu, ezagutu eta dastatzea, eta, helburu horrekin, perretxikoak batzeko irteera eta erakusketa mikologikoa ere antolatu ditu Turismo batzordeak domekarako, hilak 21.

**Domekan irteera**

Elgetako eta inguruko herrietako gazte eta umeei zuzenduta, perretxikoak batzeko irteera 10:00etan abiatuko da Herriko Plazatik domekan. Antolatzaileek adierazi dutenez, irteerak ordu eta erdiko iraupena izango du, gutxi gorabehera. Irteeran parte hartzeko beharrezkoa izango da haurrak heldu batek lagunduta joatea.

Ume eta gazteek jasotako perretxikoekin erakusketa egingo dute ondoren Herriko Plazan. Hala, jasotako perretxiko moten artean jangarriak direnak eta ez direnak desberdintzeko aukera izango da.



L.Z.

ELGETA

## Jendetsua Ormazabalen hitzaldia

**Hondakinen kudeaketak interesa pizten du Elgetan, eta argi ikusi zen hori EAJko Karlos Ormazabalek martitzenean Espaloian egindako hitzaldian. Iritzi trukaketa sutsuak izan ziren hitzaldi amaieran.**

IX. PILOTA TXAPELKETA

## Zortzi norgehiagoka aste bukaeran

**BARIKUAN, 19:00ETAN HASITA**

Jose Mari Zubiaurre-Iñaki Ugarteburu / Pello Larrea-Mikel Elkoro
Jabier Bolinaga-Iñaki Izagirre / Igor Irazabal-Enrike Elkoro
Angel Ibarluzea-Alberto Telleria / Asier Morales-Fernando Zenitagoia
Odei Zenitagoia-Andoni Elortza / Oskar Sarasua-Iñaki Olaortua

**DOMEKAN, 10:30EAN HASITA**

Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarrieta / Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi
Luis A. Alkorta-Gorka Bolinaga / Iker Irazabal-Enrike Elkoro
Mikel Ormaetxea-Haritz Makarro / Ibon Untzetabarrenetxea-Mikel Beretxinaga
Iraitz Bolinaga-Koldo Erostarbe / Iban Retolaza-Diego Cantabrana

## Azaroaren 10ean egun osoko txangoa D Luis R upategira

Autobusa antolatu dute Lantziegora, eta plaza libreak daude. Plana da Elgetatik 09:00etan irtetea eta Lantziegon hamarretakoa, D Luis R upategia eta dolarea bisitatzea eta bazkaria egitea. Interesatuek deitu Gorkari: 660 01 48 45.

## Achtung, The Last Strength eta Brutal Calling gaur gaztetxean

Sarrera bost euro da, eta batutako dirua Mujikako isunduendako izango da. Kontzertua 22:30ean hasiko da, eta jarraian DJ Sanderrek hartuko du txanda. Espaloian, berriz, Mikel Markezek eta Erramun Martikorenak emanaldia egingo dute egun eta ordu berean.

## Panpinak egiteko ikastarorako izen-ematea zabalik

Elorrioko Erreka Mari elkarteak egun osoko ikastaroa gidatuko du kultura etxean hilaren 27an, zapatua. Prezioa da 55 euro panpina biguna egiteko eta 60 euro janzteko panpina egiteko. Izen-ematea urriaren 22ra arte dago zabalik udaletxean.

LEINTZ GATZAGA

# Konpostagailu komunitarioen lanak oraingoz ez dituzte hasiko

**MIRARI ALTUBE** | LEINTZ GATZAGA

Udal ordezkariek uztailean esan zuten konpostagailu komunitarioen lanak azaroan hasiko zituztela, baina lan horiek atzeratu egingo direla iragarri dute orain. Gatzagan egin beharreko lanak samurrak dira eta ez dute aparteko arazorik, baina Debagoieneko Mankomunitateak erabaki du Oñatin eta Bergaran jarriko dituztenekin batera hastea lanok. Data oraindik zehaztu barik dago.

**Zabala, pozik emaitzekin**

Gatzagan bi konpostagailu handi jartzeko asmoa daukate: bata, Errosario kaleko aparkalekuan, 3.700 metro kubikokoa; kale horretan eta San Inazion bizi direnendako izango da. Eta bestea, argindarraren etxetxoaren alboan, 4.000-5.000 metro kubikokoa; Santiago eta Pilar kaleetan eta plaza inguruan bizi direnendako.

Lan horiek hasten dituztenean ikastaroa antolatuko dute herritarrendako. Juan Luis Zabala zinegotziak jakinarazi du orain dela lau bat hilabete jarri zuela berak konpostagailua beste hiru lagunekin batera: "Oso erraza da eta poztasuna ematen du hala jasotzeak. Gainera, emaitza onak lortzen gabiltza".

# Drogen gaineko argibideak emango dituzte gaur arratsaldean kultur etxean

**M.A.** | LEINTZ GATZAGA

Bideberri mankomunitateak 2012ko droga-menpekotasuneko prebentzio kanpaina jarri du abian, eta berbaldia eskainiko dute gaur, egubakoitza: *Drogei buruz, zer jakin behar dugu?* Bilboko Hazkunde enpresako adituak etorriko dira gaia lantzera, eta kultura etxean izango da (18:30).

Landuko dituzten gaien artean daude: droga motak; 12 eta 16 urte arteko nerabeek kontsumitzen dituzten ohiko drogak; kontsumitzeko arrazoiak; legeak dioena; gurasoek arreta zertan jarri; lehen kontsumoen aurrean zer egin... Batez ere, gurasoei zuzenduta dago, baina interesa duen edonork parte har dezake.


Iazko lasterketaren irteeran, korrikalariak lan-saioa hasteko gertu. | ARIZMENDI

ATLETISMOA

# Gauez eta Arrasateko erdialdean korrika, gaur da Tafyd krosa

## Proba hasi baino minutu batzuk lehenago eman ahal izango da izena

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE
Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketako Tafyd kirol jardueren zikloak antolatuta, herri mailako lasterketak hirugarren edizioa izango du gaur, egubakoitza (20:00). Joan den asteko Arrasate-Oñati probarekin alderatuta lasterketa azkarra izango da gaurkoa: korrikalariek Arrasateko kaleetan zehar 5,7 kilometroko ibilbidea bete beharko dute, ia bi kilometroko ibilbideari hiru itzuli. Lasterketa Ferixalekutik –Amaia antzoki parean– abiatuko da, eta helmuga ere hantxe jarriko dute. Hala, Internet bidez izena eman ez duena oraindik garaiz dago, proba hasi baino minutu batzuk lehenagora arte egongo dira-eta antolatzaileak izenak hartzen, Ferixalekuko oholtzan (10 euro).

**DATUA**

**5,7**

KILOMETRO

Distantziagatik, Gaueko Tafyd Krosak askok egiteko moduko ibilbidea du.

### Gartziatarren lehia

Tafyd krosa hazten dabil polikipoliki, eta ez ditu sorreratik izandako ezaugarriak aldatu nahi: egubakoitzean izatea, eta gauez. Horrek mugatu egin dezake askoren parte-hartzea –lan ordutegiak, kirola egiteko aurrez ezarritako ohiturak–, baina lasterketa berezi egiten du. Azken urteotan gartziatarren lehia izan dugu, David Gartzia durangarra eta Sergio Gartzia oñatiarra aurrez aurre.

Lehenengo urteko txapela Oñatira joan zen, baina iaz Durangoko ordezkaria ondo prestatuta etorri zen. Hala, David Gartziarena da orain arteko errekorra (16.17), nahiz eta bi urteen artean ibilbidea zertxobait aldatu zen. Joan den astean, baina, Arrasate-Oñati lasterketan Aloña Mendiko korrikalariak erakutsi zuen sasoiko dagoela; ikusteko dago bi atletak gaur irteera puntuan batuko diren. Emakumezkotan, berriz, Ainhoa Sanzek erraz irabazi zuen iaz, bi minutuko aldeaz (19.00).

SASKIBALOIA

# Natra Aloñak taldea aurkeztuko du bihar Zubikoan

**X.U.** | OÑATI
Zapatuan Natra Oñatik Ardoiren kontra jokatuko duen partiduaren ondoren (Zubikoa, 18:00) aurkeztuko dituzte saileko taldeak, jokalariak eta EBAko taldearen ekipazioak. Ezustekoa ekitaldi bukaeran etorriko da: bazkide kanpainako promozio bideoa eta kartel ikusgarria erakutsiko dituzte.

Saskibaloizaleak doan sartu ahal izango dira liga hasi aurreko azken lagunarteko partidura eta ondoren egingo duten ekitaldira. Gainera, aukera izango dute bazkide txartela egiteko. Esan beharra dago zapatuan txartela egiten dutenek babesle nagusiak emandako oparia jasoko dutela zuzenean.

### Ligaren hasiera, 27an

Denboraldi-aurre luzearen ostean, Eneko Blancok zuzentzen duen taldeak hilaren 27an hasiko du EBAko ibilbidea. Natra Oñatik Easo Pastas Arruabarrenaren kontra jokatuko du ligako lehenengo jardunaldian, Zubikoan, 18:00etan.



MENDIKO BIZIKLETA

# Mendiko bizikletan ibiltzeko hitzordu bikoitza asteburuan

## Arrasateko eta Eskoriatzako martxekin amaituko da Debagoieneko 'denboraldia'

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Joan den astean Iban Altuberen mendi bizikleta martxa lokatzak apur bat gogortu bazuen ere, Oñatin batu ziren 150 lagunek pozik amaitu zuten eguna. Eta horixe da, hain zuzen, asteburura begira Arrasateko eta Eskoriatzako martxetako antolatzaileek espero dutena, izan ere, badirudi oraingoan ere lokatzak ez duela tregoarik emango.

Debagoieneko zirkuituko azken bi hitzorduak batera datoz, etxeko denboraldia amaitu egingo da, baita indarrez amaitu ere. Bizikleta gosez direnek hitzordu bikoitza dute bihar, zapatua (10:00, Musakolako kiroldegia) Besaidekoek Arrasateko martxa egingo dutelako, eta domekan Eskoriatzakoek hartuko dutelako erreleboa (09:00, herriko plaza).

### 70 kilometro baino gehiago

Bi martxetara animatzen direnek –iaz ere hitzordu bikoitza izan zen, eta asko izan ziren bietara animatu zirenak– 70 kilometro baino gehiago izango dituzte bailarako mendietan zehar.

Arrasateko martxan aldaketa dezente izango dira; lehenengo kilometroak Udala eta Anporreta inguruan egingo dituzte, eta ondoren Urkulu aldera abiatuko dira Etxaetatik, azken kilometroak Galarrixa eta Kurtzetxikin egiteko.

Eskoriatzan, berriz, lehenengo kilometroak Kurtzebarri aldera egingo dituzte, eta Leixargaratetik jaitsi eta indarrak berreskuratu ostean Jarindo aldean egingo dute ibilbideko bigarren zatia.

Bi martxa horietan parte hartzeko egunean bertan eman ahal izango da izena, irteera baino apur bat lehenago joanda (Federatuek 10 euro, federatu gabeek 15 euro). Hala, lokatza ez dadila aitzakia izan, bai Arrasaten eta baita Eskoriatzan ere bizikletak garbitzeko modua egongo delako, eta baita dutxak ere, kiroldegian.



Arrasateko martxa, iaz. | JOSETXO ARANTZABAL

FUTBOLA

### Aretxabaletak eta Mondrak jokatuko dute etxean, domekan

Azken jardunaldietan orain arte sendo ibili diren Aretxabaletak (8) eta Bergarak (7) estropozu egin dute, eta kontrara, liga makal hasi zuten Mondraren (6) eta Aloña Mendiren (8) erreakzioa etorri da. Gauzak horrela, ibarrekoen artean sailkapena izugarri estutu da. Ligako seigarren jardunaldian Mondrak eta Aretxabaletak jokatuko dute etxean. Mondrak puntu bat gehiago duen Touring hartuko du domekan Mojategin, eta bigarren dagoen Tolosaren bisita izango du Aretxabaletak. Oñatikoak Lesakara joango dira bihar, eta Bergarakoak Oiartzunera.

XAKEA

### Alejandro Francok dena du alde Arrasate Hiria ostera ere irabazteko

Gaur, egubakoitza, jokatuko dute Arrasate Hiria Xake Txapelketako azken jardunaldia. Ohitura da azken jardunaldi erabakigarria Arrasateko osoko bilkuren aretoan jokatzea, baina gaurkoan ez da posible izango, eta Arrasateko San Andres xake taldeak Altamiran duen egoitzan jokatuko dute –ateak irekita izango dituzte ikusleendako. Hala, Alejandro Francok ia eskuan du aurtengo garaipena; Josu Tornayk ezustea eman diezaioke, baina horretarako Francok Etxagibelen kontra galdu egin beharko luke, eta Tornayk Astasio mendean hartu.

SASKIBALOIA



ESKORIATZA KIROL ELKARTEA

## Eskoriatzako saskibaloia, Emakumearen Astearen barruan

Aretxabaletan Emakumearen Astea ospatzen dabiltza, eta ekimen horren barruan gaur, egubakoitza, saskibaloiak protagonismoa hartuko du. Eskoriatzako saskibaloi kluba emakumez osatuta dago –argazkian–, eta horregatik gonbidatu ditu Aretxabaletako Udalak. Hala, gaur Ibarra kiroldegiko kantxa berria estreinatu ahal izango dute. 19:00etan hasita, hiruko txapelketak, lagunarteko partiduak, trebetasun lehiaketa... egingo dituzte.



# Debagoieneko **GREMIOAK**



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
• K-21
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
*www.goiena.net/blogak/azkarate*

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
*e.arrasate@euskalnet.net*

## ITURGINTZA

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
*f.oyanguren@ctv.es*

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIK**
Arrasate
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30
*http://merkatua.net/argiplastik*

**ION LEIHOAK**
Arrasate
Debagoiena Industrialdea 11.Pab
Tel.: 943 79 11 35
Faxa: 943 773 120
*http://www.ventaion.com*

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# Naroa Elortza: "Berezia izango da 'Gigantes y Cabezudos' zarzuela"

- Azaroaren 17an, 18an, 23an eta 24an izango dira emanaldiak Amaia antzokian
- Lau emanaldietarako sarrerak salgai azaro hasieran, 17 euroren truke, Kutxan

**MAIDER ARREGI** | ARRASATE

Aurtengo zarzuelaren atzerako kontaketa hasi da. Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak urtero egiten du zarzuela bat. Oraingoan, Manuel Fernandez Caballerok konposatutako eta Miguel Etxegarai Eizagirrek idatzitako *Gigantes y Cabezudos* ikuskizuna aurkeztuko digute, azaroan. Hamahirugarren zarzuela dute esku artean, baina ez direla superstiziosoak kontatu digute.

"Buru-belarri sartuta gabiltza entseguekin. Berez, martxoan hasten gara entseguak prestatzen, baina iraila frenetikoa izaten da. Domekero eta astelehenero egiten ditugu entseguak", azaldu digu Naroa Elortzak, Izaskun Murgia Elkarte Lirikoko kideak. Baina oraindik badira azken orduko lanak egiteke: "Musikalki dena dago eginda; baina bigarren aktoa orain hasi gara entseatzen. Hori findu behar dugu denok elkarrekin egindako entseguetan".

"Bederatzi hilabeteko haurdunaldia da, lau egunez haurra izan eta gero hurrengo haurdunaldira arte zain egoten gara", gaineratu digu, umorez, Elortzak. "Zuzendariak aukeratzen du zarzuela; kontuan hartzen ditu dituen zailtasunak eta abesbatzako kide bakoitzaren parte-hartze aukerak".

Ikusgarriak benetan erabiliko dituzten jantziak eta agertokia: "Iazko *La Revoltosa* zarzuelako agertokia aprobetxatuko dugu aurten; pena da behin egin eta gordetzea. Normalean, berrerabili egiten ditugu. Jostunek lan ikaragarria egiten dute".



Domekan egindako entsegu orokorra; bigarren eszena entseatzen hasi berri. | NAROA ELORTZA



Abesbatza, entseguan. | NAROA ELORTZA



50 lagun eszenan; Arrasate Musikaleko Orkestrarekin 100 oholtzan. | N.E

### ESANAK

**"Antzekotasun asko ditu egungo egoera ekonomikoaz"**

NAROA ELORTZA | ELKARTE LIRIKOA

### Interpretazio nekeza

Zarzuela guztiek amodio istorio klasikoa baten gorabeherak dituzte oinarri. Oraingoan ere, amodiozko kontuek dute traman pisua: Kubako gerrara joan den soldaduaren emaztegaiaren kontakizuna da oinarria. Amaia antzokiko taularen gainean ehun lagunetik gora izango dira aurten ere; horien artean, Arrasateko erraldoien irudiak ere bai. "*Gigantes y Cabezudos* zarzuela berezia izango da. Izan ere, arrasatearrak Zaragozako azentuaz ikustea edo andaluziarrez entzutea kuriosoa izango da. Ikuskizuna garantizatuta dago", dio Naroa Elortzak. Zarzuela alaia, ezaguna eta musikalki zaila eta eszena konplikatua dutelako aukeratu dutela diote elkartetik. 1898an estreinatua, bere garaian ere aurreratua zen zarzuela dugu honakoa. "Istorioa XIX. mendeko Zaragozan kokatua den arren, egun bizi dugun errealitatetik oso gertu dago, besteak beste, krisi ekonomikoa aintzat hartuta". Gaur egungo gatazka sozio-ekonomikoarekin eta gizartean gertatzen ari denarekin, zalantza barik, antzekotasun handiak bilatuko ditu ikusleak.

## Sarreran deskontuak

Arrasate Musikaleko bazkideen deskontua 3 euro izango da; hori horrela, sarrera 14 euro ordainduko dute; baina hori bai, esandako moduan, beherapena aplikagarri izango da azaroaren 23ko saiorako bakarrik. Deskontua izango duten sarrerak Monterron jauregian erosi ahal izango dira. Epea zabalik izango da urriaren 29an, 30ean eta 31n, 16:30etik 19:30era bitartean.

Gainontzeko hiru emanaldietako prezioa 17 euro izango da, eta sarrerak Kutxan egongo dira salgai azaroko zubiaren ostean.

Bestalde, azaroaren 23ko saiorako sarrerarik sobratzen bada, horiek ere Kutxan jarriko dituzte.

IRABAZLEA
DANTZA IKUSKIZUNA
JESUS MARI ELKORO ITURRIAGA (Arrasate)
Zorionak!

Arrasateko Udala Ayuntamiento de Mondragón

KONTZERTUA

Urriaren 26an.
Gatillazoren kontzertua Oñatiko Gaztelekuan.
Bidali KLUBA KONTZERTUA [Bazkidearen zkia] 215800 zenbakira.
Oñatiko Udala

HAUR ANTZERKIA

Urriaren 28an.
"Azken portua" haur antzerkia Kulturaten.
Bidali KLUBA ANTZERKIA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.
Arrasateko Udala Ayuntamiento de Mondragón

DEBAGOIENA EZAGUTZEN

Perretxiko garaia dela eta, ze izen du horrek? Izen arrunta eta zientifikoa.
Argazkia eta galdera > Jose Fernandez
Bidali KLUBA ERANTZUNA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.
Jakion
Jakionek emandako Produktu sorta*
* Jakioneko produktuz osatutako otarrea.

FILMA

BYPASS filma ikusteko gonbidapenak
Deitu 943 25 05 05 telefonora
BARTONFILMS

Parte hartzeko
Telefonoz: 943 25 05 05
E-postaz: kluba@goiena.com
WhatsApp bidez: 688 69 00 08
Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!
goienakluba 2012
Tel.: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
goienakluba.com
Urteko kuota: 50 €.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

# 'Arrikrutz uraren taupadak' lana aurkeztuko dute gaur

## Kepa Aranburu zuzendariak eta Imanol Biain Oñatiko Natur Eskolako kideak egin dute ia grabazio osoa

**MAIDER ARREGI** | OÑATI

Oñatiko Turismo Bulegoaren eta Natur eskolaren ekimenez egin dute *Arrikrutz uraren taupadak* izeneko ikus-entzunezkoa. 20 minutuko iraupena duen lana da, eta Palentziako Aguilar de Campoo herrian egiten ari diren Cuevatour kongresuan aurkeztuko dute gaur bertan.

Egileek azaldu digute, printzipioz Arrikrutzeko harrera gelan jartzeko bideo bat dela, euskaraz eta gazteleraz –aurrerago baliteke beste hizkuntza batzuetara ere egokitzea–.


Grabazio taldea, Kepa Aranburu zuzendariarekin koba barruan. | XABI REZABAL

### Arrikrutzeko txoko ezkutuak

Gesaltza-Arrikrutz-Jaturabe sistema nola sortu den azaltzen du *Arrikrutz uraren taupadak* ikus-entzunezkoak. Horretarako uraren bideak eta urtaroen ziklo osoa bat ardatz moduan hartu dute.

Hala, Arrikrutzeko bisita turistikoan ikusi ezin diren altxorrak eta txoko ezkutuenak ikusteko aukera aparta eskainiko du ikus-entzunezko honek.

### Elkarlana

Grabazio lan handiena eta gidoia Kepa Aranburu zuzendari oñatiarrak eta Natur Eskolako Imanol Biainek egin dute. Laguntzen –batez ere koba barruko grabazioetan– beste asko: Natur Eskolako kideak, Arrikrutzeko langileak... 30 pertsona inguru. Testuak egiten Martin Jauregialtzok eta Natur Eskolako Idoia Bollarrek ere lagundu diete Biaini eta Aranbururi.

Errealizazioaz, argazkiaz eta post-produkzio lanaz Aranburu arduratu da. Muntaia lanetan Irene Collek bartzelonarrak lagundu dio. Soinu post-produkzioa, aldiz, Beñat Gantxegirekin egin dute, Donostian.

Arrikrutzeko harreran izango duzue ikusgai.

# Txapa Irratiak programazio berria aurkeztuko du gaur arratsaldean

**M.A.** | BERGARA

2012-2013 denboraldian 18 irratsaio propio izango dituzte, eta, horiez gain, Arrosa irrati sareko hainbat irratsaiorekin osatuko dute *parrilla*. Aurkezpen jaia gaur, 19:30ean, gaztetxean egingo dute. Ondoren, Izaki Gardena taldeak kontzertua egingo du.

### 28 urte uhinetan

Txapa Irratia, 28. urtez, uhinetan egongo da. FMko 97.20an Bergarako irrati libreak komunikabide eredu ezberdin bat posible dela frogatuko du aurten, beste behin. "Herritarrei irekia, asanbladan oinarritutakoa, librea dena, ez komertziala eta pirata!" dela azaldu digute. Aurten ere euren ezaugarriei eutsiko dietela eta teknologia berrietan eta Arrosa irrati sarean oinarrituta kalitatezko programazio bat eskainiko dietela FM bitartez eurekin bat egiten duten bergararrei kontatu digute. Eta nola ez, Internet bitartez entzuten dituzten gainerakoak ere nabarmendu nahidituztela esan digute.

Txapa Irratia zuzenean entzuteko FMko frekuentzian, 97.20 sintonizatu beharko du norberak irratian, Bergara inguruan, betiere.

Interneten, *www.txapairratia.org* webgunearen bitartez entzuteko aukera dago.

## 'Myanmar, irribarreen sorlekua' filma ikusgai gaur Uberako eskolan

Eneko Etxebarrietak sortutako ikus-entzunezkoa eskainiko dute gaur, 20:00etan, Bergarako Ubera auzoan. Filma antzinako Birmaniako Myanmar herrialde bitxian oinarritzen da. Budistak dira, milaka urtetako santutegiak daude eta 107 hizkuntza ezberdin erabiltzen dira.

## Kursaal Fundazioko kontzertua ikustera joateko autobusa

Zapatuan, Joakin Atxukarro piano-jotzailearen 80. urteurrena ospatuko da Kusaalen. Debagoienetik 56 ikasle eta irakasle joango dira –Arrasate, Bergara eta Oñatiko musika eskoletakoak–. Autobusa Arrasatetik 18:00etan irtengo da eta Bergaratik 18:15ean, hain zuzen ere.


AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI




> FORD Kuga
2012 | Diesela | 0 Km

MUGARRI
Araba etorbidea, z/g ARRASATE
943790744 • www.mugarri.es

• Ford Focus 18.500 €
2012 | Diesela | Km 0
• Ford Transit 21.700 €
2012 | Diesela | Km 0
• Ford Focus Tdci 110 12.500 €
2011 | Diesela
• Citroën Picasso Td 92 Zp 7.800 €
2007
• Toyota Land Cruiser Td 3 Ate 125 Zp 7.800 €
2000 | Diesela
• Ford Fiesta Tdci 70 Zp 6.800 €
2007 | Diesela
• Ford Connect Tdci 90 Zp 7.900 €
2009 | Diesela
• Kia Sportage Td 12.500 €
2008 | Diesela
• Land Rover Td Freelander 5.500 €
2000 | Diesela
• Mercedes Vito Cdi 8 jarleku 14.500 €
2004 | Diesela




> Renault Grand Modus
2012 | Diesela | 0 Km | Txuria

RENAULT AUTOBERRI
San andres auzoa 8
ARRASATE • 943 71 24 72

HAINBAT AUTOTAN 2012KO PIVE PLANA AUKERAN

• Renault Clio 10.450 €
2010 | Diesela | 17.015 Km | txuria
• Renault Clio Automatikoa 8.250 €
2009 | gasolina | 17.934 Km | Urdina
• Renault Clio G.T. 12.890 €
2011 | Diesela | 12.890 Km | Urdina
• Renault Twingo 9.890 €
2011 | Gasolina | 0 Km | Beltza
• Renault Fluence 14.650 €
2009 | Diesela | 15.500 Km | Gorria
• Renault Megane 13.850 €
2010 | Diesela | 20.787 Km | Grisa edo Urdiña
• Renault Kangoo furgon 7.950 €
2008 | Diesela | 130.550 Km | Txuria
• Dacia Sandero 8.950 €
2012 | Gasolina | 4.500 Km | Gorria edo Grisa
• Dacia Stepway 11.450 €
2012 | Diesela | 5.600 Km | Gorria edo Grisa




> Citroen DS5 Hybrid Sport
2012 | Diesel elektrikoa | 6.400 km | Zuri nakaratua

CHAPIME
CITROËN
Debagoieneko kontzesionario ofiziala
San Andres auzoa 5
ARRASATE • 943 79 45 22

• Citroen Berlingo Com. 2.0HDI Multispace 4.600 €
2004 | Diesela | 147.000 km | Urdin argia
• Citroen C3 1.4HDI Cool 8.000€
2010 | Diesela | 40.500 km | Beltza
• Citroen C3 Picasso 1.6HDi SX 10.500€
2010 | Diesela | 57.400 km | Beltza
• Citroen C5 2.0 HDI Business 14.900€
2010 | Diesela | 58.000 km | Gris argia
• Citroen C4 Aircross 1.8HDI Exclusive 4WD 150 32.000 €
2012 | Diesela | 3.500 km | Txuria
• Citroen C5 2.0HDI Business 14.900€
2010 | Diesela | 38.000 km | Gris argia
• Citroen DS4 1.6e-HDi Design STT 20.000 €
2011 | Diesela | 3.000 km | Urdin iluna
• Citroen DS4 1.6e-HDi CMP STYLE 22.500 €
2012 | Diesela | 1.200 km | Gris argia
• Citroen C4 Aircross 1.8HDI Exclusive 2WD 150 30.500€
2012 | Diesela | 750 km | Mangaro marroia
• Citroen Berlingo XTR Plus 115 18.500 €
2012 | Diesela | 0 km | Nocciola

Iragarkia jartzeko: 943 25 05 05

Eskaintza baliagarria, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.




Karmele Agirregabiria eta Joseba Tapia, kontzertuaren aurkezpenean. | BERGARAKO TRIKITILARI ELKARTEA

# Karlistaldietako istorioak, Joseba Tapiaren eskutik

## Urriaren 26an izango da emanaldia, Tartufon, eta Trikitizale Elkartea sortu gura dutela da aitzakia

Z.V.D.M. | BERGARA

Urriaren 26an Joseba Tapia lasartearrak emanaldia eskainiko du Bergaran. Herriko Trikiti Elkarteak eta Tartufo jatetxeak antolatu dute ekitaldia, eta martitzenean egin zuten kontzertuaren aurkezpena Irizar jauregian; bertan izan zen, gainera, musikaria bera ere.

**Trikitizale Elkartearen bila**

Aitzakia polita da Trikiti Elkartearentzat kontzertua. Honela adierazi digu bertako Karmele Agirregabiriak: "Bergarako Trikitizale Elkartea sortzeko prozesuan gabiltza, eta zerbait egin gura genuen". "Trikitizale Elkartearen helburua ez da, inondik inora, eskolak ematea. Hori egiten dutenek ederto burutzen dute beraien lana. Guk trikitia kalera atera gura dugu elkarte berriarekin". Baina badute bestelako arrazoi bat: "Trikitia eskolan ikasten dute, eta bikain, gainera. Baina arazo bat ikusten genuen herritik kanpora ikasten duten neska-mutilei zegokienez. Bergaratik irteterakoan eten egiten zen, askotan, trikitiarekiko zeukaten erlazioa, eta, beraz, aitzakia bat eman gura izan diegu lotura manten dezaten". Hilaren 27an Bergaran ospatuko den Euskal Herriko Trikiti Egunaren bezperan egingo dute emanaldia. "Bere egunean Solano ekarri genuen, eta oraingoan Joseba Tapia izango da; musikari erreferentea, gainera".

**Karlistaldietako istorioak**

Bi urte igaro dira Joseba Tapiak *Eta tira eta bira* kaleratu zuenetik. Dena den, interesa pizten jarraitzen duen diskoa da, tartean beste lanekin alderatuta, gai ezberdinak jorratzen dituelako bertan. Karlisten eta liberalen kantuak jasotzen dituen diskoa da: "Nik uste dut oso ohituta dagoela jendea tematika honetara; euskaldunen arteko kontraesan eta talka da bertan agertzen dena. Terminologia ere egungoa da: borbondarrak, Konstituzioa, Ama Birjina, legeak ekonomia..." Hala adierazi dio Tapiak GOIENAri.

Hilaren 26an izango da kontzertua, Tartufon, 22:30ean. "Ez dugu aurreratuko zer egongo den bertan, ezusteko handi bat prestatua dugu-eta". Sarrerak salgai daude dagoeneko.

**ESANAK**

**"Bergarako Trikitizale Elkartea sortu guran gabiltza"**

**"Helburua trikitia kalera ateratzea izango da"**

K.AGIRREGABIRIA
TRIKITIZALEEN ELKARTEA

# Iker Iglesias aretxabaletarraren Txinako argazkiak, Oñatin miresgai

## Erretratuak, moda argazkiak eta bidaiak landu izan ditu, arrakastaz, Iker Iglesiasek

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Iker Iglesiasek (Aretxabaleta, 1977) errekonozimendua lortu du argazkilari gisa. Gaur egun Madril eta Bartzelonan dihardu erretratugintza eta moda inguruko argazki editorialekin lanean, bere estiloa eraikitzen. Baina bidaia-argazkiengatik ere ezaguna eta saritua izan da, eta Txinan iaz ateratako argazki ederrak ikusi ahal izango dira Oñatiko kultur etxeko erakusketa gelan, urriaren 28ra bitartean (18:00 -20:00), Ilunpetan argazki taldeak antolatuta.

**Txinak aldaketa ekarri zion**

Erakusketa Txina eta Xingiang -en iazko apiril eta maiatzean ateratako 22 argazkik osatzen dute. Egilearen esanetan, herrialdeak duen pluraltasun "etniko, kultural, ekonomiko eta geografikoaren isla da" argazki bilduma hori.

Iker Iglesiasek dioenez, "kontraste izugarriak" ikusi zituen Txinako zonalde batetik bestera. Honakoa dio: " Xinjiang bera adibidez, Txinako probintzia izan arren, Ekialde Hurbilarekin lotura handia daukan lurraldea da. Kashgar oasi-hiria bera, Asiako erdialdeko karabanaguneko toki estrategikoa, Karakorum-en bitartez Islamabadekin oso konektatuta dago. Eta hori nabari da ohitura, aurpegi zein janzkeretan. Batek ez daki Txinan, Pakistanen, Mongolian edo Turkian dagoen".

Horien beste aldean, Pekin edo Shanghai topatu zituen. Eta Txinarik "klasikoena" aurkitzeko, Pingyaora ere jo zuen Iglesiasek, eta bere bidaiako "Txinarik natural eta erromantikoena" Guilin edo Yangshuon ateratako argazkietan dago.

Txinak "argazkilaritza ulertzeko modua aldatu" ziola onartzen du Iglesiasek. Hona, bere hitzak: "Argazkirik pertsonaletan atmosferen bila dihardut orain, argian eta kolorean oinarritutako ikuspegi berri bat. Atmosferak emozioetara iristeko errepide bihurtu dira, eta horrek nabari daitekeen norabidea eman dio neure estiloari".

**Zinema-argazkilaritza**

Txinako erakusketarekin jarraituko du Iglesiasek 2013ko abuztura arte. Proiektu berriak ere baditu: urte hasieran zinemarako argazki zuzendaritzan murgilduko da Valentziako zine zuzendari batekin.



Ume txinatarra. | IKER IGLESIAS

ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA
09:00-14:00 Seber Altube Plaza
HILEKO 3. ZAPATUAN
2012
urriak 20
azaroak 17
Antolatzailea: Arrasateko Udala Ayuntamiento de Mondragón — Enplegu eta Garapen Ekonomikoaren Saila
Laguntzailea: ibai-arte — Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizuete.





Maite Arantzabal bergararra, herriko eta umezurztegiko umeekin.

MAITE ARANTZABAL

Maite Arantzabal | Ikaslea

# "Zambiako Kalwala Village herrian egin nuen proiektua, eta bertan daramaten bizimodua egin genuen"

LAIDA BERISTAIN | BERGARA

Maite Arantzabal (Bergara, 1991) Mondragon Unibertsitateko Huhezi Fakultatean dabil, Irakasle ikasketen laugarren maila egiten. Iazko ikasturtean Holandara joan zen, Erasmus bekarekin, ikasturtearen zati bat han egitera. Holandako ikasketa planak Zambian hiru hilabeteren barruan proiektu bat egiteko aukera eman zion beste bi ikaslerekin batera.

**Zertan datza Zambian burutu zenuten proiektua?**

Hiru ikasle joan ginen, Maite Floris eta hirurok, eta Zambia iparraldeko Kalwala Village deituriko herri batean egin genuen proiektua. Maite eta biok Haur Hezkuntzako ikasleak gara eta Florisek, berriz, *Commercial economy* ikasten du. Holandako unibertsitatean ipini ziguten baldintza bakarrenetakoa Kalwalan egingo genuen proiektuak gure bi ikasketak batu behar zituela izan zen; hau da, hezkuntza eta ekonomia.

Buruari mila buelta eman ostean, emakumeari indarra eta lekua eman nahi geniola erabaki genuen, *Women's clubhouse* izeneko eraikina sortuta, bertan herriko emakumeek haurrentzako eskolarako uniformeak egin eta saltzeko. Izan ere, Zambiako eskoletan derrigorrezkoa da haurrak uniformearekin joatea, eta inguruan ez dago salgunerik.

Herriko jendeak asko lagundu zigun eta Kalwala herrian dagoen igeltserotza eskolako 13 ikasleek gure eraikina egiten laguntzea lortu genuen. Emakumeek beraiena izango zen eraikina eraikitzen ere asko lagundu ziguten.

Floris izan da diruaren arduraduna; material erosketa, eraikinaren prozesua, garraioaren ordainketa, eta abar. Bitartean, Maitek eta biok astean behin emakumeei ingeleseko klaseak ematen genien, eta jada ingelesa zekien emakume bati Excel programako klaseak ere bai, dendako salmenta eta kontabilitatea eramaten jakiteko. Gainontzeko egunetan, eraikinean egoten ginen langileak kontrolatu eta argibideak emateko.

**Proiektuaz gain, zerbait gehiago egin zenuten Zambian?**

Proiektua unibertsitaterako ofizialki egin dugun lana izan da, baina, honetaz gain, gauza asko egin genituen. Kalwala Villageko umezurztegian egon ginen bizi izaten, 20 haurrekin, eta familia bilakatu gara. Hantxe daramaten bizimodua egin genuen, hiru zambiar gehiago ginen. Horretaz gain, eskolako lanetan ere laguntzen genien.

**Erraza izan al zen Zambiako jendearekiko tratua?**

Egia esan, Zambiako jendea oso jatorra da eta beti dago laguntzeko prest, baina zenbait alditan zailtasunak izan genituen; gehienbat, janaria eta eraikinerako materialak erosi nahi genituenean. Horrelako herrialde batean, jende zuria ikusterakoan, zuzenean produktuen prezioa igotzen dute.

**Zer azpimarratuko zenuke Holandan eta Zambian bizi izan duzun esperientziatik?**

Izugarrizko esperientzia izan da, bizitzan bizi izan dudan gauzarik sinestezinena, agian. Holandan oso ondo egon gara, oso herrialde polita eta interesgarria da duten bizimodua, asko disfrutatu genuen, baina Zambiako esperientzia izan da ni gehien markatu nauena. Bertako jendea, bizimodua, laguntasuna... ikusitako guztiak bete nau, nahiz eta gauza gogorrak ere ikusi ditugun.

**Zer da, zure ustez, ikasi duzun gauzarik aberasgarriena?**

Gauza asko ikasi ditut, neure burua ere gehiago ezagutu dut, baina garrantzitsuena Zambiako jendeak erakutsi dit; umezurztegiko haurrek, gehienbat. Ez daukate ezer, familia bat dira eta duten gutxia guztien artean banatzen dute. Hala ere, 24 orduetan pozik bizi dira. Guztiok ikasi beharko genuke haiengandik. Gauzak ikusteko modua aldatu dudala esango nuke. Ikusitako guztiak bete nau, nahiz eta gauza gogorrak ere ikusi ditugun.

### PERTSONALA

**Zure herriko txoko maiteena:** Trenbide zaharreko goiko estazioa.

**Gogoko janari bat:** Txuleta piperrekin eta patatekin.

**Telefono dei pozgarriena:** Zambiako haur eta lagunengandik jasotakoa.

**Etorkizuneko erronka:** Afrikara bueltatzea, Zambiara posible bada, eta bertan ahalik eta gehien laguntzea.

**Bidaia gustukoena:** 101 egunak Afrikan.

**Beldurra zeri?** Bizitako esperientzia guztiak eta ditudan oroitzapenak ahazteari.

## ASTEA GOIENAN


GOIENA

### EAEko hauteskundeen gaineko saio berezia

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeek emandakoari buruzko saio berezia egingo dute Julen Iriondo eta Goiatz Arana kazetariek. Mikel Irizar eta Ainhoa Larrañaga iritzi emaileek hauteskundeen emaitzaren balorazioa egingo dute.
**'Hauteskundea 2012'**
Domeka, 19:48.


WWW.DGC.USM.CL

### Bioerregaien gaineko elkarrizketa

*Ekogune* saioan Julen Iriondok bioerregaiei buruz hitz egingo du EHUko irakasle Gorka Buenorekin. Gai horretaz aparte, Kontsumobide erakundeari buruzko erreportajea eta Igartubeitiri buruzko plana izango dira hurrengo egubakoitzeko saioan.
**'Ekogune'**
Egubakoitza, 22:00.

## GOIENA TELEBISTA

### EGUBAKOITZA 19

**12:00** Planik bai?
**12:20** Magazinea
**13:05** Gurean gaur
**13:35** Zorion Agurrak
**13:40** Onein
**14:06** Beranduegi.tv
**14:30** Musikaz Gain
**14:40** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:08** Planik bai?
**15:28** Ikusmira
**15:58** Gipuzkoa kultura
**16:28** Ikusmira
**16:41** Zorion Agurrak
**16:46** Berriak
**17:06** Eguraldia
**17:09** Planik bai?
**17:29** Ekogune
**17:59** Bizitegia
**18:32** Ikusmira
**19:00** Beranduegi.tv
**19:24** Ikusmira
**19:37** Zorion Agurrak
**19:41** Berriak
**20:01** Eguraldia
**20:04** Planik bai?
**20:24** Gipuzkoa kultura
**20:59** Gurean gaur
**22:00** AsteON
**22:30** Berriak
**22:50** Eguraldia
**22:53** Hauteskundeak 2012
**23:53** AsteON
**00:23** Planik bai?
**00:43** Berriak
**01:03** Eguraldia

### ZAPATUA 20

**10:00** Ikusten:Eskolen festa
**10:57** Zorion agurrak
**11:02** Ekogune
**11:32** AsteON
**12:02** Planik bai?
**12:22** Onein: Barazki fideua
**12:45** Berriak
**13:00** Magazinea
**14:00** Dantza Txapelketa
**14:45** Gipuzkoa Kultura
**15:15** Zorion agurrak
**15:20** Berriak
**15:35** Onein: Barazki fideua
**15:58** Planik bai?
**16:18** Zorion agurrak
**16:23** Berriak
**16:38** Beranduegi.tv
**17:02** Magazinea
**18:02** Planik bai?
**18:22** Musikaz Gain: Lehiotikan
**18:32** AsteON
**19:02** Musikaz Gain: Lain
**19:12** Beranduegi.tv
**19:36** Magazinea
**20:36** Planik bai?
**20:56** Ekogune
**21:26** Gipuzkoa Kultura
**21:56** Bertso saioa
**23:51** Musikaz Gain: Manent
**00:01** Planik bai?

### DOMEKA 21

**10:00** 28 klip
**10:31** Zorion agurrak
**10:36** Onein: Onddoz betetako piperrak
**11:08** Magazinea
**12:08** Planik bai?
**12:28** Berriak
**12:43** Onein: Onddoz betetako piperrak
**13:15** Bertso saioa
**15:10** Beranduegi.tv
**15:34** Zorion agurrak
**15:39** AsteON
**16:09** Ekogune
**16:39** Berriak
**16:54** Magazinea
**17:54** Gipuzkoa Kultura
**18:24** Beranduegi.tv
**18:48** Magazinea
**19:48** Hauteskundeak 2012
**23:48** Ekogune
**00:13** Magazinea
**00:48** AsteON
**01:18** Magazinea

### ASTELEHENA 22

**12:25** Magazinea
**13:10** Zorion agurrak
**13:15** Onein: Menestra
**13:41** Gipuzkoa Kultura
**14:13** Ekogune
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:08** Zorion agurrak
**15:13** Dantza Txapelketa
**16:01** AsteON
**16:35** Musikaz Gain: Manent
**16:45** Berriak
**17:05** Eguraldia
**17:08** Onein: Menestra
**17:34** Hamaika.bit
**18:04** Beranduegi.tv
**18:29** Ekogune
**18:59** AsteON
**19:29** GCC: Garbiñe Irizar
**19:52** Berriak
**20:12** Eguraldia
**20:15** Magazinea
**21:00** Gurean Gaur
**22:00** Harmailatik
**22:45** Berriak
**23:05** Eguraldia
**23:08** Magazinea
**23:53** Harmailatik
**00:38** Gurean Gaur
**01:38** Eguraldia

### MARTITZENA 23

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean Gaur
**13:15** Zorion agurrak
**13:20** Harmailatik
**14:05** Hamaika.bit
**14:40** Zorion agurrak
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:08** Harmailatik
**15:53** Onein: Legatz betea
**16:25** Gurean Gaur
**16:51** Berriak
**17:11** Eguraldia
**17:14** Dantza Txapelketa
**17:59** Harmailatik
**18:44** Beranduegi.tv
**19:08** Musikaz Gain: Lain
**19:18** Gipuzkoa Kultura
**19:48** Zorion agurrak
**19:53** Berriak
**20:13** Eguraldia
**20:17** Magazinea
**21:02** Gurean Gaur
**22:02** Berriak
**22:22** Eguraldia
**22:27** Harmailatik
**23:12** Magazinea
**23:57** Berriak
**00:17** Eguraldia

### EGUAZTENA 24

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean Gaur
**13:15** Hamaika.bit
**13:45** Harmailatik
**14:30** Musikaz Gain: Lehiotikan
**14:40** Zorion agurrak
**14:45** Berriak
**15:00** Eguraldia
**15:03** Onein: Legatz betea
**15:35** AsteON
**16:05** Dantza Txapelketa
**16:50** Berriak
**17:05** Eguraldia
**17:08** Harmailatik
**17:53** Zorion agurrak
**17:58** Musikaz Gain: Lauroba
**18:09** Beranduegi.tv
**18:33** Zorion agurrak
**18:38** Zorion agurrak
**18:43** 28 klip
**19:13** Musikaz Gain: Eduardo Baranzano
**19:23** GCC: Garbiñe Irizar
**19:48** Zorion agurrak
**19:53** Berriak
**20:13** Eguraldia
**20:16** Magazinea
**21:00** Gurean Gaur
**22:00** Ekogune
**22:30** Berriak
**22:50** Eguraldia
**22:55** Magazinea
**23:40** Gipuzkoa Kultura
**00:10** Berriak
**00:15** Eguraldia

### EGUENA 25

**10:00** 28 klip
**10:30** Bertso saioa
**12:25** Ekogune
**12:55** Zorion agurrak
**13:00** Magazinea
**13:45** Onein: Zapo otarrainxka
**14:13** Zorion agurrak
**14:16** GCC: Garbiñe Irizar
**14:41** Ikusten: Eskolen Festa
**15:39** Ur eta lur
**16:14** Magazinea
**16:59** Musikaz Gain: Manent
**17:10** Ekogune
**17:40** Bertso saioa
**19:35** Eguraldia
**19:38** Dantza Txapelketa
**20:23** Hamaika.bit
**20:53** Magazinea
**21:38** Beranduegi.tv
**22:03** Gipuzkoa Kultura
**22:33** Musikaz Gain: Lehiotikan
**22:43** Bertso saioa
**00:38** Ekogune

## ARRASATE IRRATIA

### Hauteskundeei buruzko saio berezia Arrasate Irratian

Domekan, 19:45ean, Arrasate Irratian Eusko Legebiltzarreko hauteskundeei buruzko saioa izango dugu. Goiena telebistak egingo duen saioa zuzenean emitituko dugu. Hauteskundeen emaitza zuzenean izateko, sintonizatu FMko 107.7a edo *goiena.net*-en sartu.

### Glaukoma taldearen emanaldirako sarrerak zozketan

Astero bezala, Kooltur Ostegunak ekimenak antolatutako kontzerturako sarrerak zozketatuko ditugu. Eguen honetan Tolosako Glaukoma taldea izango dugu. Boskoteak reagge eta rap arteko nahasketa egiten du eta martxoan lehenengo diskoa grabatu zuten.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 20** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| **Domeka, 21** | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| **Astelehena, 22** | CORCUERA | Aranbarri plaza, 1 | 943 79 22 26 |
| **Martitzena, 23** | IRIZAR | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| **Eguaztena, 24** | AMEZUA | Sta. Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| **Eguena, 25** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Egubakoitza, 26** | RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 20** | MOZOS | Iparragirre | 943 76 12 15 |
| **Domeka, 21** | MOZOS | Iparragirre | 943 76 12 15 |
| **Astelehena, 22** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza, 4 | 943 76 11 74 |
| **Martitzena, 23** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Eguaztena, 24** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Eguena, 25** | ESTELLA | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| **Egubakoitza, 26** | MOZOS | Iparragirre | 943 76 12 15 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 20** | IGARTUA | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| **Domeka, 21** | IGARTUA | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| **Astelehena, 22** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Martitzena, 23** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Eguaztena, 24** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Eguena, 25** | IGARTUA | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| **Egubakoitza, 26** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |

**ARETXABALETA / ESKORIATZA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 20** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| **Domeka, 21** | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| **Astelehena, 22** | CORCUERA | Aranbarri plaza, 1 | 943 79 22 26 |
| **Martitzena, 23** | IRIZAR | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| **Eguaztena, 24** | AMEZUA | Sta. Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| **Eguena, 25** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Egubakoitza, 26** | RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |

**Farmazien eskuko telefonoetarako 2012 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

### OROIGARRIA

## Jabier Idigoras Villar

Asteartean hil zen Oñatin, 92 urte zituela.

Bat egiten dugu familiaren saminarekin.

**Kalezaharra elkartea.**
**Oñatin, 2012ko urriaren 19an.**

### ESKER ONA

## Gerardo Iñurrategi Etxebarria



Aretxabaletan hil zen 2012ko urriaren 16an, 81 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

**Aretxabaletan, 2012ko urriaren 19an.**

### HILETA

## Juana Unzueta Etxebarria



Angel Padilla Ibarguenen alarguna

2012ko urriaren 17an hil zen, 87 urte zituela.

Haren aldeko hileta-elizkizuna izango da gaur, egubakoitza, urriak 19, 18:00etan, Aramaioko San Martin parrokian.
—
Bertaratuko zaretenoi aurrez esker on.

**Aramaion, 2012ko urriaren 19an.**

### ESKER ONA

## Valentina Azkarraga Sarrao



Carlos Agirreren alarguna

Bergaran hil zen 2012ko urriaren 12an, 87 urte zituela.

Orain egun batzuk hil zen Valentinaren sendiak lerro hauen bitartez biziki eskerrak ematen dizkizuete beraiekin atsekabean bat egin duzuen guztiei.

**Bergaran, 2012ko urriaren 19an.**





## Miguel eta Tere

Miguel eta Tere 1962ko urriaren 20an ezkondu ziren Leintz Gatzagan, Dorletako elizan. Hala, zapatuan ospatuko dituzte urrezko ezteiak familia guztiarekin. "Zorionak, guztion partetik, eta musu handi bat, bereziki, Juleneren, Kermanen eta Mikelen partetik".





## Maria Jesus eta Demetrio

Maria Jesus Salsamendik eta Demetrio Iturbek 50 urte egin dituzte ezkonduta urriaren 19an. Urrezko ezteiak betetzen dituzten honetan, zorionak, familiaren eta lagunen partetik.



## Joseba eta Mertxe

Urriaren 10an ezkondu ziren, orain dela 25 urte. "Zorionak, tio Joseba eta tia Mertxe. Tallindik patxo handi bat!".



## Deiane eta Asier

Urriaren 20an Deiane Pascual eta Asier Manso ezkonduko dira. "Ondo pasatu eguna, eta oso zoriontsuak izatea espero dugu! Zuen koadrilakoak".



## Juan eta Nagore

Juan eta Nagore urriaren 20an ezkonduko dira Bergaran. "Lagun eta familiartekoak irrikan gaude egun handia iritsi eta zuekin batera ospatzeko. Jarraitu orain arte bezain zoriontsu! Musu handi-handi bat".

## HILDAKOAK

**Patxi Arkauz Unamuno.** Oñatin, orain egun gutxi.

**Juana Calboecheaga Zabaleta.** Bergaran, urriaren 10ean. 78 urte.

**Valentina Azkarraga Sarrao.** Bergaran, urriaren 12an. 87 urte.

**Hilario Gardoki Ortueta.** Aramaion, urriaren 14an. 87 urte.

**Gerardo Iñurrategi Etxebarria.** Aretxabaletan, urriaren 16an. 81 urte.

**Jabier Idigoras Villar.** Oñatin, urriaren 16an. 92 urte.

**Juana Unzueta Etxebarria.** Aramaion, urriaren 17an. 87 urte.

URTEURRENA

## Carmen Gonzalez Bastida

Valentin Ugalderen alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
urriaren 21ean, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**

URTEURRENA

## Maxima Aguirrebengoa Elorza



2011ko urriaren 18an hil zen, 80 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 21ean,
11:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.
—
*Beti gure bihotzetan*

**Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**

ESKER ONA

## Juana Calboecheaga Zabaleta



Bergaran hil zen 2012ko urriaren 10ean, 78 urte zituela.

Une hauetan gurekin izan zareten guztioi
eskerrak bihotzez senidekoen izenean.

**Bergaran, 2012ko urriaren 19an.**

URTEURRENA

## Angel Bideluze Barandiaran



2011ko urriaren 15ean hil zen, 85 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
urriaren 21ean, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik
Bideluze familiaren partez eskerrak eman nahi dizkizuegu.**

URTEURRENA

## Paula Iturrino Intxausti



Urteurreneko meza domekan, 2012ko urriaren 21ean, 11:00etan,
Antzuolako Errukizko Ama eliza nagusian izango da.
—

*Artiztik etorrita
holako lorea
amona eta ama
alai dotorea*

*nola beteko degun
ez jakin ordea
Lizitturrin gelditzen
zaigun hutsunea.*

**Aldez aurretik mila esker.**

ESKER ONA

## Patxi Arkauz Unamuno



Orain dela egun gutxi hil zen.

Patxiren senideok eskerrak eman nahi dizkizuegu
modu batera edo bestera gure ondoan izan zareten
guztiei eta baita elizkizunera etorri zineten guztiei ere.

Eskerrik asko.

**Oñatin, 2012ko urriaren 19an.**

URTEURRENA

## Felix Aldanondo Elkorobarrutia



2011ko urriaren 20an hil zen, 82 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da,
urriaren 20an, 19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**

URTEURRENA

## Juanita Beain Biain



2011ko urriaren 13an hil zen, 81 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 21ean,
12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.
—
*Beti gogoan izango zaitugu.*

**Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**

**BERGARA Txotxongilo mostra**
Helduendako Nazioarteko Txotxongiloen IX. mostra ospatzen dabiltza eguenetik domekara bitartean. Ymedioteatro andaluziarrak, Merce Gost kataluniarra eta El Tenderete eta Roberto White argentinarra izango dira egubakoitzean, herriko hainbat tokitan.
Gaur, egubakoitza, herriko hainbat tokitan, 18:30ean hasita.


YMEDIOTEATRO


NAVARRA.ES

**ARRASATE 'Arte-an' dantza ikuskizuna**
Dantzaz Konpainiak *Arte-an* emanaldia eskainiko du Amaia antzokian urriaren 20an. Indarra eta maisutasuna nahasten duen emanaldia da. Paxkal Indoren perkusio eta txalapartaren sormen handiko melodian oinarritutako saioa da.
Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 19:30ean.

## MUSIKA

**BERGARA Txapa Irratiko denboraldi berriko programazioaren aurkezpen jaia**
Denboraldi berriko programazioa aurkeztuko dute Txapa irratikoek eta ondoren Izaki Gardena taldearen kontzertua izango dute gaztetxean bertan.
Gaur, egubakoitza, Bergarako gaztetxean 19:30ean.

**ELGETA Hiru talde gaztetxean**
Achtung, The Last Strength eta Brutal Calling taldeek emanaldia egingo dute gaztetxean. Jarraian DJ Sanderrek hartuko du txanda. Sarrera bost euro da, eta batutako dirua Mujikako isundueneko izango da.
Guar, egubakoitza, Elgetako gaztetxean 22:30ean.

**ELGETA Mikel Markez eta Erramun Martikorena**
Kontzertua Espaloia kafe antzokian. Euskal kantu tradizionalak abestuko dituzte, besteak beste.
Gaur, egubakoitza, Espaloia kafe antzokian 22:30ean.

**BERGARA Mario Duella Bergarako organo jaialdian**
Organo erromantikoaren nazioarteko XIII. zikloaren ekitaldien barruan Mario Duella organo jole ospetsua izango da Santa Marina parrokian.
Bihar, zapatua, Santa Marina parrokian 20:00etan.

**OÑATI Disko-festa Gaztelekuan**
Sound Proyect taldeko DJen eskutik disko-festa herriko gaztetxoendako.
Bihar, zapatua, Gaztelekuan 18:30ean.

## ANTZERKIA

**BERGARA 'Sota Minims'**
Kataluniako Merce Gost. Helduendako nazioarteko txotxongilo mostraren barruan.
Gaur, egubakoitza, Pikupen 19:00etan.

**BERGARA 'Sie7e'**
Andaluziako Ymedio Teatro taldeak *Sie7e* aurkeztuko du Bergaran. Helduendako nazioarteko txotxongilo mostraren barruan izango da.
Gaur, egubakoitza, herriko kaleetan 18:30ean.

# NON-ZER

URRIAK 19
URRIAK 25

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

**BERGARA 'Titireska'**
Euskal Herriko El Tenderete taldearen eskutik. Helduendako nazioarteko txotxongilo mostraren barruan.
Gaur, egubakoitza, Gaztetxean 22:30ean.

**BERGARA 'Criaturas partikulares'**
Argentinako Roberto Whiten eskutik. Helduendako nazioarteko txotxongilo mostraren barruan.
Gaur, egubakoitza, Zabalotegin 20:00etan.

**BERGARA 'Diagnostiko Hamlet'**
Kataluniako Pelmanec taldearen eskutik. Helduendako nazioarteko txotxongilo mostraren barruan.
Bihar, zapatua, Zabalotegin 20:00etan.

**BERGARA 'Impas'**
Iñaki Mata antzuolarraren eskutik. Helduendako nazioarteko txotxongilo mostraren barruan izango da.
Bihar, zapatua, Herriko kaleetan 19:00etan.

**BERGARA 'Sota Minims' antzezlana**
Merce Gostekin. Helduendako nazioarteko txotxongilo mostraren barruan.
Bihar, zapatua, Pikupen 19:00etan.

**BERGARA 'Sie7e'**
Andaluziako Ymedio Teatro taldearen eskutik izango da emanaldia. Helduendako nazioarteko txotxongilo mostraren barruan bi emanaldi egingo dituzte zapatuan: 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.
Bihar, zapatua, herriko kaleetan 12:00etan

**BERGARA 'Sota Minims' antzezlana Bergaran**
Merce Gostekin. Helduendako nazioarteko txotxongilo mostraren barruan.
Etzi, domeka, Pikupen 19:00etan.

**BERGARA 'Prometeu'**
Portugalgo La Fontana taldearen eskutik *Prometeu* emanaldia helduendako nazioarteko txotxongilo mostraren barruan. Zabalotegi aretoan izango da.
Etzi, domeka, Zabalotegin 18:00etan.

**BERGARA 'Zoozoom'**
Euskal Herriko Markeliñe antzerki taldearen eskutik. Bergarako helduendako nazioarteko txotxongilo mostraren barruan izango da emanaldia herriko kaleetan.
Etzi, domeka, herriko kaleetan 13:00etan.

**ARETXABALETA 'Gure bide galduak'**
Dejabu taldeak *Gure bide galduak* antzezlana eskainiko du. Sarrera, 4 euro.
Urriaren 24a, eguaztena, Arkupeko Zaraia aretoan 19:00etan.

## IKUSKIZUNAK

**ARRASATE 'Carmen' opera**
Georges Bizet musikariaren *Carmen* opera eskainiko du Opera 2001 taldeak. Ekoizpen lanak Arrasateko Ozenki taldeak egin ditu eta lehen mailako musikariek parte hartuko dute. Servikutxaren bitartez eros daitezke sarrerak, eta baita Arrasate Musikalen ere, 25 euroren truke.
Urriaren 23a, martitzena, Amaia antzokian 20:00etan.

## OSPAKIZUNAK

**OÑATI II. Txanda eguna**
Txanda elkarteko 21 dendak herriko plazan jarriko dituzte euren saltokiak II. Txanda eguna ospatzeko. Umeendako puzgarriak egongo dira eta iluntzean, Txandako harakinen eskutik, moxal-haragi pintxoak.
Bihar, zapatua, Foruen plazan 10:00etan.

## IKUS-ENTZUNEZKOAK

**BERGARA 'Myanmar, irribarren sorlekua' ikus-entzunezkoa**
*Myanmar, irribarren sorlekua* ikus-entzunezkoa, Eneko Etxebarrietarekin.
Gaur, egubakoitza, Uberako eskola etxean 20:00etan

**ARRASATE 'Mundo perdido' ikus-entzunezkoa**
Besaide Mendizale Elkartearen hamabostaldiaren barruan emango dute ikus-entzunezkoa. Adolfo Madinabeitiak Acopan Tepuyin oinarritutakoa da.
Urriaren 24a, eguaztena, Kulturaten 19:00etan.

## UMEAK

**ARETXABALETA Emakumearen Astea: jolas ez sexistak**
Jolas ez sexistak egingo dituzte herriko plazan Emakumearen Astearen barruan.
Gaur, egubakoitza, Herriko Plazan 17:00etan.

**BERGARA Jolas-leku ibiltaria Martinez de Iralan**
Jardunekin, jolas-leku ibiltaria Martinez de Iralan.
Gaur, egubakoitza, Martinez de Irala kalean 16:30ean.

**ESKORIATZA Zarimutzen Ezkurtxorekin jolasean**
Jolas tradizionalak, ipuin kontaketak, ibilaldiak eta txokolate-jana, besteak beste.
Bihar, zapatua, Zarimutzen 15:30ean.

## IRTEERA

**ANTZUOLA Bergarako Mizpirualde Egoitzara bisita**
Urtero bezala, Antzuolatik Bergarako Mizpirualde egoitzara bisita egitera joango dira; gizarte zerbitzuetatik, herritarrak bertan parte hartzera animatu nahi dituzte. Norbaitek parte hartu nahi izanez gero, Gizarte Zerbitzuekin harremanetan jarri beharko du.
Bihar, zapatua, Antzuolan.

**OÑATI The Dealers**
Gasteizen sortu zuten The Dealers taldea 2006an, rhythm-and-blues, rock-and-roll eta Britainia Handiko 60ko hamarkada hasierako energiak bultzatuta. Hasiera batean bertsioak egiten zituzten eta gerora euren abestiak egiten hasi ziren; orain, *Hypocondria* singlea aurkeztuko dute.
Gaur, egubakoitza, Antton tabernan 20:00etan.



THE DEALERS



AIARALDEA.COM/I.M.

**ELGETA Jardunaldi mitologikoak**
Aste bukaera mitologikoa izango dute oraingoan Elgetan. Pintxoa eta urteko ardoa edo botila bat garagardo bi eurotan izago dute gaurtik domekara hainbat tabernatan. Domekan, irteera perretxikoak batzera eta erakusketa.
Gaur, egubakoitza, Elgetako tabernetan, 12:00etan hasita.

## HITZALDIAK

**OÑATI 'Vivir despierto' hitzaldia**
Oñatiko Yoga Eskolak antolatuta. Hizlaria: Maite Anduaga.
Gaur, egubakoitza, Kultura etxean 19:30ean.

**ARRASATE 'Gutxiago kontsumitu hobe bizitzeko'**
*Consumir menos, vivir mejor* liburuaren idazlea den Toni Lodeiro izango da gurekin.
Gaur, egubakoitza, Kulturaten 18:30ean.

**ARETXABALETA Emakumearen Astea: 'Emakumeen jokaerak hizkuntzaren jarraipenean'**
Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle Paula Kasaresek berbaldia eskainiko du: *Emakumeen jokaerak hizkuntzaren jarraipenean: amak euskararen familia transmisioan.*
Gaur, egubakoitza, Arkupeko Zaraia aretoan 18:00etan.

**ESKORIATZA 'Bioeraikuntzaren adiskideak', hitzaldia**
Ibarraundi museoan izango da hitzaldia eta ondoren XV. mendeko baserrira egingo da bisita, 16:00etan.
Bihar, zapatua, Ibarraundi museoan 10:30ean.

**OÑATI Adimen emozionalari buruzko hitzaldia**
Oñatiko Guraso Eskolak antolatuta, Udal Prebentzio eta Hezkuntza sailekin batera. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako umeen gurasoendako. Hizlaria da: Virginia Espin, EHUko psikologoa.
Urriaren 22a, astelehena, Kultura etxean 18:15ean

**ARRASATE Pako Aristiren 'Euskara, hizkuntza bat bere bakardadean'**
AED elkarteak antolatutako *Lau begiratu euskararen norabideari* zikloaren barruan, bigarren saioa izango da, Pako Aristi idazle eta kazetariarekin.
Urriaren 23a, martitzena, Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan 19:00etan.

## BESTELAKOAK

**ESKORIATZA Jasangarritasun azoka eta bigarren eskuko azoka**
Eguraldia dela-eta frontoian egingo dute azoka.
Etzi, domeka, frontoian 11:00etan.

**ESKORIATZA Perretxiko asteburua, Gaztelekukoen eskutik**
Zapatuan ikastaroa eta domekan mendi buelta egingo dute perretxikoak batzeko.
Bihar, zapatua, Gaztelekuan 14:00etan.

**ARETXABALETA Durana Fashion Day moda desfilea**
Belar Meta jantzi-dendak eta herriko beste hainbatek moda desfilea egingo dute Durana kalean.
Gaur, egubakoitza, Durana kalean 18:45ean.

**ANTZUOLA Ipuin zirkuitua**
Patricia Picazoren eskutik ipuin zirkuituari hasiera emango zaio.
Urriaren 19a, egubakoitza, Torresoroan 22:00etan.

## LEHIAKETAK

**OÑATI Xake txapelketa Gaztelekuan**
Gaztelekuko xake txapelketaren XVIII. edizioa.
Bihar, zapatua, Gaztelekuan 09:00etan.

**OÑATI Topalekuko XVIII. mahai futbol txapelketa**
Izen-ematea: txapelketa hasi arte.
Gaur, egubakoitza, Gaztelekuan 18:30ean.

## IKASTAROAK

**ARETXABALETA Zirku tailerra gaztetxoendako**
Zirku tailerra izango dute 7 urtetik aurrerako neska-mutikoek.
Bihar, zapatua, Arkupe kultura etxean 11:00etan.

**ARETXABALETA Emakumearen Astea: grafiti ikastaroa**
Grafiti ikastaroa eskainiko dute gaztelekuko kideek Herriko Plazan.
Urriaren 19a, egubakoitza, Herriko Plaza 18:30ean

## ERAKUSKETAK

**OÑATI Iker Iglesiasen aretxabaletarraren erakusketa**
*Tell me and I'll forget; show me and I may remember; involve me and I'll understand* erakusketa hilaren 28ra arte.
Gaur, egubakoitza, Kultura etxean 18:00etan.

## ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**Mátalos suavemente**
Domekan: 19:30.

**Piratas 3D**
Domekan:17:00.

### BERGARA

**ZABALOTEGI**

**El discurso del rey**
Eguaztena: 20:00.

### OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**Si de verdad quieres...**
Egubakoitzean eta zapatuan: 22:30. Domekan: 19:30, 22:30. Astelehenean: 19:30.

**Madagascar 3**
Zapatuan eta domekan: 17:00.

### GASTEIZ

**BOULEVARD**

**Looper**
Egunero: 18:00, 20:15, 22:30. Egubakoitzean eta zapatuan: 0:45. Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 15:45.

**Paranormal Activity 4**
Egunero: 18:20, 20:20, 22:20. Egubakoitzean eta zapatuan: 0:20. Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 16:20

**Lo imposible**
Egunero: 17:50, 18:50, 20:10, 22:30. Egubakoitzean eta zapatuan: 23:30, 0:50. Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 115:30, 16:30.

**Las aventuras de Tadeo Jones**
Egunero: 17:40, 19:40.. Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 15:40.

**Las aventuras de Tadeo Jones 3D**
Egunero: 18:40. Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 16:40.

**Resident Evil: Venganza**
Egunero: 18:00, 20:00.

**Resident Evil: Venganza 3D**
Egunero: 20:00.

**El fraude**
Egunero: 17:45, 20:00, 22:15. Egubakoitzean eta zapatuan: 0:30. jaiegunetan: 15:45

**Frankenweenie**
Egubakoitzetik domekara: 17:50, 19:50. Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 15:50. Astelehenetik eguaztenera: 17:50.

**Frankenweenie 3D**
Egubakoitzetik domekara,eta eguenean: 21:50. Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 20:50. Astelehenetik eguaztenera: 19:50.

**A Roma con amor**
Astelehenetik eguaztenera: 21:50. Egubakoitzean eta zapatuan: 0:40.

**Mátalos suavemente**
Egunero: 22:15. Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:30.

**Brave**
Egubakoitzetik domekara, eta eguenean: 17:55. Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 15:55.

**Salvajes**
Egunero: 19:55, 22:20.

**Magic Mike**
Egunero: 17:55. Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:45.

**Venganza; conexion Estambul**
Egunero: 20:40, 22:40.

**Blancanieves**
Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 16:00.

**Ice Age 4**
Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 16:05.

**GORBEIA**

**Looper**
Egubakoitzetik domekara: 19:30, 22:00. Egubakoitz eta zapatuan, baita: 0:30. Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 17:00. Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Paranormal Activity**
Egunero: 17:45, 19:45, 21:45.. Egubakoitz eta zapatuan, baita: 23:45. Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 15:45.

**¡Atraco!**
Egunero: 17:45, 19:45, 21:45. Egubakoitz eta zapatuan, baita: 0:30. Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 15:30.

**Lo imposible**
Egunero: 18:00, 20:15, 22:30. Egubakoitz eta zapatuan, baita: 0:45. Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 15:45.

**Frankenweenie**
Egunero: 19:30, 21:30.

**Frankenweenie 3D**
Egunero: 18:20.

**El fraude**
Egunero: 20:30, 22:40. Egubakoitz eta zapatuan, baita: 0:50.

**Venganza: Conexión Estambul**
Egunero: 18:10, 20:10, 22:10.

**Salvajes**
Egunero: 21:50. Egubakoitz eta zapatuan, baita: 0:30.

**Resident Evil: Venganza**
Egunero: 20:20, 22:20.

**Resident Evil: Venganza 3D**
Egunero: 22:20. Egubakoitz eta zapatuan, baita: 0:20. Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 16:20..

**Magic Mike**
Egubakoitz eta zapatuan: 23:30.

**Total Recall**
Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 0:15.

**Las aventuras de Tadeo Jones**
Egunero: 18:10, 20:00. Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 16:20.

**Las aventuras de Tadeo Jones 3D**
Egunero: 17:30. Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 17:40.

**Brave**
Egunero: 18:30. Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 16:30.

**Si de verdad quieres...**
Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 16:10.

**FLORIDA**

**Lo imposible**
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30. Egubakoitzetik domekara, baita: 12:00. Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:25.

**Cosmopolis**
Egubakoitzean: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30, 0:30. Zapatuan: 12:00, 0:30. Domekan: 12:00, 22:30. Astelehenetik eguenera: 17:45, 20:15, 22:30.

**7 días en la Habana**
Egubakoitzetik zapatura: 20:15, 22:30. Domekatik eguenera: 20:15.

**Si de verdad quieres...**
Egubakoitzetik domekara: 12:00, 18:00, 22:30. Astelehenetik domekara: 18:00, 22:30.

**Las aventuras de Tadeo Jones**
Egubakoitzetik domekara: 12:00, 16:45, 18:30. Eguenean: 16:45, 18:30.

**A Roma con amor**
Egubakoitzean eta zapatuan: 20:15, 22:30. Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:30. Astelehenetik eguaztenera, baita: 18:00.

**Pura vida**
Egubakoitzetik domekara: 12:00, 16:45, 18:30, 20:30, 22.30. 0:30. Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:30. Astelehenean: 18:00, 20:00, 22:30. Martizenean: 18:00. Eguaztenean: 18:00, 20:15, 22:30. Eguenean: 16:45, 18:30, 20:30, 22:30.

**Frankenweenie**
Egunero: 18:30. Egubakoitzetik domekara, baita: 12:00, 16:45. Eguenean, baita: 16:45.

**Bypass**
Egunero: 22:30. Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 20:30, 0:30. Domekatik eguaztenera, baita: 20:15. Eguenean, baita: 20:30.

**¡Atraco!**
Egunero: 17:45, 20:15, 22:30. Egubakoitzetik zapatura, baita: 12:00, 0:30. Domeketan, baita: 12:00.

**Incendies**
Martitzenean:20:00.

## KRITIKA



**FRANKENWEENIE** ★★★★☆
**Zuzendaria:** Tim Burton.
**Herrialdea:** AEB.
**Urtea:** 2012.
**Ahotsak:** Winona Ryder, Catherine O'Hara eta Martin Short.
**Iraupena:** 87 minutu.

# Frankensteinen aztarna iraunkorrak

1984. urtean Tim Burtonek *Frankenweenie* izeneko 30 minutuko film laburra aurkeztu zuen. 10 urteko mutil baten txakurra hil egingo da eta mutikoa txakurra berpizten ahaleginduko da. Istorio honetan argi eta garbi agertzen da zuzendariarengan Frankesteinen istorioak duen garrantzia. Esate baterako, Eduardo Manostijerasek Mery Selley sortutako istorioarekin zerikusi handia du. Bizitza eta heriotzaren arteko mugak gainditzen duten zientzialariak askotan agertu dira literatura eta zinema fantastikoan. Zuzendari estatubatuarrak beti maite izan ditu halako istorioak eta horiekin berezko unibertso bat sortu izan du. Argiarekin eta itzalekin jokatuz, fantasia, ikara, eta pertsonaia bereziak erabili ditu fantasiaren alde ilunari duen alde poetiko eta lirikoa ateratzeko.

Burtonen filmek berezko estetika bat dute. Oso irudi indartsuak lortzen ditu. Kasu honetan animazioa erabili du duela 28 urte aktoreekin egindako istorioa filmatzeko. Lehen aipatutako istorioa mantentzen da, baina ordu bete gehiago duenez, zuzendariak detaile gehiagorekin kontatzen digu gertatzen den guztia. Eta argumentu nagusia beste osagai batzuekin aberastu du. Gizakien lehiakortasunean handinahia eta inbidia nahasten dira eta ezaugarri horiek larriagotuko dute hasierako esperimentuaren ondorioak. Horrela, istorioa munstro beldurgarriez beteko da. Eta Burtonen aukera izango du bere bizitzan eragin izan duten pertsonaia, liburu eta filmak omentzeko: *Frankenstein*, *La novia de Frankenstein*, *La momia*, *Los pajaros*, *Gremlins*, *Godzila* ... agertzen dira zuzendariaren unibertso magiko honetan.

*Frankenweenie* agian ume txikientzako ilunegia izan daiteke. Filma helduen haur-bazterrera hurbiltzen da. Eta gu gustura murgiltzen gara fantasia, ikara,tolesgabetasuna eta samurtasuna nahasten duen film magiko honetan.

ANTONIO ZABALA

## TIRA-BIRAKA






## BUKATZEKO

# Eskopeta beharrean argazki-kamera

▶ Benetan ikusgarriak dira Iñigo Jimenez arrasatearrak hegaztiei ateratzen dizkien argazkiak

▶ Irudi on bat lortzeko orduak eman behar izaten ditu bere ezkutalekuan, adi–adi, geldi eta isilik

**ARRITXU BARRUSO** | ARRASATE

Iñigo Jimenez arrasatearrak hamabi, hamalau edo hamasei ordu igaro ditzake ezkutalekuan, adi-adi, nahi duen hegaztia harrapatu arte. Hegaztien ehizan ibiltzen da, baina ez du eskopetarik erabiltzen horretarako, eskopeta batek baino gehiago pisatzen duen argazki-kamera baizik. Horixe da arrasatearraren zaletasuna, hegaztiei argazkiak ateratzea.

### Ezkutuan eta isilik

Argazki aproposa lortzeko hegaztiak berarengana hurbiltzea lortu behar izaten du, eta hori ez da erraza; ezkutalekuan, edo *hide* deiturikoan, sartu eta geldi-geldi egon behar izaten du: "Hegaztiek entzumena eta ikusmena oso garatuta daukate eta berehala konturatzen dira inguruan zerbait arraroa gertatzen bada. Reflexak argazkia ateratzerakoan egiten duen *klik* horrek ere uxatu egiten ditu askotan".

### Harrapariak gustukoen

Hegazti guztiak ditu gustuko arrasatearrak, baina kontatu digu harrapariek ematen diotela atentzioa. "Azkenaldian arrano beltzaren atzetik ibili naiz eta duela pare bat aste lortu nuen argazkia. Baina ez da nik nahi dudan argazkia; beraz, itzuli egin beharko dut nahi dudan argazkia ateratzeko".

Ateratako argazkiak blogera igotzen ditu (*http://inigojimenezbanos.blogspot.com.es*). Zaletasun ezezaguna den arren, Interneten mugimendu handia dagoela kontatu digu: "Jendeak esaten dit zoratuta nagoela [Barre], baina uste dutena baino zaletasun zabalduagoa da".



Zoom handia daukan objektiboa behar izaten du. | JAGOBA DOMINGO



Martin arrantzalea. | IÑIGO JIMENEZ





Jimenez, ezkutalekuan. | ARRITXU BARRUSO

## AZKEN BERBA

**IDOIA ETXEBERRIA**



# Sormen maratoia

Sormena lantzea jolastea da. Asmatzea. Imajinatzea. Eta ematen du hori egiteko umea izan behar duzula. Ala artista, bestela. Gaztetxoa. Ala erretiratua. Zer egin seriorik ez duena, alegia. Izan ere, ez du etekinik ematen. Denbora galtzea ei da. Gainera, zer esango dute!

Sormena lantzea taldean, eta kalean. Hori da korto rallyetan egiten dena. Oñatin eta Eskoriatzan. Goizean gai bat ematen dizute, eta arratsaldean filma entregatu behar duzu. Bitartean, istorioa asmatu, grabatu eta muntatu. Elkarlanean. Denbora gutxian. Presaka. Ehundik gora lagun, herrian bueltaka. Erdi mozorrotuta, aldi berean sortzen. Eta primeran pasatzen. Egunean bertan ikusten da emaitza. Euforia kolektibo moduko batekin. Talde guztien kortoak. Denak diferenteak. Txarrena ere ona. Kristorena.

Antzerkia, muralak egitea... Formula asko egon daitezke. Baina kortoena ezagutzen dudan sormen maratoi onena da. Oñatiko rallya azaroaren 10ean da. Oraintxe duzu izena emateko aukera. Atera zure barruko umea. Nahi dutena esango dute, baina egin dezakegun gauzarik zentzuzkoena da.

IparProject
www.iparproject.com
info@iparproject.com
Prezioak mantentzen ditugu!
Eskaintza bereziak!





Barne diseinua - Gremioen koordinazioa
Erreforma eta ekipamendu integrala
Altzariak eta merkatuko lehen markak

BERGARA
Telleria 23 - D5 pabilioia. Labegaraieta industrialdea
Tel.: 943 76 98 30 / Faxa: 943 76 52 44

AZPEITIA
Landeta auzoa. Atxubiaga 5 - Behea
Tel.: 943 15 03 33 / Faxa: 943 15 73 16